

iraila ■ 2021

EAEko immigrazioari buruzko diskurtso politikoak eta sozialak

Lía González Estepa, Irune Ruiz Ciarreta, Maite Fouassier Zamalloa



CIP. Biblioteca Universitaria

González Estepa, Lía

EAE-ko inmigrazioari buruzko diskurtso politikoak eta sozialak [Recurso electrónico] / Lía González Estepa, Irune Ruiz Ciarreta, Maite Fouassier Zamalloa. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2021. – 1 recurso en línea: PDF (126 p.)

En la cub.: Ikuspegi - Observatorio Vasco de Inmigración; UPV/EHU; Eusko Jaurlaritza, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-357-1.

1. Inmigrantes – País Vasco. 2. Emigración e inmigración – Aspecto político. 3. Emigración e inmigración – Aspecto social. I. Ruiz Ciarreta, Irune. II. Fouassier Zamalloa, Maite. III. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)314.742(460.15)

Argitaraldi elektronikoa

Urtea eta lekua:	2021, Bilbo
Argitaratzailea:	Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Diseinua eta maketazioa:	Ikuspegi – Inmigrazioaren Euskal Behatokia
Dokumentazioa:	Antonio Gómez, Ikuspegi – Inmigrazioaren Euskal Behatokia
Itzulpena:	Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
Azaleko argazkia:	elCarito, Unsplash
ISBN:	978-84-1319-357-1



AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Helburuak	7
3. Metodologia	9
3.1. I. zatia: Diskurtso politikoen azterketa	10
3.2. II. zatia: Diskurtso sozialen azterketa	11
4. Diskurtso politikoak	13
4.1. Hauteskunde-programen (EAE, 2020) azterketa dokumentala	13
4.2. Ekimen parlamentarioen azterketa (2018-2020)	22
4.3. Kazetaritza politikoak eta sozialak egindako balorazioak eta gogoetak	35
5. Diskurtso sozialak	47
5.1. Bigarren mailako iturrien berrikuspena	47
5.2. Bertako biztanleen pertzepzio eta iritziei buruzko ikuspegi kualitatiboa	57
5.2.1. Immigrazioari buruzko diskurtsoak 50 urte edo gehiago dituzten pertsonen artean	57
5.2.2. Gazteen ikuspegia	79
6. Ondorio orokorrak	87
6.1. Txostenaren ondorio espezifikoak	95
Eranskinak	103
1. eranskina. Immigrazioari eta kultura-aniztasunari buruzko edukia hauteskunde-programetan (EAE, 2020)	103

2. eranskina. Aztertutako ekimen parlamentarioen zerrenda	105
3. eranskina. Ekimen parlamentarioak bilatzeko eta aukeratzeko prozesua. . .	112
4. eranskina. Eusko Legebiltzarraren funtzioak eta ekimen motak	114
5. eranskina. Elkarrizketetarako gidoia	115
6. eranskina. Hauteskunde-programetako testu-aiпуak (elkarrizketak). . . .	116
7. eranskina. Egindako elkarrizketen fitxa teknikoak	118
8. eranskina. Eztabaida-taldeetarako gidoia	119
9. eranskina. Eztabaida-taldeetako parte-hartzaileen fitxa teknikoak	121

1

Sarrera

Hogei urte baino gehiago igaro dira atzerritar jatorriko pertsonak iritsi eta nazioarteko migrazioak diskurtso publikoaren parte izaten hasi zirenetik. Gaia munta txikikoa izan zen ordura arte, baina gero eta leku handiagoa hartzen hasi zen agenda politikoetan, gai guztiz funtsezkoa bihurtu arte, eta ez gutxitan erabilia hauteskunde lehietan, haustesleria posiblearen emozioak mugiarazteko. Hasieran, gure herrian, Europako erakundeak atzetik presionatzen ari zirela, Hegoaldeko muga kontrolatzea izan zen kezka eta erantzun politikoa. Geroago, migrazio fluxuak kontrolatzeko eta kudeatzeko politika horiei fluxu horiek gure gizarteetan bultzatzen duten aniztasun kulturalaren beharrezko kudeaketari buruzko gogoeta gehituz joan zitzairen.

Pentsatu izan da immigrazioari buruzko diskurtso politikoa “politikoki eraginik gabea” izan dela gure herrian Europako beste estatu batzuekin alderatuta¹ haietan begi-bistakoa baitzen zer-nolako inpunitatea zuen eskuin muturrak argudio arrazistak eta xenofoboak erabiltzeko², baina azken urteotako errealitateak argi utzi digu etorkinaren irudiari buruzko jarrerarik populistenak bidea egiten ari direla, eta beldurra eta mesfidantza zabaltzen. Besteak beste, hauteskundeetan, Parlamentuan esaten direnetan eta komunikabideetan ikusten dugu hori, nahiz eta VOX alderdiaren sorrerak Espainiako oraindik oraingo historiaren espezifikotasun lokalak izan, beste ezer baino lehen eta ezinbestean immigrazioari lotuta ez daudenak.

Immigrazioari buruzko I. Euskal Plana 2003an egin zen, eta esaten zuen EAEko administrazio publiko guztiei zegokiela migrazio fenomenoaz arduratzea. Gaian arrazoizko eta bidezko politikak arduraz erabiltzea gomendatzen zen, posible zen adostasun sozial eta politiko handienarekin, eta inplikaturako

¹Izan ere, Espainia salbuespentzat jo izan da Europan.

²Ikus, adibidez, Van Dijk, Teun A. (2003). *Racismo y discurso de las élites*. Gedisa.

instantzia publikoen esku-hartzeak bezala instantzia horiek eta gizarte zibila ere koordinatzeko eta integratzeko asmoarekin, kulturarteko gizartearen eraikuntzan aurrera egiteko.

Herritartasunaren, kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana dago indarrean gaur egun, eta hartu beharreko neurri estrategikoen artean, berriaz jasotzen du honen beharra: “Diskurtso politikoa sortzea eta kulturartekotasunaren eta immigrazioaren kudeaketa birkokatzea agenda eta jardun politikoaren leku zentral eta estrategiko batean, etorkizuneko euskal gizartearen eraikitze giltzarri moduan”.

Alde horretatik, oso urrats garrantzitsua izan da EAEko gizarte-egiturak eta indar politiko gehienek *Migratorako Euskal Itun Soziala. Elkarbizitzaren aldeko Konpromisoa* bere egitea 2019ko azaro amaieran. Itunak kontuan hartzen du EAEko gizarteak aniztasunean oinarrituta eta herritartasun anitz eta inklusiboa eraikitze helburuarekin hartzen dituela beste leku batzuetatik datozen pertsonak. Aldi berean, itunak honako hauek lortzeko deia egiten du: elkartasuna, diskriminaziorik eza eta etorkinen eta bertakoen eskubideak eta betebeharrak parekatzea.

Helburu hori lortzeko, garrantzitsua eta interesgarria da jakitea eta aztertzea gaur egun nola heltzen ari zaion EAEn migrazioen fenomenoari, ikuspuntu politikitik bezala sozialetik ere. Azterlan honen bidez, jakin nahi dugu zer interpretazio-esparrutan oinarrituta eraikitzen duten gizarteak eta klase politikoak immigrazioaz eta hari lotutako esparru guztiez duten imajinarioa. Esparru horiek eta sortzen dituzten diskurtsoek, zeinetako batzuk akasgabeak baitira, eta bestetarik, berriz, atzerritar jatorriko biztanleekiko estereotipo negatiboz eta aurrejuzkuz beteta baitaude, ikuspegiak mugatzen dituzte, gizartearen sartzeko dira eta, ez gutxitan, politika publikoak bideratzen dituzte. Diskurtso eta narrazio horiek ezagutu eta aztertzea lehen urratsa da haietan eragin ahal izateko.

2

Helburuak

Azterlan honen bidez, helburu orokor hau lortu nahi dugu:



EAE-N ETORKINEI BURUZ DAUDEN DISKURTSO POLITIKO ETA SOZIAL NAGUSIAK AZTERTZEA.

Adierazitako helburu hori lortzeko, informazioa bildu behar da honako hauek eginez:

- EAEko azken hauteskunde autonomikoetan ordezkari parlamentarioa lortu zuten alderdi politikoen hauteskunde programetako bakoitzean immigrazioaz eta aniztasun kulturalaz bildutako edukia deskribatzea.
- Eusko Legebiltzarrean 2018. urtearen hasieratik 2020ko ekainaren 30era arte immigrazioaz eta aniztasun kulturalaz aurkeztutako ekimen parlamentario guztiak sailkatu eta kuantifikatzea.
- Lehen immigrazioari eta aniztasun kulturalari dagokionez sailkatutako ekimen parlamentarioen edukia aztertzea.
- Alderdi politikoen azken urteetan EAEn immigrazioari buruz hartutako jarreraz kazetaritza politiko eta sozialak izandako ikuspegia biltzea.
- Bigarren mailako iturrietara jotzea, EAEko gizarteak azken urteetan immigrazioaz izandako pertzepzio eta iritziei buruzko datu estatistikoak ezagutzeko.
- Arretaz aztertzea ikuspuntu kualitatibo batetik zer diskurtso sozial dauden indarrean immigrazioari buruz EAEko bertako biztanleen artean, eta arreta nagusia jartzea kontsultatutako azterlan estatistikoaren arabera atzeritarrekiko jarrera uzcurrera duten biztanle-segmentu batzuetan.

3

Metodologia

Ikerketaren eta planteatutako helburuen izaera bera dela eta, azterlana, azterketa egiteko, bi zatitan banatu behar da. Jakina, praktikan, biak elkarri sakon lotuta daude. Azterlanaren bi zatiak osatu ondoren, ateratako ondorio orokorrak aurkezteko atal batez amaituko dugu.

1. irudia. Azterlanaren zatiak

ATALA

1

EAEko diskurtso
politikoen azterketa

Hauteskunde-programen (EAE 2020) azterketa dokumentala eta legebiltzar-ekimenen (2018-2020) azterketa

EAEko politikan eta/edo migrazioen errealitatean aditu ziren sei kazetariri egindako elkarrizketak

ATALA

2

EAEko diskurtso
sozialen azterketa

Bigarren mailako iturrien berrikuspena: Euskal Soziometroa, Deusto Gizarte Barometroa eta Ikuspegiren Barometroa

4 eztabaida talde: 3 talde 50 urte edo gehiago dituzten bertako biztanleekin / talde bat 18-24 urteko bertako biztanleekin

AZKEN ATALA. Ondorio orokorrak

Iturria: txostengileek egina.

Denborari dagokionez, azterlana azken hiru urteetako EAEko diskurtso politiko eta sozialari buruzkoa izango da. Aldi horretan, honako hiru hauek har daitezke funtsezko erreferentziatzat: familia-erreferenterik gabeko adingabeen eta gazteen errealitatea (MENA eta JENA); iragaitzazko migrazioa; Maydayterraneo – Aita Mari Proiektua; eta DBEren erreforma.

I. zatia: Diskurtso politikoaren azterketa

Immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko diskurtso politikoak, honako hauek egin dira:

- A. Bigarren mailako kanpo iturrietako informazioa biltzea, jakiteko zein den alderdi politikoek Euskadiko migrazio fenomenoaz duten jarrera politikoa. Horretarako, hauek aztertu ditugu:
 - Gaur egun EAEko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoaren hauteskunde programetan (EAE, 2020) immigrazioaz eta aniztasun kulturalaz bildutako edukia³. Honako hauek aipatzen ari gara: Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV), Euskal Herria Bildu (EH Bildu), Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE-EE PSOE), Elkarrekin Podemos-IU (EP-IU), Alderdi Popularra (PP) eta Ciudadanos (Cs), koalizio gisa eta, azkenik, Vox.
 - Eusko Legebiltzarrean 2018. urtearen hasieratik 2020ko ekainaren 30era arte immigrazioari eta aniztasun kulturalari lotuta aurkeztutako ekimen parlamentarioei dagokienez, ekimenak funtzio parlamentarioaren eta ekimen motaren arabera sailkatzen eta kuantifikatzen ditugu, 3. eranskinean adierazten den ereduaren arabera, eta, gainera, aldia, proposatzaileak eta gaia kontuan hartzen ditugu. Geroago, ekimenen edukiari heltzen diogu, alde batetik, zehatzago ikusteko zeri buruzkoak diren, bestetik, dauzkaten ikuspegiak bereizteko eta, azkenik, jakiteko kasu bakoitzean zein diren proposatzaileak eta zein ez⁴.
- B. EAEko alderdi politikoek immigrazioaz zer jarrera politiko duten sakonago jakiteko, zundaketa kualitatibo bat egin genuen EAEko jardueren politikoan eta/edo migrazioaren errealitatean aditu diren eta askotariko esperientziak eta lanbide ibilbideak dituzten kazetariekin⁵. Hartara, hizpide dugun

³Hauteskunde programetan eduki hori detektatzeko prozesua nola egiten den jakiteko, ikus 1. eranskina.

⁴Ekimenen sailkapena Eusko Legebiltzarreko Azterlanen Zuzendaritzaren aholkularitza eta azken ikuskerarekin egiten da. Aztertutako ekimenen zerrenda 2. eranskinean dago. Ekimenak bilatzeko eta aukeratzeko prozesuari buruz informazio zehatzagoa izateko, ikus 3. eranskina.

⁵Ikus 7. eranskina.

gailan ardaztutako elkarrizketa bana egin diegu sei adituri, funtsezkoak diren pertsona gutxi batzuegandik informazio ugari eta zehatza lortzeko azterlanaren gai nagusiari buruz Horrelako elkarrizketetan, gidioak galdera irekiak izaten ditu, eta helburua izaten da elkarrizketatuaren motibazioari, jarrerari eta egitasmoen lotutako alderdietan sakontzea, bai eta aztergai dugun gaiari buruzko informazio zehatza lortzea ere.

Egungo pandemia-egoera dela eta, eta inplikaturako pertsona guztien segurtasuna eta erosotasuna zaintzeko, elkarrizketak telematikoki egin ziren 2020ko azaro eta abendu artean. Era berean, elkarrizketak euskarri informatikoan grabatu ziren, eta formatu dokumentalean transkribatu.

II. zatia: Diskurtso sozialen azterketa

Interesgarritzat jotzen dugu honako hauek erabiliz heltzea Euskadiko diskurtso sozial nagusiei:

- A. Zenbait barne-iturritako –Ikuspegi– eta bigarren mailako kanpo iturritako informazioa berrikustea, euskal herritarrek etorkinez dituzten pertzepzioak eta iritzia jasotzen baitituzte. Zehazki, honako hauei buruz ari gara:
 - Euskal Soziometroa; lau hilean behingoa da (66.-72. zk.ak).
 - Deusto Gizarte Barometroa; urtean bitan argitaratzen da –neguan eta udan– (2018., 2019. eta 2020. urteak).
 - Atzerritar jatorriko biztanleei buruzko pertzepzioen eta jarreraren gaineko barometroa (Ikuspegiren Barometroa aurrerantzean) (2018., 2019. eta 2020. urteak).
- B. Zundaketa kualitatibo bat, herritarren pertzepzioen eta iritzien barruan eztabaida edo tentsio handiena sor dezaketen elementuetan sakontzeko.

Horretarako, lau eztabaida-talde egiten ditugu. Eztabaida-taldea talde-dinamikako teknika bat da. Taldea 5-8 pertsona inguruk osatzen dute, eta bilera informal baten modukoa da, ahalegina egiten baita bilera eguneroko bizitzan egiten direnetako bat balitz bezala egiteko. Antolatutako eztabaida-taldeek honako ezaugarri hauek dituzte⁶:

⁶Eztabaida-taldeak osatzen dituzten pertsonen profilari buruz ondoren ematen dena baino informazio zehatzagoa lortzeko, ikus 9. eranskina.

- 1., 2. eta 3. taldeak. EAEko bertako herritarrak, 50 urte edo gehiago dituztenak, EAEko hiru lurralde historikoetako landa- nahiz hiri-inguruneetakoak. Askotarikoa izan daiteke herritar horien prestakuntza eta maila sozioekonomikoa. Emakumeen eta gizonen kopuru orekatua.

Hiru talde horiek eratzeko arrazoia da jakitea zer pertzepzio eta iritzi dituzten, adin aldagaia kontuan hartuta, eta kontsultatutako azterlan estatistikoaren arabera (zehazki, Ikuspegiren 2018ko, 2019ko eta 2020ko barometroak), atzeritar jatorriko biztanleekiko tolerantzia-maila txikiena erakusteko joera duten biztanle-segmentuek. Eztabaida-talde bana egiten da lurralde historikoetan.

- 4. taldea. EAEko bertako herritarrak, 18-24 urte artekoak, Bizkaiko hiri-inguruetan bizi direnak. Askotarikoa da haien prestakuntza eta maila sozioekonomikoa. Taldeko emakumeen eta gizonen kopurua orekatua izatea zaintzen da.

Laugarren talde hori eratzeko asmoa da nolabaiteko kontrapuntua jartzea, eta, horretarako, egungo herritar helduen arteko gazteenen pertzepzioak eta iritziak jasotzea.

Teknika hori kolektibo bateko pertsonen beren gisakoekin harremanak izatean ageri dituzten jarrera, portaera eta proiektzioen inguruko informazioa bildu nahi denean erabili ohi da.

“Eztabaida-taldeak” gaietan (edo galderetan) gidoi bat izaten du, eta gaiak irekiak dira, taldea osatzen duten pertsonen horiei buruz gogoeta egin eta iritzia emateko jarriak. Informazio-bilketa hutsal batean geratu gabe, gidoiak lortu nahi da agertutako iritzien eta egindako adierazpenen azpian dautzan jarrera eta motibazioetan sakontzea. Beraz, eztabaida-taldearen garapeneren oinarrian teknika psikologiko, psikosozial eta soziologikoak daude.

Kazetariei egindako elkarrizketak bezala, eztabaida-talde guztiak telematikoki egin ziren, eta edukia euskarri informatikoan grabatu zen, geroago transkribatzeko.

4

Diskurtso politikoak

Hauteskunde-programen (EAE, 2020) azterketa dokumentala

Hurrengo orrialdeetan, adierazten dugu zer diskurtso erabili dituzten alderdiek beren hauteskunde-programetan immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruz, bai errealitate horri berariaz heldu diotenean, bai zeharka aipatu dutenean beste gairen bati lotuta. Programen edukiaz egindako azterketaren ondorioz, bost bloke tematiko hauek bereizten ditugu, eta atal hau egituratzeko ardaztat erabiliko ditugu:

- Harrera, babes soziala eta herritartasun unibertsala
- Enplegua
- Hezkuntza eta euskara
- Kulturartekotasuna eta diskriminaziorik eza
- Kolektibo migratzaile zehatzak eta diskriminazio anizkoitza

Komeni da argitzea diskurtsoak aipatzen ditugunean planteamendu orokor batzuez ari garela, eta planteamendu horien ondorio dela nola ulertzen ditugun immigrazioa eta aniztasun kulturala, nola bideratzen ditugun eta, azken batean, nola heltzen diegun maila formalean, zehatz aztertu gabe alderdi bakoitzaren proposamen konkretuak, ez eta horien eta darabilten diskurtsoaren (formala) arteko koherentzia handiagoa edo txikiagoa ere.

Alderdi politiko guztiek immigrazioari buruzko sekzio, atal edo puntu espezifiko bat jasotzen dute beren hauteskunde-programetan. Era berean, guztiek, Vox-

ek izan ezik⁷, errealitate horri buruzko berriazko erreferentzia eta aipamenak jasotzen dituzte beren programako beste sekzio, atal edo puntu batzuetan. EAJ-PNVk, EH Bilduk, PSE-EEk eta Elkarrekin Podemos-IUK immigrazioari buruzko erreferentziak jasotzen dituzte gai sozialei, osasunari, hezkuntzari, enpleguari, berdintasunari eta kulturari buruz aritzean. Bestalde, PP+Cs koalizioak aipamen horiek laguntza sozialen kudeaketaz eta Lanbidez, familia-politikez, erronka demografikoaz eta hezkuntzaz aritzean egiten dituzte aipamen horiek⁸.

Harrera, babes soziala eta herritartasun unibertsala

EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU bat datoz EAera iristen diren pertsonen harrera egin eta babes ematearen aldeko diskurtsoan, eta helburutzat hartzen dute desberdinkeria aurre egitea, herritartasun unibertsala sustatzea eta, beraz, migrazioaren errealitatea heldu beharreko gai handien barruan jartzea. Alde horretatik, EAJ-PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IUren ustez berriz ezarri behar da immigrazioarako eta aniztasunerako zuzendaritza nagusi espezifiko bat Eusko Jaurlaritzaren organigramaren barruan. Hitz batean, lau alderdi horiek harrera-sistema indartu nahi dute, eta funtsezko zerbitzuetarako sarbide egokia bermatu; osasunerakoa, besteak beste.

Nolabaiteko desberdintasuna dago “governuko” eta “oposizioko” alderdien artean. EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IUK aldaketa espezifiko garrantzitsu batzuk egin nahi dituzte babes sozialeko sisteman; adibidez, DBE errenta eskatzeko hiru urtez errolatuta egon beharra kentzea (EH Bildu); eta bizilekua oinarritzat hartzea herritartasuna garatzeko, baina ez nazionalitatea (Elkarrekin Podemos-IU). Eskumenen ikuspuntutik, lehen aldaketa esparru autonomikoari dagokio; ez, ordea, bigarrena. EAJ-PNVk eta PSE-EEk gehiago nabarmentzen dute beren diskurtsoan egungo jarduera-esparruak indartzea, edo horietan aurrera egitea. PSE-EEk, adibidez, harrera-estrategia garatzea proposatzen du “babes komunitarioaren eremuan oinarrituta, zeina Eusko Jaurlaritzak garatzen hasi berri baitu azken legegintzaldi honetan”.

Estatuko eta europar esparruko politikei dagokienez ere desberdinak dira jarrerak. EH Bildu ez dator bat Estatuko atzerritartasun- eta nazionalitate-legeekin, eta politika propioak garatzen lan egitea proposatzen du. Elkarrekin Podemos-IUK, berriz, hauek proposatzen ditu, besteak beste: atzerritartasun-legea aldatzea; atzerritarrak bero-beroan ez itzultzea; ez laguntzea deportazio-

⁷Komeni da kontuan hartzea Vox-ek ez duela aurkeztu gainerako alderdien moduko hauteskunde-programarik, dekalogo bat baizik, hamar neurri; neurri horietako bat berriaz da “MENA” direlakoei buruzkoa.

⁸Lehen eranskinean, laburpen-taula batean, zehatz adierazten da hauteskunde-programa bakoitzeko zer sekzio eta atal konkretutan agertzen den immigrazioa gai espezifiko moduan edo zeharka.

prozesuetan, ez eta zentro itxien sisteman ere; eta abar. EAJ-PNVren aurkako jarrera ez da hain esplizitua. Adibidez, “iheslarien harrera- eta integrazio-arloko eskumena” bereganatzea proposatzen du, eta “Europar Batasunean, migrazio-erronkari erantzuteko, erantzukidetasun-printzipioa” sustatzea. PSE-EEren kasuan, ez dugu aurkitu ildo horretan egindako aipamen zehatz edo espliziturik.

PP+Cs koalizioak, bestalde, EAEko prestazio sozialek izan dezaketen “dei-efektuan” jartzen du arreta, eta “legez kanpoko immigrazioa deuseztatzea, bai eta egoera irregularrean dauden etorkinak azkenean murgiltzen diren egoerak ere: gizarte-bazterkeria, marjinaltasuna, klandestinitatea, mafien salerosketa, abusuak...” aldeztu du; eta honako hau ere bai: “immigrazio legezkoa eta ordenatua, eskain ditzakegun enpleguari eta aukerei nahiz gure harrera-ahalmenari lotua, datozen pertsonak gizarteratzea eta laneratzea ziurtatu ahal izateko”. Normalean immigrazioari buruzko ikuspegi hidraulikoa esaten zaiona da, zeinaren arabera etorkinen kopuruak behar adinakoa izan behar baitu uneoro, ez handiagoa ez txikiagoa. Pentsamendu ametssezko hori oso zabaldua dago gizartean, eta ez da gutxietekoa duen indarra.


Vox-ek, bere katalogoan, “Auzoetan eta herrietan familien segurtasuna bermatzea eta MENA zentroak ixtea” proposatzen du. Lotura lineala ezartzen du delikuentziaren eta immigrazioaren artean; eta, zehazki, delikuentziaren eta erreferente heldurik ez duten adingabeen artean. Bere konpromisoa da “lagundu gabeko adingabeen egoera ikertzea, eta delitu larriak egiten dituztenak edo delitu arinak errepikatzen dituztenak kanporatzea”. Vox-en planteamenduan, dialektika berrelikatu bat dago erakundearen jarrera ideologikoaren eta, legez kanpokoak direla jakinda ere, baina nabarmentzea lortu nahirik, proposamen deigarriak egitearen artean.

Hortaz, harreraren inguruan hiru jarrera edo diskurtso-ildo handi desberdin daude:

1. Sistema etorkinak iristeari lotutako egungo egoerara egokitu nahi duena; EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IUrena.
2. Etorkinen etorrera indarreko sistemaren ahalen (eta beharren) arabera egokitzea edo kontrolatzea aldeztu duena; PP+Cs koalizioarena.
3. Sistema eta EAEko gizarte delituak egiten dituzten etorkinengandik babesteaz diharduena; Vox-ena.

Adierazi dugun bezala, lehen jarreraren barruan nolabaiteko aldea dago gobernua osatzen duten alderdien eta oposiziokoaren artean, bai eta gobernu zentralarekiko eta Europako politikekiko autonomia handiagoa nahi dutenen eta nahi (edo nahi dutela espresuki adierazten) ez dutenen artean.

2. irudia. Harrerari, babes sozialari eta herritartasun unibertsalari buruzko diskurtsoak



Iturria: txostengileek egin.

Enplegua

Enpleguari eta immigrazioari batera heltzean, honako hauek aipatuta aurkitu ditugu: etorkinen zaugarritasun- eta prekaritate-egoera berezia; egiten duten ekarpen sozioekonomikoaren balioa; eta laneratzeko duten (edo ez duten) gaitasuna.

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUk prekarizazioari aurre egitea proposatzen dute, zeina pandemia-egoerak eta enpleguaren digitalizazioak areagotzen baitute, eta gogorrago eragiten baitie kolektibo sozial zaugarrienei. Antzeko ildo batean, EAJ-PNVk eta PSE-EEK kolektibo zaugarrienen enplegarritasuna sustatzea aipatzen dute; etorkinena, besteak beste.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK berriaz adierazten dute onuragarria dela etorkinak etortzea EAEko gizartearentzat ikuspuntu sozioekonomikotik. EAJ-PNVk, adibidez, argi eta garbi aipatzen du “immigratioaren beharra, lan-merkatuari erantzuteko eta ongizate-estatuari eusteko”. Hala ere, bi alderdiak diskurtso utilitarista edo ekonomizista huts batean ez erortzen ahalegintzen dira, eta horiekin batera “aberaste multikulturala” (EAJ-PNV) edo “zenbait jazarpen modutatik ihes egiten dutenei harrera egin eta laguntza emateko betebeharrak juridikoak eta etikoak” (PSE-EE) aipatzen dituzte.

Etorkinak laneratzeko gaitasunari dagokionez, EAJ-PNVk etorkin adingabe eta gazteak gizarteratzea eta laneratzeari sustatu beharra aipatzen du, eta berariaz adierazten du Espainiako Gobernuari proposatu nahi diola baimena ematea automatikoki lan egiteko 16 urtetik gora. Era berean, etorkinen jatorrizko herrialdeekin lankidetzan aritzea proposatzen du alderdi horrek, “Euskadiko garapen sozioekonomikoaren beharrak” jatorrizko herrialdeen premia propioekin lotzeko, “erakundeak eta enpresak lankidetzan aritzeko alde biko proiektuak barruan sartuta”. Asmo oneko ideia horiek, jatorrizko herrialdeetan lankidetzan sustatzea etorkizunean migrazioak mugatu edo gutxitzearekin lotzen baitute, okerrak dira. Izan ere, daukagun ezagutza zientifiko zabalak hori hala gertatzen dela gezurtatzen du. Oso zabaldua dagoen beste ideia bat da, baina, gero, errealitateak gezurtatzen du. Gertatu, kontrakoa gertatzen da: garapenerako lankidetzan izan den eremu oro immigrazio-iturri bihurtzen da, eta areagotu ere egiten da, lankidetzan horrek berak erlazionatzen dituelako migrazioaren jatorria eta jomuga. Erraz esanda: lankidetzak beste migrazio-ibilbide bat irekitzen du, abian jartzen duelako jatorria eta jomuga lotzen dituen bidea: lankidetzan nondik doan, handik itzultzen da immigrazioa.

PP+Cs koalizioak etorkinek EAEko lan-merkatuara egokitzeko dituzten aukeren arabera balioetsi eta kudeatu nahi du immigrazioa; eta, hartara, “etorkinei lan-merkatuan sartzeko aukera emango dien prestakuntzaren kudeaketa eraginkorrik ez izatea” salatzen du, eta honako hauek bideratzea proposatzen: “hezkuntza-inklusioa, helduen alfabetatzea eta gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeari, arreta berezia jarrita gutxiengo etnikoetan”.

3. irudia. Enpleguari buruzko diskurtsoak




Iturria: txostengileek egina.

Hezkuntza eta euskara

Proposamen desberdinak dituzten arren, eskola-sisteman ikasle etorkinei ematen zaien laguntza areagotzeaz mintzatzen dira EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos-IU eta PP+Cs. EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU alderdiek, gainera, bertako ikasleen eta atzerriar jatorriko ikasleen artean aldeak oro desagerrarazteaz hitz egiten dute, eta, aldi berean, ikastetxeetan kulturartekotasuna sustatzeaz, errealitate hori hezkuntza-planetan sartu eta irakasleak heztearen bidez. EH Bildu harago doa, eta espezifikoki proposatzen du, euskara ikastea bultzatzearekin batera, “bide ematea familia etorkinen jatorrizko hizkuntzak aitortuak izan daitezen”.

Euskarari dagokionez, lau alderdi horiek berek antzeko jarrerak dituzte diskurtso orokorraz den bezainbatean, guztiek esaten baitute garrantzitsua dela bi hizkuntza ofizialetan ikasteko eskubidea bermatzea, eta euskara funtsezko elementua dela integrazio-prozesuetan.

4. irudia. Hezkuntzari eta euskarari buruzko diskurtsoak



Iturria: txostengileek egina.

Kulturartekotasuna eta diskriminaziorik eza


Kulturarteko bizikidetzari jartzen zaion arretari dagokionez, ikusten dugu ezen, berriz ere, diskurtso-esparru beraren barruan mugitzen direla EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU.

- alde batetik, aberasgarritzat jotzen dute kultura- eta jatorri-aniztasuna, EAEko errealitateak ezinbestekoa edo berezkoa izateaz gain;
- bestetik, adierazten dute kudeaketa politiko egokia egin behar dela, aniztasuna integratzen eta errespetatzen duen kulturarteko bizikidetzaren

alde lan egiteko, ikuspegi komunitario eta zeharkako batetik aurrera egiteko programa eta ekimenekin.

Lau alderdi horiek, gainera, bat egiten dute etorkinen kolektiboen asoziazionismoaren babesean eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan. Hala ere, EAJ-PNVk eta PSE-EEK jarrera hori lan instituzionalarekiko lankidetzaz- edo osagarritasun-esparruaren barruan kokatu ohi dute, baina EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUK argiago aldeztzen dute entitate eta kolektibo sozialek jardura politikoaren kontrol-eragile moduan betetzen duten eginkizuna. Elkarrekin Podemos-IUK, adibidez, honako hau dio: “Migrazioen inguruan herritarrek parte hartzeko dauden organoak suspertuko ditugu, eta ahalmena emango diegu, interesa adierazten duten taldeak eta/edo elkarteak integratzeko eta betoa jartzeko pertsona guztien eskubideen aurkako politikei”.

5. irudia. Kulturartekotasuna eta diskriminaziorik eza



Iturria: txostengileek egina.

Ildo beretik, EAJ-PNVk eta PSE-EEK diskriminazioari, arrazakeriari eta xenofobia sozialari aurre egitea proposatzen dute, baina EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUK, gainera, nabarmentzen dute bidegabekeria horien eragileak erakundeak berak direnean ere egin behar zaiela aurre: “Arrazakeria instituzionala salatzeko dinamika abian jartzea” (EH Bildu); “... profil etnikoan eta nazionalitatean oinarritutako identifikazio polizialei amaiera emango diegu” (Elkarrekin Podemos-IU).

EAJ-PNV eta PSE-EEren programetan, politika diskriminaziorik eza eta aniztasunaren errespetua oinarritzat hartuta egiteaz hitz egiten da, baina ez dugu aurkitu jardunbide xenofobo edo arrazista instituzionalak izateari (edo haien aurkako kritika, borroka eta salaketa beharrezkoari) buruzko aipamenik.

Kolektibo migratzaile zehatzak eta diskriminazio anizkoitza

Azkenik, azpimarratu behar da hauteskunde-programak, orokorrean, ez direla mugatzen etorkinez hitz egitera osotasun homogeen bat osatuko balute bezala hartuta, eta etorkinen kolektibo zehatz batzuk ere aipatzen dituztela. Hurrengo taulan, kolektibo horiek ageri dira, zer alderdik aipatu dituzten kontuan hartuta.

1. taula. Hauteskunde-programetan aipatutako kolektibo migratzaileak (EAE, 2020)

Alderdi politikoak	Aipatutako kolektibo migratzaileak
EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU	Emakume migratzaileak Egoera irregularrean dauden emakume migratzaileak Indarkeriaren biktima diren emakume migratzaileak Erreferente heldurik gabeko adingabe migratzaileak eta "bakarrik" dauden gazte migratzaileak
EAJ-PNV eta PSE-EE	Komunitate islamikoa
EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU	Egoera irregularrean dauden migratzaileak Indarkeriaren biktima diren LGTBI migratzaileak (EH Bildu) Arrazoi LGTBI fobikoengatik migratutako pertsonak (Elkarrekin Podemos-IU) Atzerritar jatorriko presoak
EAJ-PNV	Seme-alabak dituzten familia gazteak
EH Bildu	Giza eskubideak aldeztu dituzten iheslariak
Elkarrekin Podemos-IU	Salerosketaren biktima diren emakumeak eta neskatokak
Vox	"MENA" direlakoak

Iturria: txostengileek egina.

Ikus daitezkeen bezala, EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU bat datoz espezifikoki aipatzean emakume migratzaileak eta, zehazki, indarkeria jasaten dutenak eta/edo egoera administratibo bereziki zaurgarrian daudenak, bai eta bakarrik dauden adingabeak eta gazteak ere EAJ-PNVk eta PSE-EEK zehazki aipatzen dituzte komunitate islamikoak, eta EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUK LGTBI pertsonengan jartzen dute arreta, bai eta egoera irregularrean daudenengan eta presoengan ere. Soil-soilik EAJ-PNV mintzatzen da berariaz EAera seme-alabak dituztela iristen diren familia gazteei buruz. EH Bilduk berariaz aipatzen ditu giza eskubideen alde diharduten pertsonak, eta Elkarrekin Podemos-IUK, berriz, salerosketaren biktima diren emakumeak eta neskatokak.

Horrelakoetan, aipatutako kolektibo espezifikoez esaten da zaurgarriagoak izan daitezkeela, eta diskriminazio anizkoitzeko egoerak jasan ditzaketela, eta, horregatik, haien egoera eta behar espezifikoak kontuan hartuko dituen politika molde baten egokitasuna aldeztu da, EAEko herritar guztien mesedetan. Komunitate islamikoak bereziki aintzat hartzeari dagokionez, adibidez, EAJ-

PNVk esaten du integrazioaren alde lan egin behar dela, eta aurrera egin behar dela indarkeria islamista erradikalaren prebentzioan (ADOS programa).

PP+Cs da ezekin kolektibo migratzaile zehatzen errealitateari heltzen ez dion alderdi bakarra. Vox-ek, berriz, migratzaileak aipatzen ditu, kolektibo bakar bat zehazki, familia-erreferenterik gabeko adingabeena, baina, kasu honetan, aipamenak ez du zerikusirik haur horien behar espezifikoei erantzungo dien politika bide bat aldeztearekin, haientzako baliabide instituzional nagusiari (“MENA zentroak” direlakoak) amaiera ematearekin baizik, eta haien delituzko jarduera kontrolatu eta zigortzearekin, “auzoetan eta herrietan familien segurtasuna bermatzeko”.

Laburpen txikia

Laburbilduz, ondoriozta dezakegu hurrengo 2. taulan bildutakoak direla alderdi politiko gehienek partekatutako diskurtso-ildoak.

2. taula. Alderdi gehienek beren hauteskunde-programetan partekatutako diskurtso-ildoak (EAE, 2020)

Harrera: sistema iristen diren etorkinen egungo egoerara egokitzea
Enplegua: etorkinen zaugarritasun-egoerari eta lan-prekarietateari erantzutea
Hezkuntza: laguntza espezifikoa ematea ikasle migratzaileei, desparekotasuna saihestea eta kulturartekotasuna sustatzea
Euskara: bi hizkuntza ofizialak ikasteko eskubidea bermatzea eta euskara integrazioarako funtsezko elementutzat hartzea
Asoziazionismoari eta hirugarren sektore sozialari laguntzea, eta aurre egitea arrazakeriari eta xenofobiari arlo sozialean
Erantzun espezifikoa ematea zaugarritasun-egoera berezian dauden kolektibo migratzaileen errealitateari, besteak beste emakumezko migratzaileek eta bakarrik dauden adingabeek eta gazteek dutenari.

Iturria: txostengileek egina..

Esparru horretatik kanpo, jokabide utilitaristagoak aurkitzen ditugu, zerikusia dutenak immigrazioari EAEko egoera sozioekonomikoaren arabera (edo mendean) heltzearekin, eta, bestalde, lotura zuzena ezartzearekin immigrazioaren eta delinkuentziaren eta/edo kriminalitatearen artean, espresuki Vox-ek baino planteatzen ez duena.

EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUk bereizgarri dute aldaketa zehatzak proposatzea babes sozialeko sisteman; esplizituki gaitzestea Estatuko lege batzuk, eta Europak nola funtzionatzen duen migrazio-politiken arloan; jarduera politikoa kontrolatzeko eragile moduan immigrazioarekin konprometituta dauden entitateen, elkarteen eta kolektibo sozialen eginkizuna sustatzea; arrazakeria eta xenofobia instituzionala agerian uztea; eta, zehazki, migratzaileen zenbait

kolektibo aipatzea: egoera irregularrean dauden pertsonak, LGBTI kolektiboa, presoak, salerosketaren biktima diren emakumeak eta neskatoak (Elkarrekin Podemos-IU) eta giza eskubideen aldekoak (EH Bildu).


PSE-EEren diskurtsoa gako nagusien barruan mugitzen da. Alderdi horrek, nagusiki, azken urteetan berdintasun-printzipioaren eta kultura-aniztasuna errespetatzearen alde eta hirugarren sektore sozialarekiko lankidetzat estuan hasitako lan-ildoan aurrera jarraitzea aipatzen du.

Azkenik, EAJ-PNV ere lehengo jarrera berarekin jarraitzen du, eta tolerantziaren sustapena, aniztasun kulturalaren errespetua eta kulturartekotasuna azpimarratzen ditu. Aurkakotasun espliziturik adierazi gabe, harrera-arloan autonomia politiko handiagoa garatzea aipatzen du. Ezaugarri bereizgarri moduan, adierazi behar da alderdi horrek ageriko interesa erakusten duela etorkinen laneratzea sustatzeko, EAEren behar eta interes sozioekonomikoen ildotik; zehazki seme-alabak dituzten familia migratzaile gazteak aipatzen dituen alderdi bakarra da, eta berariaz jasotzen du komunitate islamikoen kasua.

Ekimen parlamentarioen azterketa (2018-2020)

2018ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era arte guztira 5.373 ekimen aurkeztu ziren Eusko Legebiltzarrean⁹, eta horietatik 83k espresuki heldu zioten EAEko immigrazioaren eta aniztasun kulturalaren fenomenoari. 1. grafikoan adierazi bezala, immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko ekimen horien guztien %1,6 ira.

1. grafikoa. Ekimen parlamentarioak 2018ko urtarril eta 2020 ekain bitartean (%)



Iturria: txostengileek egina Eusko Legebiltzarrearen datuetan oinarrituta

Arreta immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko 83 ekimenetan jarrita¹⁰, ehunekoa funtzio parlamentarioaren, motaren, aldiaren, proposatzaileen eta gaiaren arabera kuantifikatzearen ondoriozko emaitzak azaltzen ditugu ondoren. Gero, ekimenen edukia aipatuko dugu, gaien, ikuspegiaren eta proposatzaileen arteko erlazioa ardaztat hartuta.

⁹Hemen dago aurkeztutako ekimen parlamentario guztien erregistroa: www.legebiltzarra.net

¹⁰2. eranskinean, 83 ekimen parlamentario horien zerrenda aurkezten dugu, eta eremu hauei buruzko informazioa ematen dugu: izenburua, ekimen mota, aurkezpen-data, egoera eta proposatzaileak.


Ekimenen kuantifikazioa

Ekimenak funtzio parlamentarioaren arabera

Eusko Legebiltzarrak hiru eginkizun edo funtzio nagusi betetzen ditu: legegilea, kontrol-funtzioa eta Gobernuari bultzada ematekoa. Eta hala, aurkezten diren ekimen gehien-gehienek hiru funtzio horietako bat betetzen dute.

2. grafikoa, ikusten dugu immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko ekimenen artean argi eta garbi nagusi direla (%73,5) Gobernua kontrolatzeko funtzioari dagozkionak, eta 40 puntutik gora gehiago direla bultzada-funtzioa betetzen dutenak baino (%25,3), zeinak, gehien-gehienak, legez besteko proposamenak baitira¹¹. Funtzio legegilea betetzen duten ekimenei dagokienez (%1,2), Euskal Autonomia Erkidegoko lekuen, kultu-aretoen eta erlijio-aniztasunaren lege-proiektua aurkitu dugu (gainbeheratua¹²).

2. grafikoa. Immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko ekimenak funtzio parlamentarioaren arabera (%)



Iturria: txostengileek egina Eusko Legebiltzarraren datuetan oinarrituta

Ekimenak motaren arabera

Ekimen parlamentarioak, legegintza-, bultzada- edo kontrol-funtzioa betetzeaz gain Gobernuari dagokionez, zenbait motatakoak dira Arruntenen edo ohikoenen artean, *lege-proiektua* nabarmendu behar da legegintza-funtzioaren barruan; *legez besteko proposamena* bultzada-funtzioan; eta *galdera*, *interpelazioa*, *agertzeko eskaera* eta *informazio-eskaera* kontrol-funtzioaren barruan¹³.

¹¹Bultzada-funtzioaren barruan, legez besteko proposamenez gain, talde parlamentario guztiek sinatutako bi adierazpen instituzional daude.

¹²Lege-proiektua ez zen aurrera atera aztergai izandako aldiaren barruan.

¹³4. eranskinean, ekimen motei eta funtzio parlamentarioei buruzko informazio zehatzagoa eta osoagoa ematen da.

3. grafikoak adierazten duenez, aukeratutako immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko 83 ekimenen artean, *idatziz erantzuteko galdera* ekimena nabarmentzen da gehien ehunekotan (%31,3) eta atzetik datoz *legez besteko proposamena* (%22,9) eta *parlamentari batek egindako informazio-eskaera* (%18,1) *Batzordeak egindako agertzeko eskabidea* eta *Osoko bilkuran ahoz erantzuteko galdera* ekimenei %7 eta %11 arteko balioak dagozkie, eta bestelako ekimenen ehunekoa ez da guztira %10era iristen.

3. grafikoa. Immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko ekimenak motaren arabera (%)




Iturria: txostengileek egina Eusko Legebiltzarraren datuetan oinarrituta

Ekimenak aldiaren arabera

Immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko ekimen parlamentarioen presentzia aldatu egiten da aztertutako 30 hilabeteetan zehar (4. grafikoa). Aurkeztutako ekimen parlamentarioen ehunekorik handiena 2018ko maiatzetik azarora bitartekoa da (guztien %44,5), eta iraila nabarmentzen da argi eta garbi, guztira 11 ekimen (%13,3) aurkeztu baitziren; haietako zazpi migratzaileen, iheslarien eta iragaitzazkoen harrerari eta kudeaketa politikoari buruzkoak izan ziren. 2018ko udak bereizgarri izan zuen immigrazioa handia izatea, neurri handi batean espero gabekoa, eta iragaitzazkoa.

2018ko irailaren ondoren, ekimen kopuru handieneko hilabeteak 2018ko urtarrila eta urria, eta 2019ko uztaila dira (seina ekimen); hurbil daude 2018ko maiatza, uztaila eta abuztua, eta 2019ko otsaila, maiatza eta iraila (bosna), eta, ondoren, 2018ko otsaila eta azaroa (launa). Aipatu gabeko hilabeteetan, hileko 0-3 artekoa da ekimen kopurua; denetara, guztien %20 baino gutxiago.

4. grafikoa. Immigrazioari eta aniztasunari buruzko ekimenak aldiaren arabera: 2018ko urtarrila – 2020ko ekaina (%)




Iturria: txostengileek egina Eusko Legebiltzarraren datuetan oinarrituta

Ekimenak proposatzaileen arabera

5. grafikoa, ekimenen ehunekoa agertzen da proposatzaileen arabera. EH Bildu Taldeak –18 aulki– egindako proposamenen ehunekoa (%47) ia guztien erdia da; Elkarrekin Podemos-IUk –11 aulki– egindakoa, guztien herena baino puntu batzuk handiagoa (%32,5); eta Euskal Talde Popularrarena –9 aulki– %8,4. Gainerakoak (%12) Eusko Jaurlaritzak proposatutako ekimenak, talde parlamentario guztiek sinatutako bi adierazpen instituzional eta batzorde espezifikoetako beste ekimen batzuk dira.

5. grafikoa. Immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko ekimenak proposatzaileen arabera (%)



Iturria: txostengileek egina Eusko Legebiltzarraren datuetan oinarrituta

Ekimenak gaiaren arabera

Gaien arabera (6. grafikoa), ikusten da ekimenen ia erdiak harrerari, asiloari, sorospenerari eta laguntza humanitarioari lotuta daudela: %49,4. Hala ere, nabarmendu behar da ekimen askotan eskatzen dela hezkuntza-sistema berdinzalea eta inklusiboa izatea, eta ikasleen jatorrizko edo etorkizko aniztasun kulturala errespetatzea. %14,5 dira. Era berean, azpimarragarriak dira Gobernuak immigrazioari buruz egindako azken bi planei lotutako ekimenak (%9,6), etorkin laneratzeari buruzkoak (%8,4) eta erlijio-aniztasunarekin zerikusia dutenak (%6), zeinak, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko lekuen, kultu-aretoen eta erlijio-aniztasunaren lege-proiektuari lotuta baitaude. Bestalde, beste ekimen batzuek emakumezkoen mutilazio genitalarekin zerikusia dute (%4,8), eta beste batzuek, berriz, jatorrian eta arrazakerian oinarritutako diskriminazio motekin (%4,8). Azkenik, bi ekimen daude (%2,4) nazionalizazio-prozesuari buruz.

6. grafikoa. Immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko ekimenak gaiaren arabera (%)




Iturria: txostengileek egina Eusko Legebiltzarraren datuetan oinarrituta

Ekimenen edukia: gaiak, ikuspegiak eta proposatzaileak

Irizpide hauek oinarri hartuta sailkatu ditugu immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko 83 ekimenak: funtzioa, mota, aldia, proposatzaileak eta gaia. Azken irizpide horretatik abiatuta, ekimen bakoitzaren edukiari heldu diogu, eta hizpide dituzten fenomenoetan sakondu dugu, aplikatzen dituzten ikuspuntuetan, eta zeinek proposatu dituen adierazi¹⁴.

¹⁴Azterlan honetan, ekimen bakoitzari lotutako dokumentazioa kontuan hartzen dugu, baina lehenatasuna ematen diogu beti ekimen bakoitza berez erregistratzeko idatzizko testuaren edukiari.

6. irudia. Immigrazioari eta aniztasun kulturalari buruzko ekimenen edukiaren azterketa



Iturria: txostengileek egina.

1. gaia. Harrera, asiloa, sorospena eta laguntza humanitarioa

Harrera, asiloa, sorospena eta laguntza humanitarioa gai multzoan askotariko ekimenak daude, eta multzoak bereizgarri du etorkinak eta iheslariak EAera iriste posibleari edo iritsi izanari buruzko kudeaketa politiko eta instituzionala lantzea; barnean hartzen ditu harrera egiteko, asiloa emateko eta sorosteko baliabideen eta sistemen kudeaketari buruzko ekimenak, bai eta honako hauek direla-eta abiatutako beste ekimen batzuk ere: Aita Mari itsasontziaren egoera (eta, Katalunian, Open Arms itsasontziarena ere bai) eta Frantziak “berotan” egiten dituen kanporaketak, zeinek Euskotren enpresa publikoaren jarduerari eragiten baitiote.

Ekimen horien barruan, bost ikuspegi bereiz daitezke, zer ardatz duten aintzat hartuta (3. taula):

1. migratzaileen eta iheslarien eskubideak;
2. migratzaileen eta iheslarien eskubideak eta bizikidetzak;
3. EAeko osasun publikoa eta immigrazioa;
4. EAera iristen direnei harrera egiteaz arduratzen diren entitateak eta giza eskubideen alde lan egiten duten GKEak (eta itsasontziak).
5. kudeaketa politikoaren eta instituzionalaren kontrola, ikuspuntu bereziki aseptiko batekin, eskubide edo interes jakin batzuen alderanzko joera argia adierazi gabe.

1. Migratzaileen eta iheslarien eskubideak

Lehen ikuspegiaren barruko ekimenek, oro har, migratzaileen eta iheslarien eskubideak jartzen dituzte erdigunean, eta, era berean, ekimen batzuk hurrengo talde zehatz hauetako baten eskubideez aritzen dira: genero indarkeriaren eta salerosketaren biktima diren emakumeak, neskatoak eta adingabeak; LGTBI pertsonak; eta giza eskubideen aldekoak. Honako hauek izan dira ikuspegi hori zuten ekimenen proposatzaile: EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU taldeetako parlamentariak; talde parlamentario guztiak, talde guztiek sinatutako adierazpen instituzionalekin; eta Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordea.

2. Migratzaileen eta iheslarien eskubideak eta bizikidetzak

Bigarren ikuspegia Bilboko portuaren inguruko bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko legez besteko proposamenean (gainbeheratua) aurkitzen dugu. Elkarrekin Podemos-IU taldeak aurkeztu zuen honako hauek aipatuta: “Bilboko portuaren inguruetan kokatuta dauden iragaitzazko pertsonen beharrak” eta “litezkeen konponbideak, bermatzeko, alde batetik, Santurtziko herritarren ongizatea eta, bestetik, Santurtzi inguruan kokatuta dauden pertsonen giza eskubideak eta bizitza-proiektuak”.

3. Osasun publikoa eta immigrazioa EAEn

Hirugarren ikuspegia Euskal Talde Popularraren bi ekimeni lotuta dago. Alde batetik, idatziz erantzuteko galdera bat egin zuten, migratzaileei eta iheslarietara eragiten dien txertaketa-egutegi berriari buruz, zeinean kontsulta egin baitzuten “kanpotik etorritako pertsonen egoera immunologikoaz” eta, horri lotuta galdetu baitzuten “arrisku-egoerarik detektatu den osasun publikoarentzat”. Bestetik, parlamentari batek informazioa eskatu zuen autonomia-erkidegoan lagundu gabeko atzerritar adingabeek duten presentziari buruz; izan ere, testuan adierazten denaren arabera, Gobernuak zenbait kidek “neurritz kanpokotzat” jo zuten EAEn dauden lagundu gabeko atzerritar adingabeen presentzia.

4. Harreran eta laguntza humanitarioan diharduten entitateen eta GKEen egoera

Laugarren ikuspegiak zerikusia du, alde batetik, Eusko Jaurlaritzak migratzaileei eta iheslarietara harrera egiteaz arduratzen diren entitateekin hartutako konpromisoen kontrolari buruzko ekimenekin, zeinak EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU taldeek proposatu baitzituzten; eta, bestetik, Espainiako Gobernuak “Aita Mari” eta “Open Arms” itsasontzietan krisi humanitarioa dela-eta itsasoratzea debekatzeari buruzko legez besteko proposamenarekin (onartua:

1/2019 legez besteko proposamena), zeina EH Bilduk aurkeztu baitzuen “Aita Mari” eta “Open Arms” itsasontzien alde.

5. Kudeaketa politiko eta instituzionalaren kontrola

Bosgarren ikuspegiak, azkenik, ekimen komunitarioaren subsidiarotasun-kontrolerako ekimenarekin du zerikusia: Immigraziorako lotura-funtzionarioen europar sarea eratzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendu-proposamena, Europar Batasunerako Batzorde Mistoko Idazkaritzak aurkeztua; eta EH Bildu taldeak Eraberean¹⁵ sarearen jardueraz idatziz erantzuteko aurkeztutako galdera.

3. taula. Harrera, asilo, sorospen eta laguntza humanitarioari buruzko ekimenak

GAIA	IKUSPEGIA	PROPOSATZAILEAK
Harrera, asiloa, sorospena eta laguntza humanitarioa	Migratzaileen eta iheslarien eskubideak: - Pertsona guztienak - Adingabeenak - Emakume eta neskatuenak (genero- eta salerosketa-indarkeriak) - LGTBI pertsonenak - Giza eskubideen aldekoenak	- EH Bildu - Elkarrekin Podemos-IU - Talde guztiak - Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordea
	Migratzaileen eta iheslarien eskubideak eta elkarbizitza EAEn	- Elkarrekin Podemos-IU
	Osasun publikoa	- Euskal Talde Popularra
	EAEra iristen diren pertsonen harrera egiteaz arduratzen diren entitateen eta giza eskubideen alde lan egiten duten GKEen (eta itsasontzien) egoera.	- EH Bildu - Elkarrekin Podemos-IU
	Kudeaketa politiko eta instituzionalaren kontrola	- EH Bildu - Europar Batasunerako Batzorde Mistoko Idazkaritza

Iturria: txostengileek egina.

2. gaia. Hezkuntza-sistema eta aniztasuna

Hezkuntza-sistema eta aniztasuna multzoaren barruko ekimen guztiak era batera edo bestera erlazionatzen dira helburu hau lortzearekin: hezkuntza-sistema inklusiboa eta berdinzalea izatea, eta ikasleen jatorrizko eta/edo etorkizko aniztasun kulturala errespetatzea. Hala ere, kontuan hartuta ekimen

¹⁵Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko sarea.

zehatz bakoitzak helburu komun horri heltzeko modua mugatzen duela, hiru ikuspegi bereiz daitezke, zer ardatz duten kontuan hartuta (4. taula):

1. sistema inklusiboa, berdinzalea eta segregazioaren aurkakoa;
2. egoera bereziki zaugarrian dauden ikasleen eskubideak; eta
3. atzerritar jatorriko ikasleen eskubideak

Lehen ikuspegiari eta bigarrenari lotutako ekimenetan, desparekotasun-egoeretan bizitzeko arrisku handia duten zenbait kolektiboren artean, atzerritar jatorria edo etorkia duten ikasleak aipatzen dira; eta proposatzaileak EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU taldeak dira.

Hirugarren ikuspegiari dagokionez, EH Bilduren bi ekimen hauek daude: bateko, etorkin gazte adingabeak hezkuntza-sisteman sartzeko bermeari buruzko legez besteko proposamena; besteko, “Atzerritar jatorriko ikasleak EAEko eskola-sisteman eskolatzea: diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak” txostenari buruz idatziz erantzuteko galdera. Gainera, Hezkuntzako sailburuak agertzeko eskatu zuen, atzerritar jatorriko ikasleak eskolatzeari buruzko aipatu txostena aurkezteko.

4. taula. Hezkuntza-sistemari eta aniztasunari buruzko ekimenak

GAIA	IKUSPEGIA	PROPOSATZAILEAK
Hezkuntza-sistema eta aniztasuna	Sistema inklusiboa, berdinzalea eta segregazioaren aurkakoa lortzea	- EH Bildu - Elkarrekin Podemos-IU
	Egoera bereziki zaugarrian dauden ikasleen eskubideak	- EH Bildu - Elkarrekin Podemos-IU
	Atzerritar jatorriko ikasleen eskubideak.	- EH Bildu - Eusko Jauriaritza

Iturria: txostengileek egina.

3. gaia. Gobernuaren immigrazio-planak

Multzo hau Gobernuaren bi plan hauetako edozeini buruzko ekimenek osatzen dute: “Immigrazioarako Euskal Estrategia (Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren IV. Plana 2014-2016)” eta “Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Inmigrazioaren esparruan jarduteko V. Plana 2018-2020”. Ekimen guztiek kontrol-ikuspegia dute, bai kasuan kasuko planaren edukari eta baliagarritasunari dagokienez, bai plana betetzeari dagokionez, eta EH Bildu taldeak edo Elkarrekin Podemos-IU taldeak proposatu zituzten, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak V. plana aurkezteko egindako agertzeko eskabidea salbuetsita.

5. taula. Gobernuaren immigrazio planei buruzko ekimenak

GAIA	IKUSPEGIA	PROPOSATZAILEAK
Gobernuaren immigrazio-planak	Aurkezpena	- Eusko Jaurlaritza
	Kudeaketa politiko eta instituzionalaren kontrola	- EH Bildu - Elkarrekin Podemos-IU

Fuente: Elaboración propia.

4. gaia. Etorकिनak laneratzea

Etorकिनak laneratzea multzoaren barruan, hiru azpigai bereiz daitezke:

- Enplegu publikoan sartzea
- Etxeko emakumezko langile migratzaileen egoera
- Hizkuntza-gaitasunak eta laneratzea

Ekimen guztiak, bat izan ezik, EH Bildurenak izan dira. Enplegu publikoan sartzeari buruzko ekimenen xedea da bizileku- eta lan-baimena duten migratzaileei laneratzen laguntzea. Etxeko langile diren emakumezko etorkinen egoerari buruzkoak bi dira. Alde batetik, EH Bilduk idatziz erantzuteko egindako galdera bat, lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza bide ez-formalen bitartez lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurako 2019ko deialdien gainekoa. Bestetik, Batzordeak, emakumezko migratzaileen Malen Etxea elkarteak egindako eskaerarekin bat, egindako agertzeko eskabidea, azal dezaten zer jarrera eta erreibindikazio dituzten etxeko langile diren emakumezko etorkinen egoerari buruz.

Hizkuntza-gaitasunei eta laneratzeari buruzko ekimenen kasuan, azkenik, hiru ikuspegi daude: 1) testuinguru elebidunetan lan egiteko komunikazio-gaitasunen garapenean ardaztutakoa; 2) bai testuinguru elebidunetan lan egiteko komunikazio-gaitasunen garapenean, bai euskaldunen eskubideetan ardaztutakoa; eta 3) ardaztat euskara mundu sozioekonomikoan normalizatzea duena. Kasu guztietan EH Bildu taldea izan da proposatzailea.

1. Komunikazio-gaitasunak garatzea testuinguru elebidunetan lan egiteko

Komunikazio-gaitasunen garapenean ardaztutako ikuspegia Batzordeak Petra Elser aditua “Migratzaileek eta desabantaila egoeran dauden ikasleek lan-testuinguru elebidunetan lan egiteko gaitasun komunikatiboak” izeneko COMBI europar proiektua azal zezan agertzeko egindako eskaerari lotuta dago.

2. Komunikazio-gaitasunen garapena eta euskaldunen eskubideak

Komunikazio-gaitasunen garapenean eta euskaldunen eskubideetan ardatzutako ikuspegiak zerikusia du mendekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko lanbide-heziketako ikastaroan euskara sartzeari buruzko legez besteko proposamenarekin (baztertua), zeinean zehazten baita ezen, “batez ere zaintza partikularren kasuan”, lan hori “euskara ez dakiten etorkinek” egin ohi dutela, baina horrek “zerbitzuaren erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak urratzeaz gain, berekin dakar ematen den zerbitzuaren kalitatea bera galtzea”; izan ere, “zerbitzu horiek erabiltzen dituztenetako askok, batez ere eremu euskaldunenetan bizi direnek, euskara erabiltzen dute eguneroko harremanetarako hizkuntza moduan”.

3. Euskara normalizatzea mundu sozioekonomikoan

Euskara mundu sozioekonomikoan normalizatzea ardatz duen ikuspegia, azkenik, idatziz erantzuteko galdera batean aurkitu dugu: “... langileak atzeritik ekarriko balira, bi hizkuntza ofizialen gutxieneko ezagutza bermatu gabe, euskararen erabilerak ondorio kaltegarriak izango lituzke mundu sozioekonomikoan”¹⁶.

6. taula. Etorkinak laneratzeari buruzko ekimenak

GAIA	IKUSPEGIA	PROPOSATZAILEAK	
Etorkinen laneratzea	Enplegu publikoan sartzea	Laneratzen laguntzea	- EH Bildu
		Komunikazio-gaitasunak garatzea testuinguru elebidunetan lan egiteko	- EH Bildu
	Hizkuntza-gaitasunak eta laneratzea	Komunikazio-gaitasunak garatzea testuinguru elebidunetan lan egiteko eta euskaldunen eskubideak	- EH Bildu
		Euskara normalizatzea mundu sozioekonomikoan	- EH Bildu
	Etxeko emakumezko langileen egoera	Emakumezko migratzaileak laneratzea	- EH Bildu
		Emakumezko migratzaileen eskubideak (erreibindikazioa)	- Emakumezko migratzaileen Malen Etxea elkarte

Iturria: txostengileek egina.

¹⁶Aipatutako EH Bilduren ekimenei dagozkien komatxo arteko esaldiak euskaraz aurkeztutako jatorrizko ekimenen itzulpenetatik jaso dira, Eusko Legebiltzarraren sareko datu-basean baitaude.

5. gaia. Beste gai batzuk

Beste gai batzuk multzoan honako hauek direla-eta izandako ekimenak bildu ditugu: erlijio-aniztasuna, jatorrian eta arrazakerian oinarritutako diskriminazioa, emakumezko mutilazio genitala eta nazionalizazioa (7. taula).

Erljio-aniztasunari buruz aurkitu ditugun ekimen guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko lekuen, kultu-aretoen eta erlijio-aniztasunaren lege-proiektuarekin (gainbeheratua) dute zerikusia. Alde batetik, lege-proiektua bera dugu, zeinaren zioen azalpenean “araudi bat izan behar da, erlijio-aniztasuna eta erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubidea berma ditzan” esaten baita; eta, bestetik, lege-proiektu horren prozesua kontrolatzeko ekimenak ditugu, zeinaren proposatzaileak Euskal Talde Popularra edo Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordea baitira.

Jatorriaren eta arrazakeriaren ondoriozko diskriminazioari dagokionez, honako hauek daude: Segurtasun Sailak egindako agertzeko eskabidea, 2017ko Euskadiko gorroto-gertaerei buruzko txostena aurkezteko, bertan arrazakeriari eta xenofobiari heltzen baitzaie; EH Bildu taldeak Donostiatik ateratzen diren autobusetan gertatzen ari diren arrazagatiko kontrolez idatziz erantzuteko egindako galdera; Batzordeak EAerako Gobernu-ordezkaria ager dadin egindako eskabide gainbeheratua, zeinaren xedea baitzen informazioa lortzea EAEko zenbait udalerritan atzerritarrek atzemateko egindako sarekadei buruz, eta Elkarrekin Podemos-IU taldeak egin baitzuen; eta DBEri buruzko datuak argitaratzeaz idatziz erantzuteko Elkarrekin Podemos-IU taldeak egindako galdera, zeinak ohartarazten baitu Lanbidek “DBEren jasotzaileen jatorri nazionalari buruzko datuak” argitaratzeaz, nahiz eta “komunikaziorako kode etikok eta deontologikok adierazi azaleraren koloreari, erlijioari edo nazionalitateari buruzko informazioak kendu behar direla, behar-beharrezkoak izan ezean datuak ulertzeko”. Kasu guztietan, ikuspegia atzerritar jatorria eta/edo etorkia duten biztanleen eskubideetan dago zentratuta.

EH Bildu taldeak eta Euskal Talde Popularrak emakumezkoen mutilazio genitalari buruzko ekimenak aurkeztu dituzte, prebentzioaren eta jarduera hori desagertaraztearen ikuspegitik.

Azkenik, nazionalizazio-prozesuari buruzko ekimenak ere aurkitu ditugu, Elkarrekin Podemos-IU taldeak aurkeztuak eta izapide horretan laguntzeko helburua zutenak.

7. taula. Beste gai batzuei buruzko ekimenak

GAIA	IKUSPEGIA	PROPOSATZAILEAK	
Beste batzuk	Erlijio-askatasuna	- Eusko Jaurlaritza	
	Erlijio-aniztasuna	Kudeaketa politiko eta instituzionalaren kontrola	- Euskal Talde Popularra - Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordea
	Jatorriaren eta arrazakeriaren ondoriozko diskriminazioa: arraza-kontrolak, atzerritarren sarekadak, gorroto-gertaerak eta DBEri buruzko datuak argitaratzea	Atzerritar jatorriko pertsonen (besteak beste) dituzten eskubideak	- Euskal Herria Bildu - Elkarrekin Podemos-IU - Eusko Jaurlaritza
	Emakumezkoen mutilazio genitala (EMG)	EMGri aurrea hartzea eta aurka egitea	- Euskal Herria Bildu - Euskal Talde Popularra
	Nazionalizazioa	Izapidea erraztea	- Elkarrekin Podemos-IU

Iturria: txostengileek egina.

Multzoak azalduta, eta laburpen moduan, esan dezakegu honako hauek direla immigrazioari eta aniztasun kulturalari dagokienez hautatutako ekimenetan ukitzen diren gaiak¹⁷: harrera (adiera zabalean), migratzaileak eta atzerriko jatorria edo etorkia duten biztanleak hezkuntza-sisteman sartzea eta laneratzea; Gobernuak immigrazioari buruz egindako planak; erlijio-aniztasuna (gainbeheratutako lege-proiektuaz den bezainbatean); jatorriagatiko diskriminazioa eta arrazializazioa; emakumezkoen mutilazio genitala; eta nazionalizazioa.

Ikuspegiari dagokienez, giza eskubideak eta migratzaileen, iheslarien eta atzerritar jatorria edo etorkia dutenen eskubideak erdigunean berariaz jartzen dituzten ekimenak nabarmentzen badira ere, badaude beste batzuk eskubide horiei EAEko bizikidetzaren eta aniztasunarekiko errespetuaren arloko esparru zabalago baten barruan (edo horri lotuta) heltzen dietenak; adibidez: harreraren eta laguntza humanitarioaren esparruan lan egiten duten erakundeen egoera ardatz dutenak; estilo bereziki aseptiko batean azalduta eta Gobernuaren kudeaketa kontrolatzen bideratuta daudenak; eta, azkenik, EAEko ongizatean zentratutakoak, zeinen ustez etorkinen iritsiera arazo bihur baitaiteke, egokiro kudeatu ezean.

Migratzaileen, iheslarien eta atzerritar jatorriko edo etorkiko pertsonen eskubideak ardaztat dituzten ikuspegiari lotutako ekimenen proposatzaile moduan, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU taldeak ditugu, talde

¹⁷Ikus 2. eranskina.

parlamentario guztiak oro har, Giza Eskubide eta berdintasun Batzordea eta Eusko Jaurlaritza. Ezin aipatu gabe utzi EH Bildu taldeak eta Euskal Talde Popularrak emakumezkoen mutilazio genitala prebenitu eta desagerraraztearen alde izandako ekimenak.

EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU taldeek proposatutako ekimenen barruan, EAEko bizikidetzaren eta aniztasun kulturalaren errespetua kudeatzeko ikuspegia sustatzen da batzuetan, eta harreraren eta laguntza humanitarioaren alde lan egiten duten erakundeen egoeran zentratzen dira.

Ildo asepticoko kontrol-ekimenak batzorde espezifikoetara lotuta daude, bai eta aztertutako aldiaren oposizio izan diren hiru talde parlamentarioei ere (EH Bildu, Elkarrekin Podemos-IU eta Euskal Talde Popularra).

Azkenik, EAEko ongizateari buruzko ekimenak Euskal Talde Popularrak eta EH Bildu taldeak aurkeztu dituzte: Euskal Talde Popularrak galdera egin du bai EAEra iristen diren pertsonen egoera immunologikoaren eta txertaketarik ezaren ondoriozko arriskuaz edo arriskurik ezaz, bai lagundu gabeko adingabeen “neurritz kanpoko” presentzia posibleaz; EH Bilduk, bestalde, adierazi du atzerriko langileak erakartzeko ondorio kaltegarriak izan litezakeela euskararen erabileran mundu sozioekonomikoan, bi hizkuntza ofizialen gutxieneko ezagutza bermatu ezean.

Kazetaritza politikoak eta sozialak egindako balorazioak eta gogoetak

Azterlanaren atal honetarako, sei kazetariren ekarpenak baliatu ditugu. EAEko egoera politikoari buruzko informazioa eman ohi dute, edo immigrazioarekin zerikusia duten problematiken eta fenomeno sozialen berri ematen dute askotariko hedabide eta komunikazio-plataformetan.

Dauzkagun emakumezko eta gizonezko kazetarietako batzuek EITB taldeko irrati-telebistetan edo Euskadiko egunkari jeneralistetan lan egiten dute; beste batzuek, toki-esparruan; eta profesional batek, egun, hedabide independenteetan baino ez dihardu. Batzuetan, immigrazioarekiko loturak zerikusia du konpromiso profesionalekin ez ezik, aktibistekin ere, eta kasu batean, kazetariak berak latinoamerikar jatorriko etorkin moduan izandako bizitzarekin¹⁸.

¹⁸Elkarrizketatu ditugun kazetarien profilari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus 7. eranskina..

Profesional horien balorazioak eta gogoetak biltzeari esker, hurbilagoetik ikus ditzakegu EAEko immigrazioari buruzko diskurtso politikoak kazetari-ikuspuntu anitz batetik, erreibindikazio sozialaren arloko zenbait ñabardurarekin batera. Egingo dugun bidea hau da: lehendabizi, diskurtso gehienak garatzen diren esparru orokorrari buruzko balorazioak eta hausnarketak aurkeztuko ditugu. Ondoren, antolakunde politiko bakoitzaren diskurtsoen ezaugarriez arituko gara; eta, azkenik, egiten diren aldaketa-proposamen eta erronka batzuk azalduko ditugu.

Immigrazioari buruzko diskurtso politikoaren esparru orokorra

Immigrazioari buruzko diskurtso politikoaren esparru orokorra aztertzean, bi ikuspegi edo alde bereiz daitezke. Horietako bat, positiboa da, eta uste du immigrazioari buruzko diskurtsoen esparrua aldekoa dela, indartsua, eta finkatuta dagoela. Beste ikuspegia kritikoagoa da, eta uste du badagoela immigrazioari buruzko aldeko diskurtso-esparru orokor bat, baina ez dagoela errotuta, ez dela sakona, eta, egun, tentsio handiko egoera batean dagoela, eskuin muturreko diskurtsoen gorakadagatik.

Ikuspegi positiboa: “Immigrazioaren aldeko oinarrizko adostasuna nagusi da eta finkatuta dago”

Horren arabera, egun, oinarrizko adostasun-esparrua nagusi da, Migrazioarako Euskal Itun Sozialean adierazi dago, eta “herri gisa, oso jarrera orokor positiboa biltzen du”; gainera, migrazio-errealitatea “berekin dakartzan erronkekin”, “gizartean txertatzen dituen aberastasunekin” eta “dauzkan ondorio onuragarriekin” batera balioesten du (EP-1). Esparru orokor horren indarraren adierazgarri, immigrazioa, berez, eztabaida politiko eta parlamentarioaren eguneroko jardunetik kanpo dagoela planteatzen du.

Ostegun batean saio parlamentario batean bazaude, ekimen parlamentarioekin, edo ostiraletako Legebiltzarreko kontrol-saioetan bazaude, ez da immigrazioaz hitz egiten. Ez dira aipatzen. Eta horrek esan nahi du guztiek, oro har, onartu dutela hori paisaiaren parte dela. Hemen daude, gu bezalakoak dira eta gurekin bizi dira (...); nire ustez, gai hori Legebiltzarrean ez agertzeak beste ezerk baino hobeto adierazten du adostasun zabala dagoela immigrazioari buruz. Legebiltzarrean beste gauza batzuei buruz eztabaidatzen da, ez etorkinei buruz. (EP-1)

Hartara, gogora ekartzen da Gasteizko Alkatetza lortzeko lehian orain dela urte batzuk gertatutakoa, eta adierazten da ezen, immigrazioaren aurkako diskurtsoa lortutako boto kopuruan onuragarria izan bazen ere Alderdi Popularrarentzat, politikoki ez ziola inolako onurarik egin, ezin izan zuelako itunik egin orduko ezein alderdi politikorekin. Are gehiago, esan daiteke *de facto* lortu zuela koalizio bat eratzea gainerako alderdien artean. Diskurtso xenofobia bezala xenofobiaren aurkakoa ere ez da azaleratzen, une koiunturaletan izan

ezik. Batzuetan, diskurtso eta jokabide xenofoboak zabaltzeko beldurra izaten da, eta aurkakotasun-maila txiki batekin erantzuten zaie, baina horrek, halaber, frogatzen du jarrera toleranteak ere indartzen direla, eta horiek baino ezin dietela aurre egin xenofobiaren aurkako diskurtso eta jokabideekin. Horrelako egoeretan albora begiratzeak isiltasunaren espirala elikatzen du, eta zigorgabetasun-esparruak edo onarpen-esparru zabalak indartzen ditu. Xenofobiari sozialki eta politikoki ezin onartuzkoa dela adierazten dioten diskurtsoekin eta jokaerekin baino ezin zaio aurre egin. Horien guztien ondorioz, hizpide dugun ikuspegiaren arabera, Alderdi Popularrak gaiari buruzko diskurtsoa leundu du, batez ere elkarrizketetan eta hedabideekiko harremanetan, baina oraindik ere immigrazioari buruz jarrera uzkurra duela adierazten duten lerroak modu gutxi-asko irekian edo kriptikoan ditu bere hauteskunde-programan.

Ildo horretan, Vox indar politiko berria da, ibilbide gutxikoa, baina haustura-diskurtso bat planteatzen du estrategikoki, ezer gutxi galtzea ekar diezaiokeen jarrera batean oinarrituta; nolana ere, itxuraz behintzat, gaur egun ia aukerarik ez du aurrera egiteko EAEko jokaleku politiko eta sozialean, eta, beraz, ez du merezi garrantzi handirik ematea, garrantzia emanda lortzen duelako nabarmentzea. Hala ere, aurrera egitea lortzeko izan dezakeen aukera dela-eta, konponbidea ez da darabilen diskurtsoa mimetizatzea, duen esparrua onartzea, baina *osasan-gerrikoak* direlakoak edo izaera demokratikoko *kontrako koalizioak* ezartzea. Duela ia bi hamarkada esan zuen Jose Maria Ridaok Le Pen – Chirac eztabaidaren inguruan: “Egia esateko, fenomeno bitxi bat da: eskuin muturra ez da gauza hautestontzietan irabazteko, beti minoritarioa izan da, baina, azkenean, paradoxikoki, bere konponbideak ezartzen ditu, azken batean errealitateaz egiten duen azterketa, interpretazioa ezartzea lortu duelako”.

Ikuspegi kritikoa: “Immigrazioaren aldeko diskurtso-esparru orokorra azalekoa da, ez dauka ikuspegi estrukturalik, eta baliteke arriskuan egotea”

Ikuspegi horren arabera, immigrazioa (atzeritarrena) aldeztu duen diskurtso-esparru orokorra, hau da, kultura-aniztasunari, integrazioari, aniztasunaren balioari eta abarri buruzkoa, askotan azaleko hutsa da, eta ez du oinarri eta sustrai sendorik, nolabait azkar eta “bestela bezala” eraikitakoa baita, sortutako fenomeno bati erantzuteko premiagatik, “ezer gutxi hausnartuta eta sakontasun gutxirekin”, oraintsuko historia “barne-immigrazioak oso baldintzatuta” zegoela, eta horri buruzko diskurtso politikoak “bereziki doiak” izan gabe (EP-3).

Onenean ere, immigrazioaren ondorioak kudeatzen dira, baina ez zaie hainbeste heltzen immigrazio horren sakoneko arrazoiei, ezaugarriei eta ematen dituen aukerei. Uste dut hori litzatekeela pixka bat interpretazio orokorra. Nire iritziz, orokorkeria gehiegi beharbada, eta gogoeta gutxi zer den gurea bezalako gizarte batean, historikoki barne-immigrazioak oso baldintzatuta egon baita, ahaztu zaigula ematen badu ere, eta orain ahal den moduan kudeatzen ari baita gure mugetatik kanpo datorren migrazioa, gehienetan haren ondorioak eta ez prozesu osoaren beharrak

kudeatuz (...) Euskadin, barne-immigrazioak izan ditugu, eta orduan ere ez ginen bereziki fin ibili diskurtsoetan. (EP-3).

Dударik ez dago askotan ñabardurarik gabekoa izan daitekeela immigrazioaren aldeko eta kontrako jarreraren arteko polarizazioa, baina esparru horretan, beste askotan bezala, garrantzizkoa ez da izaten eztabaidagai jakin bati buruzko jakintza-maila, hari buruzko jarrera baizik. Faktore askoren ondorioz migrazioei buruz jarrera positiboa izanda, pareko portaerak eratoritzen dira normalean, debatean sakontzeko aurretiazko baldintzak sor ditzaketenak. Baina jarrerak negatiboak direnean, immigrazioari buruzko eztabaida aberasgarri eta sakona hasi baino lehen amaitzen da.

Horrek guztiak ez du esan nahi informazio eta ezagutza doiagoa izatea lagungarria ez denik migrazioen tratamendu sozial egokia egiteko. Eta hala, gogoeta sakonik eta ikuspegi estrukturalik ez izateari dagokionez, kontsultatutako kazetarietako batek berariaz aipatzen du familia-erreferenterik gabeko nerabe eta gazte etorkinen egoera: “Beti herritarren segurtasunaren ikuspegitik hitz egiten da, baina inoiz ez da esaten zergatik dauden neska-mutikoak kalean eta zergatik ez duten baliabiderik lan egiteko” (EP-5).

Alde horretatik, duela urte batzuk Gasteizen Alderdi Popularrarekin gertatutakoaz pentsatzen da ezen alderdi horren porrot bat baino areago arrail edo irekidura bat izan zela, lehenago motelagoa zen tentsio bateranzkoa, zeina, gaur egun, Vox-ek bere egin baitu jarrera muturrekoagoak hartuz, EAEn oraindik ere hondar-jarrerak izanda ere kontuan hartu beharko lirakekeenak, “joera bat adierazten dutelako” (EP-3). Joera horiek direla eta, erne egon behar da, aurrea hartu ahal izateko, eta aurre egin behar zaie, indarra kentzeko.

Diskurtso-aldeak alderdi politikoaren artean

Elkarrizketatutako kazetariak, alderdi politikoaren arteko diskurtso-aldeei helduz, kontuan hartzen dute alderdiak non kokatuta dauden ezker-eskuin ardatzean, zer lurralde-lotura duten –Estatu osoko egitura baten mende dauden ala ez– eta gobernu-rola edo oposizio-rola betetzen duten Eusko Legebiltzarrean. Kasu honetan, ez dugu alde handirik edo ikuspegi desberdinik ikusi: ahots guztiek antzeko egoera azaldu ohi dute.

Ezker-eskuin ardatza

Ezker-eskuin ardatzari jarraituta, alde batetik, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU ditugu: ezkerreko alderditzat hartzen dira, eta kultura-aniztasunaren aldeko diskurtso argia dute, eta arrazakeriaren, xenofobiaren eta jatorrian, etnial, nazionalitatean eta abarretan oinarritutako edozein diskriminazio eta desparekotasun motaren aurkakoa. Beste muturrean, arku parlamentarioaren alderik eskuindarrean, PP+Cs eta Vox daude: haien diskurtsoak desberdintzat

hartzen dira, formari dagokionez batez ere; izan ere Vox-ek argi eta garbi eta konplexurik gabe arbuiatzen du immigrazioa, eta, PP+Cs dagokionez, pentsatzen da esparru neurrizkoago batean mugitzen dela.

PSE-EEren arrazoibidea ahultzat eta lausotzat jo ohi da, ezkerreko planteamendu orokorrak bere egin arren, zehaztasunik eza egotzen zaion neurrian. EAJ-PNVren diskurtsoari dagokionez, zentro-eskuinekotzat jotzen da, Europako kristau-demokraziarena (sozialdemokraziarena) dela pentsatzen da, eta jarrera “aldekoa da immigrazioari dagokionez, ikuspuntu humanitario batetik, pertsona zaurgarriei laguntzekoa”, baina ez hainbeste “eskubideen eta betebeharren berdintasun-ikuspuntutik” (EP-2); izan ere, ikuspegi pragmatikoa eta ekonomizista lehenesten du, are, batzuetan, enpresa-kutsua hartuta ere: “aberastasuna sortzea, enpresa-kutsu hori. Eta aberastea..., dena marketinerako eta metaketarako aukera moduan ikustea” (EP-5).

Lurralde-lotura

Kontsultatutako kazetarien arabera, lurralde-loturak egoera zailean jartzen ditu Elkarrekin Podemos-IU eta PSE-EE, hurrenez hurren Unidas Podemos-IUK eta PSOEk estatu osoan erabakitzen dutenaren mende baitaude, eta, egun, gainera, Espainiako Gobernuan daude. Kazetarietako batek zehaztu du bere ustez PSE-EE dela alderdi baldintzatuena, Elkarrekin Podemos-IU gauza delako estatu-esparruarekiko distantzia eta autonomia handixeagoa ezartzeko, litekeena izan arren hemendik denbora batera “oreka dezente egin behar izatea” (EP-2).

PP+Cs eta Vox leku erosoago batean kokatuta daude; izan ere, oro har, bai EAEn bai Estatuan antzeko diskurtso eta ildo politikoekin funtzionatu ohi dute, eta, egun, oposizioan daude bi kasuetan. EH Bilduri eta EAJ-PNVri dagokienez, bestalde, estatu-politiken aurkako diskurtsoak eratzeko gaitasuna duten alderdiak direla pentsatzen dute.

Guztiz ere, diskurtso-koherentzia ez da perfektutzat hartzen ezain kasutan ere, areago kontuan hartzen badugu udal-errealitateen aniztasuna, eta EAEn eta Espainiako Estatuan eratzen diren diskurtsoekin alderatzen badira. Honela planteatzen du elkarrizketatu dugun toki-kazetaria: “Esan diezazuket asko bereizi ohi ditudala alderdi politikoak udal-esparru zehatzaren barruan, EAEn edo Espainiako Estatuaren barruan, iruditzen baitzait alderdi berak hiru diskurtso desberdin dituela askotan” (EP-4).

Gobernu- edo oposizio-rola

Alderdiak gobernu-rola edo oposizio-rola betetzen duen, desberdintasunak ikusten dira, eta, horien arabera, EAJ-PNV bereizteko nagusiki esaten da diskurtso zuhurra duela, eta hori lausoegitza jotzen ez bada ere, PSE-EEri egotzen zaion bezala, anbizio gutxikoa dela, eta benetako konpromisorik

ez duela aldaketa sakonak proposatzeko indarreko sisteman, eta, askotan, asistentzialismoan geratzen dela, eta integrazioaz mintzatzeko duen esparrua kontserbadorea dela areago eraldatzailea baino.

EAJk, gehienbat, asistentzialistegia eta, batzuetan, beharbada, anbizio gutxikoa izan daitekeen sistema batean babestu nahi du migratzailea. Integrazioaz asko hitz egiten duelako eta, beharbada, bizikidetzaz eta eskubide-berdintasunaz gehiago mintzatu beharko litzatekeelako zentzuan. (EP-6).

Bai, eskuinean, PP+Cs eta Vox-en diskurtsoak bai, ezkerrean, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IUrenak askeagotzat jotzen dira –oposizioan baitihardute– EAEko egoera kritikatzearaz eta aldaketak proposatzeaz den bezainbatean.

Ondorio moduan, kazetarietako batek dio diskurtso-askatasun handieneko egungo bi alderdiak EH Bildu eta Vox direla; lehena, ezkertiarrena izan eta oposizioan egoteagatik; bestea, berriz, eskuindarrena delako eta aurrekoa bezala oposizioan dagoelako. Bestalde, kazetari horren arabera, baldintzatuen dagoen alderdia PSE-EE da, inolako zalantzarik gabe, eta Eusko Jaurlaritzan betetzen duen eginkizunagatik baino gehiago, PSOeri eta Madrilen hartzen diren erabakiei estu lotuta dagoelako.

Alderdi politiko bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak

Alderdi politikoen arteko desberdintasunez orain arte azaldutakoaren ildotik, elkarrizketek bide ematen dute alderdi bakoitzaren diskurtso-jarrera ezaugarritzen edo nabarmentzen duten gako batzuk ere azpimarratzeko.

EH Bildu, Elkarrekin Podemos-IU eta herri-mugimenduak

EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-IU ezkerreko alderdiak dira, atzeritar jatorriko pertsonak dituzte “kideen artean” eta “goi-karguetan”, eta “kultura-aniztasunean dute oinarri nagusietako bat” (EP-1). Eta hala, harremana dute ildo horretan lan egiten duten entitate sozialekin eta herri-mugimenduekin, eta haien errebindikazioetako batzuk adierazi dituzte Eusko Legebiltzarrean eta jokaleku politiko orokorrean, jarduera parlamentarioari buruzko atalean ikusi ahal izan dugun bezala. Elkarrizketatuen ustez, elkarte eta kolektiboekiko harreman horrek bi alderdiak indartu eta zilegitu ditzake, baina dauzkaten diskurtsoen sinesgarritasunari eragiten dioten tentsio-egoeretan jarri ere bai. Elkarrekin Podemos-IUren kasuan, esan bezala, tentsio nagusiak Unidas Podemos-IUk gaur egun Espainiako Gobernuan betetzen duen eginkizunarekin du zerikusia, baina EH Bilduren kasuan, kazetarietako batek zehaztu bezala, hizkuntza-politikari eta, zehazki, euskararen erabileraren defentsari eta sustapenari lotutako kontuek sor ditzakete tentsio jakin batzuk zenbait migratzaile-kolektibo eta -entitaterekin.

Iruditzen zait EH Bilduk garrantzi handia ematen diola euskararen gaiari. Eta primerakoa iruditzen zait. Begira, hizkuntza gutxituak dauden herrialde batetik etorri naiz. Eta hona iritsi nintzenean, orain dela hamar urte, oso ondo iruditu zitzaidan nola lantzen zuten hizkuntza gutxituen gaia. Ze ondo, euskara toki guztietan dago! Baina, era berean, batzuetan, EH Bildu hainbeste ixten da...; eta hori koherentzia falta iruditzen zait; izan ere, ekitaldiak eta horrelakoak antolatzen dituzte eta, batzuetan, kolektibo latinoamerikarrak eta hainbat lekutakoak gonbidatzen dituzte. Gai sozial bati buruzko hitzaldi jakin bat. Baina antolatu, eta hitz egiten denaren %90 euskaraz da. Eta nik sentitu dut jende asko lekuz kanpo geratzen dela, ez duelako ulertzen, eta itzulpenik ere ez dago. Eta jartzen dituzten bideoek ere, batzuetan, ez dute gaztelaniazko azpitolurik. Eta, batzuetan, gertatu zait, antolatutako zerbaitetan, are bideoaren barruan ere, elkarte baten bideo sozial batean, kolektibo migratzaileetako jendea agertzen dela, baina ez dute euskaraz hitz egiten, eta bideoa osorik da euskaraz (...). Eta sentitzen dut hor barrera moduko bat dugula, eta inkoherentzia bat ikusten dut. EH Bildun denok parte-hartzaileak garelako etiketa dugu... Oso parte-hartzailea dena, baina, gero, zaila da parte-hartzailea izatea, bati mezu osoa entzuten uzten ez badiozu. Edo hor jartzen duzu bere mezua eman dezan uler dezaketen beste batzuentzat, baina ez berarentzat, parte hartuta ere. (EP-4).

EAJ-PNV eta integrazioa

Elkarrizketatutako kazetari guztiek diote garrantzi berezia duela “integrazio” kontzeptuak EAJ-PNVk migrazio-errealitateaz darabiltzan diskurtsoetan. Batzuen ustez, alderdi politiko horrek herriaz duen ikuspegia dago azpian:

(...) alderdi bakoitzak herriaz daukan ikuspegian sartzen gara. Eta EAJk ordenaren ikuspegia dauka, euskal balio tradizionalak bestelako balio batzuen gainetik jartzen dituelako. EAJrentzat, garrantzitsua da oso etorkinek etorri eta euskara ikastea, jakitea hemen bestelako sustraiak dituen herri bat dagoela (...) uste dut EAJk ahal duen guztia egingo duela [etorkinak] lehenbailehen ohi daitezen bere garaian euskal bestelakotasuna esaten zitzaionarekin. (EP-1)

Ildo horretatik, pentsatzen da etorkinak euskal gizartearen berezko jardun kulturaletara eta ezaugarrietara egokitzea dela EAJ-PNVren asmoa, integrazioaren ideia esparru kontserbadore batera hurbilduta. Gainera, aurrez suposatzen da integratzeko “euskal kultura” homogenea dagoela kulturaren ikuspegitik; ohiko auresuposizioa eredu asimilazionistetan.

Beste batzuek, ordea, uste dute alderdi horrek integrazioari ematen dion garrantzia “ikusuntu ideologiko batetik baino areago estrategiko” (EP-2) eta/edo pragmatiko batetik zertzen dela, Gobernu-ikuspegi batetik, euskal gizarteak kontzientzia har dezan zeinen beharrezkoa den etorkinak ongi integratzea, hurrengo urteetan ekonomian eta gizartean aurrera egiteko.

[EAJ-PNV]k badaki, Gobernu moduan, immigrazioa funtsezkoa izango dela aberastasunerako eta hurrengo belaunaldietarako. Pentsioez eta sistema ekonomikoaren iraunkortasunaz ere hitz egiten ari gara. Eta nik uste dut diskurtso hori erabiltzen duela, halaber, bere hautesle-oinarriak onar dezan immigrazioa beharrezkoa dela gizarte moduan iraun nahi badu. (EP-2).

Jarrera kritikoagoa dutenak ideia horretatik pixka bat harago doaz, eta esaten dute EAJ-PNVk integrazioaz darabilen erretorika nolabait ke-laino bat dela, etorkinei buruzko jarrera ekonomizistak eta utilitaristak ezkutatzeko.

EAJk, nik uste, beti dauka diskurtso integratzailea egiteko zera hori, baino gero harako hura dator: “baietz, baina datozela lan egitera... Izan ere, gutaz aprobetxatzera datoz, oso jende jatorra gara-eta”. Oso katolikoak gara, baina aprobetxatzera etortzen dira... (EP-5).

PSE-EE eta “trabak”

Orokorrean, guztiek diote PSE-EE alderdiak ezkerreko diskurtso epel eta baldintzatua duela, baina, zehazki, kazetarietako batek sakondu du gai horretan, eta PSE-EEren diskurtsoaz “etereoa eta gorabeheratsua” dela esan, eta “Batzorde Federalak Madrilen erabakitzen duenak oso baldintzatua” (EP-2). Eta hala esan nahi du “traba” askorekin borrokatu behar duela eta, hitz batean, kontraesan zailei aurre egin behar diela, erreibindikazio sendoak garatzea eta jardun-ildoak zehaztea galarazten dutelako.

Nire ustez, Espainiako Estatuan PSOeri lotutako alderdia izateak estu lotzen du PSE-EE, hura gobernu-alderdia baita. Eta, beraz, bere migrazio-politikak..., edo immigrazioari buruzko jarrera bere gobernu-funtzionario oso lotuta dago. Immigrazioaren nahiko aldeko jarrera dauka, baina ezin du irmoki adierazi (...). Adibidez, azken hauteskunde-kanpainan, gainerako alderdiek ez bezala, immigrazioari erantzuteko oso tresna, baliabide eta mekanismo zehatzak proposatu baitzituzten, PSE-EEren diskurtsoa immigrazioaren, aniztasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldekoa izan zen, baina ez zuen tresnarik proposatu hemen garatzeko, bai baitaki Madrilen erabakitzen denaren oso mende dagoela (...). Ikusia dugu berotan itzularazitakoekin, esan baitute horrela jarraituko dutela, programan aurka egon arren, eta Konstituzio Auzitegian errekurritu. Bai eta, adibidez, Kanarietaranzko bidearen militarizazioarekin ere. (EP-2).

PP+Cs, Vox eta immigrazioa arazo moduan

Kontsultatutako kazetari guztien ustez, PP+Cs-k eta Vox-ek immigrazioaren inguruan eraikitako narratibak nagusiki arazotzat hartzen du, eta horrek alderdi horiek nagusi den immigrazioaren aldeko aipatu esparru orokorretik aldentzen ditu, esparru horrek, gutxienez, harrera-funtzioa garatzeko beharra onartzen eta azpimarratzen baitu ikuspuntu humanitarioetik.

Ikusten da PP+Cs-ren diskurtsoek fokua kontu ekonomikoetan jartzen dutela, askotan etorkinei, aldi berean bertakoen egoera zaindu edo okertu gabe, behar bezala laguntzeko bitartekorik ez dagoela argudiatuta. Hartara, diskurtsoa saihetsezintzat jotzen den “kanpokoen” eta “hemengoen” arteko oposizioaren gainean eraikitzen da. Kazetarien arabera, gaur egun ez da ohikoa etorkinen aurkako diskurtso argi eta garbi oldarkorrak aurkitzea, ziur aski zentro-eskuinean izan ditzaketen hautesleentzat direlako, eta balitekeelako horiek egokitzen ez jotzea jokabide hori. Baina kazetariak konturatzen dira kontraesan

deigarri batzuk daudela alderdiok immigrazioari buruz duten ikuspegian, behin eta berriro goraiatzen baitituzte beste leku batzuetara ekiteko asmoz emigratzen duten bertako gazteak.

(...) argi eta garbi, arazotzat [hartzen da] immigrazioa. Eta arazo hori, onenean ere, bitartekoak baditugu kudeatuko dugu. Ez du loturarik, jakina, ez eskubide osoekin ez giza eskubideekin. Nik uste dut Ipar-Hego ereduari lotuta dagoela, buruz behintzat, eta beharbada geografikoki ere bai, Euskadira iristen diren pertsonak jadanik Euskadin zeudenek zeukatena baino herritartasun-maila txikiago batean jartzen baititu. (EP-3).

(...) gure heroiak, beti, lan egitera Londresera joan diren gazteak dira PPrentzat. Ekintzaileak dira, beste herrialde batzuetara doaz bizimodua ateratzera. Baina jende ekintzailea beste herrialde batzuetatik hona datorrenean, sobera dago... (EP-4)

Vox da, bestalde, etorkinei buruz erdeinuzko diskurtso argia izatearekin identifikatzen duten alderdi politikoa, hartzen dituen jarrerak, diotenaren arabera, “nahiko beligeranteak” direlako (EP-2), “gorrotoa sustatzen dutelako” (EP-4), lotura zuzena ezartzen dutelako immigrazioaren eta delikuentziaren artean (EP-6) eta, batzuetan “ageriko islamofobia” adierazten dutelako (EP-5).

Laburtzeko, kazetarietako batek (EP-6) alderdi politiko bakoitzaren diskurtso-jarreraz duen ikuspegia eman digu, berak egindako sei tituluon bidez:

- EAJ-PNV: “Migratzailearen babes, asistentzialistegia eta batzuetan, beharbada, anbizio gutxikoa izan daitekeen sistema batean”
- EH Bildu: “Berdintasunaren bila: nahi eta ezin –nahi dudaren asko nire eskutik kanpo dagoelako–”
- PSE-EE: “Migratzaileei ongietorri egiteko estrategia iluna”
- Elkarrekin Podemos-IU: “Atzerritartasun Legearen eta barneratzeko zentron aurka”
- PP+Cs: “Lan-merkatuaren beharrak kontuan hartuta baino ez dira onartzen migrazioak”
- Vox: “Migratzailea=delitugilea”

Aldaketa-proposamenak eta erronkak

Azkenik, ondoren, kazetariak adierazitako aldaketa-proposamen eta erronka batzuk bildu ditugu.

Diskurtso eta kontzeptu batzuen ohiko erabilerak, alderdi politikoa edozein izanda ere, zalantza batzuk sortzen ditu. Zehazki, zalantzan jartzen da honako hauek egiteko joera: “etorkina” eta “persona pobrea” sistematikoki parekatzea; Euskadiko elkarte-sarearen indarra laudatzea, baina bigarren mailan uztea zerbitzu publikoen erantzukizuna; “tolerantzia” edo “integrazio-sentimendua” sustatzeaz aritzea, erdigunean jarri beharrean askotariko pertsonen eta

kolektiboen arteko “bizikidetza” kontzeptua berdinetik berdinerako ikuspegi batetik; eta, aldi berean, sentimendu subjektiboak aipatzea eta ez hitz egitea funtsezko gauza batzuk (objektiboak), hala nola enplegua, etxebizitza eta prestakuntza izateko aukera bermatzeaz. Haien hitzetan:

a. Immigrazioa ez da ezinbestean pobrezia sinonimoa:

“Pertsona migratzaileak” kontzeptua fenomeno ekonomikoen ondorioz datozen pertsonentzat gordetzen dugu. Hau da, baldintza ekonomiko prekarioetan datozenentzat. Ziur aski, hori da, nolabait esatearren, immigrazioaz hitz egiten denean pixka bat zorrotzago garatu beharko beharko liratekeen gaitako bat. Ematen baitu hona Unibertsitatean lan egitera datorren zeelandaberritar bat ez dela migratzailea (...). Jakina, immigrazioak, fenomeno gisa, justizia sozialean oinarrituta egotea izan behar du abiapuntu. Baina kontu handia ipini behar dugu hitz hori erabiltzean, bai bailiteke azkenean, guk geuk, edo horrelako diskurtsoek, bihurtzea “persona migratzailea” kontzeptua “persona ekonomikoki behartsu”, sinonimoak balira bezala. Eta ez dira ezinbestean sinonimoak. (EP-1).

b. Elkarte-sarea laudatzearen tranpa:

Euskadin, elkarre-sarea oso indartsua da, eta ondo dago, baina arlo publikotik eman beharko liratekeen zerbitzuak nolabait prekarizatzen ditu. Nik nahiago dut sare hori egotea, baina pixka bat tranpa dela iruditzen zait. (EP-5).

c. Tolerantzia, integrazioa (sentimendua)... Bizikidetza?

Tolerantziarenak nire ustez kalteetako txikienean dagoen jarrera eta esparru mental batean kokatzen gaitu: “hori guztia toleratzen dugu, behintzat”. Uste dut ondorioa dutela erabiltzen ditugun hitzek eta, kasu honetan, ez zait iruditzen egokiegia denik. (EP-3).

[Integrazio]-sentimendua bera baino gehiago, integrazioa bera areagotu beharko litzateke, ezta? Integrazio-sentimendua areagotzearena marketina dela iruditzen zait. Jendearen integrazioa areagotu beharko litzateke. Eta integrazioa lana, etxebizitza eta prestakuntza izatea da. (EP-5).

Etorkinekin mintzatzen zarenean, askotan esaten dizute: “zer integraziori buruz ari dira? Nik ez dut inon integratu beharrik. Elkarrekin bizi behar dut, zuk egin beharko duzun bezala”. Elkarrekin bizi beharko dugu... (EP-6).

Erronka moduan, nabarmentzen da epe laburretik eta alderdien arteko hauteskunde-lehiatik harago begiratzen duten diskurtsoak eraikitzeko helburua; lortutakoak balioetsiz, hala nola, adibidez, eztabaida politikoaren erdigunetik kendu izana “MENA” direlakoan kontua herritarren segurtasun-arazo moduan, eta lan eginez aurrerantz jarraitzeko euskal gizartean kultura-eta jatorri-aniztasuna benetan normalizatzearen alde.

Nik inoiz-edo esan dut pertsona horiek Teleberri saioa aurkezten neska beltz bat agertzen denean sentituko direla benetan integratuta. Eta berak, berrien protagonista izan beharrean, berriak ematen dituztenak izatean. Orduan frogatuta geratuko baita ez bakarrik hemen daudela, bai eta paisaiaren parte direla ere. Baina, horretarako,

zoritarrez, oraindik denbora asko falta da. Eta baliteke ez ibiltzea guk uste bezain azkar. (EP-1).

Azkenik, beste erronka handi bat planteatzen da, egungo problematika zehatzei heltzen ausartzen diren diskurtsoak sortzea: justizia sozialaren aldeko konpromisoa; kritika estrukturala; eta gure egunerokoan indarrean dauden desparekotasun, indarkeria eta abusuen salaketa esplizitua. Atal hau amaitzeko, adibide moduan, elkarrizketatutako kazetari batek ildo beretik adierazitakoak ekarri ditugu hona. Zehazki, etxeko langile eta zaintzaile esentzial gisa diharduten emakumeen errealitateaz ari da.

Integrazio-, tolerantzia- eta bizikidetzeta-diskurtsoak egiten dira, baina, bestalde, errentagarritasuna ateratzen da oso egoera txar batetik. Emakumeei dagokienez, zehazki, laguntza emateko dugun moduarekin du zerikusia. Zaharren egoitzak, liberalizatuta eta diru publikoz ordainduta; udalak etxeetan ematen duen laguntza; eta, gero, etxean zaintzeko laguntzarako bitartekorik merkeena. Egoitza batean plaza bat ordaindu beharrean, hilean 500 euro ematen dizkizut. Ondo baino hobeto dakigu diru hori askotan kontraturik gabe dauden atzerriko emakumezko langileentzat edo emakume nazionalentzat dela. Badakigu ATH-ELEK, Etxeko Langileen Elkartek, urteak daramatzala Bizkaian gainerako langileek bezala lan-araubidea izatea aldarrikatzen. Gainera, neurri asko eta asko har litezke, baina ez dira hartzen, benetako balioa ordainduz gero, etekinik ez litzatekeelako egongo enpresa lagunentzat. Eta, gainera, ez litzateke zentzuzkoa izango emakumezko langile etorkinak izatea, etxeko langile huts moduan izan ezik, eta ez zaintzaile esentzial moduan. Eta badakigu hori guztia mahai gainean jarriko balitz, jende askok ezingo lukeela "neska" etxean izan garbiketa-lanak egiten, astean bitan (...). Besteak beste, atzeritarren baliabideak erabiltzen ari dira, zerbitzu publikoetan, sozialetan eta laguntza sozialetan gutxiago inbertitzeko, eta politika liberalagoak egiteko. Nik hala ulertzen dut. Eta liberaleraz ari naizenean, orain diren bezala ari naiz, neoliberalak, diru publikoarekin (...). Migratutako emakumeak hondatzen ari gara; ingurune pribatuetan, kontrolrik gabe, ez bakarrik laneko abusuen bidez, bai eta abusu fisikoen bidez ere. (EP-5).

Hor, kazetari horrek adierazi du aniztasunari eta bizikidetzari buruzko zenbait diskurtso positibok heldu gabe geratzen diren sakoneko kontu estrukturalak ezkututzen dituztela. Emakume migratzaileen eta etxeko lanaren nahiz zaintzen kasua da Badakigu, hala adierazten dute ikerketa askok duela hainbat urtetatik, emakume horiek (latinoamerikar jatorrikoak gehienetan) harrerako gizartearen eskari bat betetzera datozela. Emakume horiek lan-merkatu prekario eta oso gutxi baloratu batean sartzeak erraztu du, neurri handi baten, bertako emakumeak lan-merkatuan sartzea. Jatorriko gizarteetan amak, aitak, seme-alabak geratzen dira, eta emakume horiek eta haien emakumezko senideek zaintzen dituzte bidaltzen dutenaren bidez. Hartara, nazioz gaindiko zaintza-kate globalak eratzen dira: produkzio-lana sostengatzen duen lan erreproduktibo guztiz ikusezina. Kontuan hartu behar da emakume horiek osatzen dutela Euskadira egindako migrazioaren zatirik handiena.

5


Diskurtso sozialak

Bigarren mailako iturrien berrikuspena

Euskal Soziometroaren, Deusto Gizarte Barometroaren eta Ikuspegiren Barometroaren azken argitalpenek (2018-2020) adierazten dute EAEko biztanle gehienek ez dutela arazo garrantzitsutzat hartzen immigrazioa, eta joera hori 2020an areagotu dela, COVID-19ak eragindako pandemiaren urtean, kezka nagusia egoera sanitarioa eta ekonomikoa izan baita. Ez du ematen 2020. urtearen ezohikotasunak eragin txarrik izan duenik, oraingoz behintzat, EAEko gizarteak immigrazioaz duen ikuspegian; izan ere, 2020an, Ikuspegiren Barometroaren Tolerantzia Indizea, 0 eta 100 arteko eskalan, orain arteko puntuaziorik handienara iritsi da: 65 puntu¹⁹.

7. grafikoan ikusten den bezala, Deusto Gizarte Barometroak (2018-2020) erakusten du nabarmen behera egin duela 2020an immigrazioa EAEko arazo nagusia izateari buruzko gizarte-pertzepzioak.

7. grafikoa. “Immigrazioa” EAEko arazo nagusia izateari buruzko pertzepzioaren bilakaera (%)




Iturria: Txostengileek egina, Deusto Gizarte Barometroaren datuetan (2018-2020) oinarrituta.

¹⁹Informazio gehiago izateko, ikusi *Barometroa. Atzerritar jatorriko biztanleekiko pertzepzioak eta jarrerak, 2020*. Hemen dago: www.ikuspegi.eus.

Euskal Soziometroak ere –66.-72. zk.ak– (8. grafikoa) joera hori berresten du, baina, aldi berean, “immigrazioa eta harekin zerikusia duten arazoak, arrazakeria” dela-eta arazo pertsonal moduan dagoen pertzepzioak aurreko urteen ildotik jarraitzen duela adierazten du, eta puntu bat eta bi artean baino ez dela aldatzen.


8. grafikoa. “Immigrazioa eta harekin zerikusia duten arazoak, arrazakeria” EAEn eta maila pertsonalean arazo nagusia izateari buruzko pertzepzioaren bilakaera (%)



Iturria: Txostengileek egina, Euskal Soziometroaren datuetan oinarrituta (66.-72. zk.ak)

9. grafikoa, ikusten dugu Ikuspegiaren Barometroan (2018-2020) aldaketa txikiagoak daudela, gizarteak immigrazioa arazotzat hartzeari dagokionez.

9. grafikoa. Immigrazioa EAEn arazoa izateari buruzko pertzepzioaren bilakaera (%)



Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiaren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2020.

Deusto Gizarte Barometroak eta Ikuspegiaren Barometroak kontuan hartzen dute zer iritzi duen gizarteak etorkinek zenbait zerbitzu eta baliabide publiko baliatzeko eskubideari buruz. Estatistika-arloko bi informazio-iturriek adierazten dute alde handia dagoela unibertsaltzat jotako eskubideen eta beste eskubide batzuen artean. Unibertsalei dagokienez (hezkuntza eta osasuna, besteak beste), EAEko biztanle gehienek ustez, etorkin guztiek izan behar dituzte. Beste batzuk, ordea, gizarte-laguntzak, adibidez, etorkin erregularizatuek baino ez dituzte erabili behar EAEko biztanle gehienek ustez.


Etorkin guztiek, erregularizatuta egon zein ez, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzeko eskubideaz gizarteak duen iritziaren bilakaerari begiratzen badiogu, ikusten dugu Deusto Gizarte Barometroa (8. taula) eta Ikuspegiren Barometroa (10. grafikoa) bat datozela, adierazten baitute 2018 eta 2020 artean adostasun-ehunekoek, oro har, beren horretan jarraitzen dutela, edo gora egiteko joera dutela. Salbuespen moduan, Ikuspegiren Barometroaren kasuan, “Gizarte-laguntzak” izateko eskubideari buruzko adostasuna %29,9 izan zen 2019an eta %19, berriz, 2020an.

8. taula. Etorkin guztiek zerbitzu/baliabide publikoak izateari buruzko eskubideaz EAEko gizarteak duen iritziaren bilakaera (%)

	2018ko uda	2018ko negua	2019ko uda	2019ko negua	2020ko uda	2020ko negua
Osasun-laguntza	56,5	55,2	56,4	58,7	58,3	62,8
Hezkuntzarako sarbidea	46,6	50,7	52,6	51,2	51,6	55,2
Kultu-zentroak irekitzea (erlijiosoak)	-	-	27,1	25,9	27,8	27,1
Gizarte-laguntzak	22,3	24,5	26,6	26,3	26,0	29,5
Seniderik gertukoena ekartzea	19,4	20,7	20,7	20,0	19,2	22,1
Babes ofizialeko etxebizitza	14,7	16,6	18,9	16,6	18,1	19,5
Boto-eskubidea	9,8	12,4	13,2	10,5	12,4	13,0

Iturria: Txostengileek egina, Deusto Gizarte Barometroan (2018-2020) oinarrituta.

10. grafikoa. Etorkin guztiek eskubide eta zerbitzu publikoak baliatzeari buruzko adostasun-mailaren bilakaera (%)



Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.


Oinarritzat edo esparru orokortzat hartuta orain arte azaldutako informazioa, ondoren, sakontzeko asmorik gabe, Ikuspegiren Barometroak honako hauei buruz emandako azken hiru urteetako datuak aurkeztuko ditugu:

- Immigrazioak ekonomian eta ongizatean dituen ondorioei buruzko gizarte-pertzepzioa
- Etorkinen eredu kulturaleri eta jatorriaren arabera desberdintasunei buruzko adostasun-maila
- Atzerritar jatorriko pertsonen buruzko estereotipoak
- Immigrazioaren kudeaketa publikoa COVID-19ak eragindako osasun-krisian
- Tolerantzia Indizeari lotutako biztanle-talde handiak²⁰

Immigrazioak ekonomian eta ongizatean dituen ondorioei buruzko gizarte-pertzepzioa

Immigrazioak ekonomian eta ongizatean dituen ondorioei buruzko gizarte-pertzepzioarekin hasita, ikusten dugu ezen, 11. grafikoak adierazi bezala, beheranzko joera duela etorkinak iristeak lan-merkatuari eta bertakoen lan-egoerari kalte egiten dielako pertzepzioak. Joera hori 2015. urtetik ikusten dugu, hau da, krisi ekonomiko larrienerako urteen ondorengo aldia geroztik.

11. grafikoa. Immigrazioak ekonomian eta lan-merkatuan dituen ondorio kaltegarriei buruzko gizarte-pertzepzioaren bilakaera (%) –adostasuna–




Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.

Ilido beretik, 12. grafikoan ikusten dugu etorkinak laguntzen eta prestazioen onuradun pasibotzat jotzen duten estereotipo eta zurrumurruekiko adostasunak indarra galdu duela nabarmen 2020an; bestalde, ordea, 13. grafikoko datuek adierazi bezala, EAEko gehiengo sozialaren ustez, atzerritar jatorriko pertsonak iristeak onura ekonomikoak dakartzkio Euskadiri, eta bertakoek egin nahi ez dituzten beharrezko lanak egiten laguntzen du.


²⁰Informazio osoa eta zehatza lortzeko, jatorrizko iturrietara jotzea gomendatzen dugu: Ikuspegiren Barometroa (2018, 2019 eta 2020); Ikuspegiren web-orrian (www.ikuspegi.eus).

12. grafikoa. Etorkinak prestazioen eta laguntzen onuradun pasiboak direlako gizarte-pertzepzioaren bilakaera (%) –adostasuna–



Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.


13. grafikoa. Immigrazioak ekonomian eta lan-merkatuan dituen ondorio onuragarriei buruzko gizarte-pertzepzioaren bilakaera (%) –adostasuna–



Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.

Era berean, nabarmendu behar da ezen, 14. grafikoa adierazten den bezala, egungo osasun-krisiaren erdian, “Etorkinek EAEko osasun-sistema gehiegi erabiltzen dute, eta larrialdiak kolapsatzen dituzte” estereotipoak ere atzera egiten duela.

14. grafikoa. Baieztapen honekiko adostasun-mailaren bilakaera: “Etorkinek EAEko osasun-sistema gehiegi erabiltzen dute, eta larrialdiak kolapsatzen dituzte” (%)



Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.

Etorkinen eredu kulturelei eta jatorriaren arabeko desberdintasunei buruzko adostasun-maila

Etorkinen eredu kulturelekiko adostasun-mailari dagokionez, EAEko gizartea gero eta gehiago onartzen ari da. Hala ere, komeni da ez ahaztea ezen, 9. taulan adierazi bezala, zerbitzuren baten eskaintzari dagozkion kultura-alderdi exotikoenek eta azalekoenek onarpen-maila nabarmen handiagoa lortu ohi dutela sakonenez eta funtsezkoenek baino. Aurreko urteen ildotik, datuek adierazten dute EAEko gizartea kultura-aniztasunaren alde dagoela, baina jarrera asimilazionista batean oinarrituta. Hau da, aniztasuna onartuta ere, eta berarekin dakarren aberastasuna aitortuta, indarrean dago oraindik ere etorkinek gure tradizio eta ohiturak berenganatzeko ahalegina egin beharko luketelako ustea. Esan genezake EAEko gizarteak zentzu exotiko eta naif batean ulertzen eta balioesten duela kultura-aniztasuna. Inoiz ere ez da planteatzen kultura-aniztasunaren kudeaketa soziopolitikoak egiteko eredu moduan, beste herrialde batzuetan (Kanadan edo Ingalaterran, adibidez) izandako esperientziari jarraituta. Ikuspegik beste batzuetan adierazi bezala, immigrazioak, fenomeno moduan:

“(...) asimilazioaren aldeko erreakzioak sorrarazi ohi ditu. Gorabidean diren errealitate berrien aurrean norberaren ohiturak, gure gizartean nagusi direnak, babestea da erantzun horien funtsa eta helburua. Gizarte-jarrera hori nahiko normala da immigrazioa gertakari nahiko urri eta apartekoa izatetik egiturazko fenomeno sozial, egonkor eta garrantzitsua izatera igarotzen ari den gizarteetan” (Ikuspegi, 2018)²¹.

9. taula. Atzeritar jatorriko biztanleen kultura-ereduekiko adostasun-mailaren bilakaera (%)

	2018	2019	2020
Janari exotikoko jatetxeak irekitzea	69,5	73,5	83,2
Beren saltokiak irekitzea	73,8	71,7	81,0
Berariazko elikagai-dendak izatea	66,5	66,2	77,7
Elkarren artean beren hizkuntza erabiltzea	59,5	53,7	75,0
Plaza eta espazio publikoak hartzea	48,0	48,8	66,5
Beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea	39,7	38,6	53,2
Jatorrizko herrialdean bezala janztea	33,8	34,8	46,8
Beren irakaskuntza-zentro pribatuak izatea	30,2	33,8	40,8


Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.

Jatorriaren arabeko desberdintasunei erreparatuta, 15. grafikoak erakusten digu nola EAEko gizarteak, 0 (sinpatiarik ez) eta 10 (sinpatia handia) arteko sinpatia-eskala batean, joera duela gehiago balioesteko bere ustez jatorri hurbilagoa edo jokabide kultural antzekoagoak dituzten pertsonak; gutxien

²¹Ikuspegi (2018). 2017 Barometroa. Jatorri atzeritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak. https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/eus/bar_2017eusOK.pdf

balioetsitako bi jatorriak, berriz, errumaniarra eta magrebtarra dira. Lehentasun horiek edo, Cea D´Ancona et al.-ek (2013)²² erabilitako hitzetan, filia eta fobia horiek ez dira orain dela hamar urte baino gehiago ikus zitezkeen oso bestelakoak, baina leunduz joan dira urteak igaro ahala. Aztergai dugun aldian, urrutirago jo gabe, kontuan hartutako ia jatorri guztiekiko sinpatia-mailak hobera egin du.

15. grafikoa. Nazionalitate nagusiekiko sinpatia-mailaren bilakaera: 0 (sinpatiarik ez) eta 10 (sinpatia handia) arteko eskala




Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiaren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.

Atzerritar jatorriko pertsonen buruzko estereotipoak

Atzerritar jatorriko pertsonen buruzko estereotipoen gaineko datuekin jarraituta, esan dezakegu ezen, Ikuspegiaren Barometroak erakutsi arren aldi behin aztertutako estereotipo gehienek indarra galdu dutela 2013. urtetik, oraindik ere garrantzizkoa dela gizartean haietako batzuei buruz dagoen adostasun-maila. Alde horretatik, adibide moduan, lau estereotipo zehatzekiko adostasun-mailak izandako bilakaera erakusten dugu 16. grafikoa.

²²Cea D´Ancona, María Ángeles, Valles, Miguel S., Eserverri, Cecilia. (2013). *Inmigración. Filias y fobias en tiempos de crisis*. Biblioteca nueva.

16. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleei buruzko estereotipo batzuekiko adostasun-mailaren bilakaera (%)




Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.

Ikusten den bezala, 2020. urtean, %30etik gorakoa da etorkinek EAEn segurtasunik eza eta delinkuentzia sortzen dituztelako edo matxismoa areagotzen dutelako ideiarekiko adostasun-maila. Era berean, %20 ingurukoa da etorkinek integratu nahi ez dutelako eta ikasgeletan hezkuntza-maila jaitea eragiten dutelako ustea.

Immigrazioaren eta delinkuentziaren arteko loturan sakondu eta “nor bait hona etorri bada, eta edozein delitu egiten badu, herritik kanporatu beharko lukete” kontsulta egiten denean, neurri horren babesa ere ia 20 puntu jaitsi dela ikusten da.

17. grafikoa. Baieztapen honekiko adostasun-mailaren bilakaera: “Nor bait hona etorri bada, eta edozein delitu egiten badu, herritik kanporatu beharko lukete” (%)




Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2018-2020.

Immigrazioaren kudeaketa publikoa COVID-19ak eragindako osasun-krisian

Ikuspegiren azken barometroak (2020) aztergai izan du COVID-19ak eragindako osasun-krisian zehar egindako immigrazioaren kudeaketa publikoa, eta zenbait neurri hartzeari buruzko iritzia galdetu die EAEko herritarrei. 18. grafikoak adierazi bezala, EAEko herritarrek ia aho batez (%91) aldeztu dute osasun-zerbitzuetan larritasun medikuaren arabera sartzeari, ez pertsona bertakoa edo etorkina izategatik.


18. grafikoa. COVID-19ak eragindako osasun-krisian, osasun-zerbitzuetan sartzeko lehentasuna (%)



Iturria: Ikuspegiren Barometroa, 2020.

Laguntza ekonomikoak eta sozialak (19. grafikoa) izateari dagokionez ere, gehienek uste dute ez dela hierarkiarik ezarri behar pertsonaren jatorriaren edo egoera administratiboaren arabera, baina gehiago hori ez da hain erabatekoa: %65. %33ren ustez, egoera administratibo irregularrean daudenei laguntzetarako sarbidea murriztu beharko litzaike, edo lehentasuna eman bertakoei etorkinen aurretik.


19. grafikoa. COVID-19ak eragindako osasun-krisian, laguntza ekonomikoak eta sozialak jasotzeko lehentasuna (%)



Iturria: Ikuspegiren Barometroa, 2020.

Era berean, premiazkoa denez hainbat lanpostu lehenbailehen betetzea, etorkinen aparteko erregularizazioa ezartzeko aukeraz galdetu da. 20. grafikoa adierazi bezala, EAEko gehiengo soziala neurri hori abian jartzearen alde dago (%72,7), eta %10, berriz, aurka. Zalantza dutenak %10,5 izan dira; eta erantzun ez dutenak, %7.

20. grafikoa. Egoera administratibo irregularrean dauden atzerritar jatorriko pertsonen aparteko erregularizazioa, lanpostuak lehenbailehen betetzeko (%)



Iturria: Ikuspegiaren Barometroa, 2020.

Tolerantzia Indizeari lotutako gizarte-profilak

Azkenik, ez dugu berrikuspen hau amaitu nahi Ikuspegiaren Barometroko Tolerantzia Indizeari lotutako gizarte-profilak aipatu gabe.

2018 eta 2020 artean, tolerantzia-atalasea zein den kontuan hartuta, pertsonen gizarte-profilari lotuta iraun duten ezaugarri sozialean artean, honako hauek daude:

- Tolerantzia-atalase baxueneko pertsonaren profila: emakumea; berrogei urtetik gorakoa; lehen mailako ikasketak; katolikoa; erdalduna; identitate-sentimendu nagusiki espainola; ezkerrekoa ez den ideologia; hilean gehienez ere 1.800 euroko diru-sarrera; enplegurik ez; estatus apala; ezkorra; eta etorkinekiko interakziorik gabea.
- Tolerantzia-atalase altueneko pertsonaren profila: gizona; berrogeita bost urtetik beherakoa; unibertsitate-ikasketak; ez-katolikoa; euskalduna; ezkerrekoa; hilean 1.800 eurotik gorako diru-sarrera; eta etorkizun ona.

Tolerantzia apalenero profilean, bi azpimultzo daude: prekaritatearen esparruan dauden pertsona zaurgarriak, edo desberdintasunarekin ideologikoki intoleranteak diren pertsonak. Profil altuenean, berriz, gizartearen esparru seguruan kokatutako pertsonak.

Bertako biztanleen pertzepzio eta iritziei buruzko ikuspegi kualitatiboa

Epigrafe honetan, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako bertako pertsonekin egindako lau eztabaida-taldeetan bildutako ekarpenez arituko gara. Metodologiari buruzko atalean esan bezala, lau taldeak gidoi berari jarraituz antolatzen dira, eta bide ematen dute informazio sorta zabal eta aberats bat jaso dezagun, jakiteko pertsona horiek hautematen dutenaren arabera nola balioesten eta tratatzen dituen EAEko gizarteak etorkinak, eta era berean, balorazio eta pertzepzio propioetan eta izandako zuzeneko harreman- eta bizikidetzak- esperientzia batzuetan sakontzen da.

Ondoren, lehenik eta behin, 50 urte edo gehiago dituzten pertsonekin egindako hiru taldeei dagozkien ekarpenez arituko gara; ondoren, gazteekin egindako taldean partekatutako errealitateari helduko diogu.

Immigrazioari buruzko diskurtsoak 50 urte edo gehiago dituzten pertsonen artean

50 urte edo gehiago dituzten pertsonen hiru taldeen arabera, immigrazioaz hitz egiten denean, normalean, alde batetik, prestazio ekonomiko eta laguntza sozialetarako sarbidea aipatzen edo eztabaidatzen da gehien, eta, bestetik, kolektibo horrek sortzen dituen indarkeria eta delinkuentzia.

Etorkinez gehien entzuten dena: Laguntzez baliatzen dira? Indarkeria eta delinkuentzia areagotzen dira?

“Laguntzak”

Prestazio ekonomikoak eta laguntza sozialak eskuratzeari dagokionez, esaten da bereziki errotuta dagoela etorkinak “laguntzez baliatzen direlako” ideia, eta ohikoa dela horrelakoak entzutea tabernetan, kafetegietan, plazetan eta abar. Hitz batean, eguneroko solasaldi arruntetan. Saioetan, ideia horren aurkako diskurtsoak bezala aldekoak ere agertzen dira modu gutxi-asko esplizituan.

Jarrera kritiko batean oinarrituta, batzuek diote, zurrumurruek eta diskurtso politiko batzuek aldarrikatzen dutenaren aurka, prestazio ekonomikoak eta laguntza sozialak jasotzeko eskubidea baldintza beretan gauzatzen dela etorkinen eta bertakoen artean; datu batzuek erakusten dutela bertakoek jasotzen dutela gehiago laguntza edo prestazio motaren bat etorkinek baino; eta, lan egin beharrean, “laguntzetatik bizitzea” nahiago izatea ez dela etorkin guztiek egiten duten eta bertakoen artean inork ere egiten ez duen zerbait, mota orotako kasuak daudelako.

Edonork, zortzi euskal abizen edo hamazazpi katalan edo hogeita hamalau gaztelar izanda ere, berdin zait nondik etorri den pertsona horren egoera berean badago, eskubide berberak izango ditu. (M1GB).

(...) gutako bakoitzaren sentsazio indibiduala dago, bakoitzari bizitzea egokitu zaiona bizitzea egokitzen zaigulako, eta hurbil egokitu zaigunagatik dugulako sentsazioa dugu. Ez naiz horretaz ari. Guztiak delitugileak direla eta DBE kobratzera datozela dioen diskurtso orokorraz ari naiz. Benetan, hori entzuten baita. Baina erabilpen bat da, politikoki egiten dena, eta, nire ikuspuntutik, doilorra. (H2GB).

Laguntzak kobratzearena...; begira, bai, egia da batzuek kobratzen dutela, eta ez dutela asmorik, interesik, lana bilatzeko. Hori egia da. Baina gure artean kasu batzuk ezagutzen ditut... [Bertako] jende askok ere, guk uste baino gehiagok, laguntzak kobratzen dituzte, eta ez dute inolako asmorik lan egiteko. (M1GG).

Esan behar da ezein taldetan ez dela berariaz aipatu etorkinak egon daitezkeela bertakoenaren parekoa ez den egoera batean bizitzen prestazioak eta laguntzak izateari dagokionez, eta arazo gehiagori egin behar dietela aurre egoera administratibo irregular batean egoteagatik, erroldatu gabe, etab.

Kontuan hartzen baditugu etorkinak, oro har, laguntzez baliatzen direlako ustearekin bat datozenak, migratzaileen artean elkarri kontrajarrita dauden bi multzo ideal bereizteko joera nabarmentzen da: batzuk ekarpena egitera datoz, ez dute arazorik sortzen, eta balorazio sozial ona lortzen dute; beste batzuk, ordea, hemen dauden bitartekoez baliatzera etortzen dira, bertako langileak baino erosoago bizitzera iristen dira, eta etorkin gehienak izan daitezke ala ez, baina, nolana ere, arbuioa eta ondoeza sortzen dute, batez ere baliabide gutxien duten bertako pertsonen artean.

Lanera badator [etorkina] eta herrian aktibo badago, bada, denok gaude ados. Baina beste aukerak arbuia egiten ditugu. Aprobetxategi moduan datorren jende hori, nik diodan bezala. Ezer ez egitera, eta lan bat eskaintzen badiezu, ez zaiela interesatzen esaten dizuna. (H1GG).

Laguntza bat jasotzen duen pertsona bat, etxean, janarian... gastatu beharrik ez duena, eta seme-alabak ikastetxera doaz, eta jangelan jaten dute. Azkenean, hori esan nahi dut, horren guztiaren ondoren, beharbada, zuri baino gehiago geratzen zaio, egunsentitik gauera arte lanean aritzen bazara ere. (H2GG).

Azken lekukotasun horretan, “nazionalak hobestean” inplizituki oinarritutako beldurra ikusten da. Beldur horren abiapuntua da pentsatzea atzerritarrek bertakoek baino onura handiagoa ateratzen dutela laguntza eta ordainsarietatik batera hartuta. Oraindik orain, Arlie H. Hochschild-k “ilararen teoria”²³ esan dio prozesu horri. Ideia horrek immigrazioaren aurkako mugimenduak sortzen laguntzen du, eta hasiera batean ahulak badira ere, une egokiaren zain daude, sendotzeko eta mugimendu natibista eta xenofoboak eratzeko. Konparaziozko

²³Hochschild, Arlie Russell. (2018). *Extraños en su propia tierra. Requiem por la derecha estadounidense*. Capitán Swing.

bidegabekeriaren aurrean gaude, migrazio-fenomenoaren mobilizazio- eta politizazio-iturri moduan.

Etorkinak horrela ikusita, haien jokabidearekiko arbuiotik eta salaketatik harago, EAeko administrazio publikoaren kontrol faltari buruzko aipamenak nagusitzen dira, bereziki kontraprestazioak eskatzeari dagokionez, edo lanaren bilaketa eraginkorkiago sustatzen duten mekanismoak abian jartzeari dagokionez. Zigor-alderdia beti dago presente horrelako diskurtsoetan, eta alderdi horretan zenbait maila daude. Sakonean, indarrean jarraitzen du etorkinek laguntza sozialak jaso ditzaten nahi ez izateak, eta horretarako argudioa da sarbide pribilegiatua izango luketela babes sozialeko sistemetan, sartzeko bestelako ate zabalago bat. Horrelakoetan, pertsonak lehen eskutik ezagutzen dituztela dioten ustezko kasu partikularretara jotzen da, zeinetan laguntza bereziak izan baitira supermerkatuetan, edo etxebizitza eskuratzean, edo DBEn. Askoz sarbide errazagoa horrelakoetan, bertakoek dutena baino.

Kontrako argudio bezala esaten bada sarbide pribilegiatuak ezinezkoak direla legeak araututa daudelako, orduan, zigor selektiboaren ideia berrespen moduan, kontrol handiagoa eskatu behar dela azpimarratzen da. Neurri batean, erantzukizuna gertatu beharko ez litzatekeenetik, zeina etorkinek babes sozialean sarbidea izatea baita, administrazioaren hutsegiteetara lerratzen da, prozeduretan gogorik gabeko kontrola egiten duelako. Kasu horretan, kontrolaren ideiak zirkuitulabur eta sartzeko eskubidearen ordezkotzat funtzionatzen du.

Prestazioak tazituki zor moduan interpretatzen direnez, etorkinek edo (laguntzen) jasotzaileek noizbait nolabaiteko itzulketa bat egin beharko lukete “komunitatearentzako zerbitzu” moduan, jasotakoa ordaintzeko. Logikoki eta inplizituki, biztanleria autoktonoari ere eskatu beharko litzaioke nolabait itzultzeko jasotzen duen “laguntza/prestazio” hori, baino askoz neurri apalagoan.

Gutxieneko errentetarako sarbidea hautemateko modu hori oso zabaldua egonda ere, eta eskaera ezin gauzatuzkoa denez legearen aurkakoa izategatik, babes-sistema EAeranzko “dei-efektua” sor dezakeela ondorioztatzen da. Arabako eztabaida-taldean, esan da dei-efektua handiagoa izan daitekeela lurralde horretan Bizkaian baino, adibidez.

Eta zuk pentsatzen duzu zenbat kostatu zaizun egunean jartzea eta etengabe ari zarela lanean. Eta zure gauzak eta zure zergak ordaintzen dituzula. Eta jende hori esku bat aurrean eta beste bat atzean duela dator. . . Eta ni ez nago haiei laguntzearen aurka, kontuz!, baina dena esku-eskura jartzen diete. . . (...), jende horrek herriaren alde pixka bat lan egitea ere azter liteke. Herriko gizarte-lanetan. Ze, pentsatzen baituzu: “Lanean lehertu arte ari naiz, eta niri nork laguntzen dit?” (MIGA).

“Alderantzizko hobespenaren” ikuspegia presente dago uneoro: “egunean jartzea kostatu zaizunarekin eta, gainera, etengabe lanean. Eta zure gauzak

eta zure zergak ordaintzen dituzula”. Ideia horren arabera, autoktonoa izatea kaltegarria da, *de facto* zigortzen zaituelako. Horrelako iritziek kontraesan batzuk sortzen dizkiete hala pentsatzen dutenei: “Eta ni ez nago haiei laguntzearen aurka, kontuz!, baina dena esku-eskura jartzen diete...”. Izan ere, logika hori muturreraino eramanda, gogorra da benetan, baina arindu daiteke aurreratu dugun ideiarekin: “... jende horrek herriaren alde pixka bat lan egitea ere azter liteke. Herriko gizarte-lanetan. Ze, pentsatzen baituzu: “Lanean lehertu arte ari naiz, eta niri nork laguntzen dit?””.

“Lanean lehertu arte ari naiz, eta niri nork laguntzen dit?”. Datu demoskopikoek adierazten digute iritzi mota hori oso zabaldua dagoela EAEko gizartean. Baina ez da EAEkoa bakarrik, “ezer jarri ez duen mahaikidearen” metafora, edo “espero ez zenarena” edo “ez-legitimoarena” unibertsala baita. Edozein herrialde hartzailetan metafora nagusia da, eta gainerakoak haren mende daude. Abiapuntuko ustea da etorkinek ez dutela lagundu etekinen aurretiazko metaketan, baina iragazketaren une egokian iristen direla (*trickle down*), “jarioarenean”, etekinez “bidegabeki jabetzeko” unean.

Arlie R. Hochschild -en arabera, gogoeta honetara iristen da:

“atzerritarra zara zure herrian”, zugandik espero den guztira mugatzen zarelako, baina beste pertsona batzuek txanda pasa egiten dute, eta ez dituzte errespetatzen zure gizartean bidezko helburuetara iristeko ezarritako bitartekoak. Zu bezala luzaroan zain egon direnek eratutako ilara errespetatzen duzu, lehertzen zara lanean, eta ilarak ez du ia aurrera egiten. Azkarrago aurreratzea merezi duzu. Pazientzia duzu, baina nekatuta zaude. Aurrean dagoen horretan zentratzen zara: jada gailurrean daudenetan. Amets amerikarra aurrerabidearen ametsa da, zure arbasoena baino egoera hobean zaudelako ideia, haiek, lehenago, beren arbasoena baino egoera hobean egon ziren bezala. Dirutik eta jabetza materialetatik harago dago. Lanaldi amaiezinak jasan dituzu, kaleratzeak, produktu kimiko arriskutsuen eraginpean egon zara, eta pentsio urria jasotzen duzu. Zure goratasun morala erakutsi duzu, egoera erabakigarri horiek guztiak gaindituta, eta amets amerikarra, segurtasuna, horren guztiaren ordaina da. Ohorearen intsignia da, nor izan zaren eta nor zaren argi uzten duena.

Baina... ikusi hori! Txanda pasa egiten ari dira! Zuk arauak betetzen dituzu eta haiek ez: txanda pasa egiten dute, eta atzerantz ari zarelako sentsazioa duzu. Nolatan egin dezakete hori? Nor dira? Batzuk beltzak dira. Gobernu Federalak bultzatutako diskriminazio positiboari esker, lehentasuna dute tokia lortzeko unibertsitate publikoetan eta goi-mailako beste ikastetxe batzuetan, praktikak egiteko programetan, lanpostuetan, edo subsidioak jasotzeko, eta almortzua dohain...; eta, geroago ikusiko dugun bezala, leku sekretu bat betetzen dute jendearen buruan. Emakumeak, etorkinak, iheslariak, funtzionario publikoak... noraino iritsiko da hau? Zure dirua

kontrolatzen ez duzun eta ados ez zauden erruki liberaleko hustubide batetik galtzen ari da: zuk gozatu beharko zenukeen hasten ari zinenean. Baina ez zen hala gertatu; orduan, zergatik gozatuko dute haiek? Ez da bidezkoa.

Errukiorra zara, baina zure errukia txanda pasa egin dizuten guztiengana heldu arte handitzeko eskatzen ari zaizkizu. Ezin da izan.

Atzerritarra zara zeure herrian. Besteek zugan zer ikusten duten, horretan ez duzu zeure burua ezagutzen. Ikusia eta prestua izateko borroka bat da. Eta prestua zarela sentitzeko, aurrera egiten duzula eta gainerakoek ikusten dutela sentitu behar duzu. Baina zeure buruari ezin egotz dakioken arrazoiren batengatik, eta askotan hautematen ez diren zioengatik, atzerantz egiten ari zara.²⁴

Pertzepzio- eta argudiatze-ildo horretan guztian, geroagoko urrats batean kontrajarrita agertzen dira gizartearen sentimendua eta Administrazioarena, edo, zabalago ulertuta, politikarena. Balirudike gizarteak ez duela nahi babes sozialeko politikarik, inposizio politikoa baizik, etorkinek eskubide sozialak izatea “Administrazioari pixka bat lotuta doa” eta. Horri dagokionez, garrantzitsua da egiaztatzea ezen, eskura dauden aldizkako edo behin-behineko datu demoskopikoen arabera, EAEko iritzi publikoa nabarmenkiago dela DBE mantentzearen aldekoa, eta edukitzeaz harro dagoela.

Hori pixka bat Administrazioari lotuta doa. Hots, dei-efektua dago beraien artean, Málaga kostaldera iristen direnen, EAERA etorri nahi dutelako. Obsesio nagusia garraio bide bat hartzea da hona iristeko. Badakitelako Cuencan, Albaceten edo Guadalajaran gosez hilko liratekeela. Beraien artean dago “dei-efektu” hori, badakite eta EAERA badoaz han 1.100 euro emango dizkietela hilabetero, bai eta alokairuak ere. Bat edo bi datoz aurrelari moduan, eta gero gainerakoei esaten diete. (H1GB).

Denok badakigu zergatik bizi diren Araban, Artziniegan edo Laudion, eta arrazoa da laguntza sozialak handiagoak direla Araban Bizkaian baino. (H2GA).

DBEri lotutako erakartzeko ustezko trakzio-faktorea eta migrazio-prozesuen “metaketa-jarioko” funtzionamendu normala nahasiz azaltzen da dei-efektuaren mekanismoa: “bat edo bi datoz aurrelari moduan, eta gero gainerakoei esaten diete”. Araban laguntzak ugariagoak izateari buruzko aipamenaren aurrekari izan liteke “Maroto afera”, bai eta, inplizituki, magretar biztanleen presentziaren proportzioa handiagoa izatea ere. Orduko alkate Javier Marotoren proposamenek DBE prestazioa indartu egin zuten, ahuldu beharrean, tazituki behartu baitzituen esplizitatzera EAEko gizartean inplizituki baina adierazi gabe zeuden babesak.

²⁴*Ibidem*, 206. or.

Kontrola gabe, etorkinen sustapen sozial eta laborala lehenesten duen ikuspegi batetik, nabarmentzen da, indar gutxiagorekin bada ere, zeinen garrantzitsua den prestazioetatik eta laguntza sozialetatik harago joatea, eta laneratzen eta etxebizitza lortzen laguntzen duten neurriak eskaintzea, integratzeko funtsezkoak direlako. Bestela esanda, laguntza sozialek gehienez ere abiapuntu moduan balio dute, baina pertsonen betebeharra, are gehiago etorkinena, laneratzea izan behar du, DBEn ezartzea “baino gehixeago”.

Uste dut laguntzak oso garrantzitsuak direla hutsetik hasteko, funtsezkoak. Baina, era berean, uste dut laguntza horiekin batera beste neurri batzuk ere hartu beharko lirakeela, jende horrek lana eta etxe berria aurkitu eta benetan integratzeko aukera izan dezan. Laguntzak hasiera dira, baina hor geratzen gara. Eta gehixeago izan behar du. (MIGG).

Gure interesen ikuspuntutik, gutxieneko errentei lotutako eztabaidak eta pertzepzioek bi alderdi bateratzen dituzte. Bata, sozialagoa, haien existentziari eta hartzaileei buruzkoa da. Bestea, teknikoagoa, haien antolaketari eta helburuei buruzkoa. Gutxieneko errentak edo finalistak dira edo bitarteko iragankor bat, helburu jakin bat lortzeko: lanean egoera hobean berriz hastea. Gutxieneko errentak laneratzeko bide moduan ulertzeko era horrek eragin handia du, publiko zabalak beti ulertzen ez badu ere. Eztabaidatzen da bi eskubide independente diren ala ez, laneratzeko eskubidea eta babes sozialerako eskubidea, edo elkarrekin erlazionatutako eskubide bikoitz bat den, babes-eskubidea berezko berme moduan eta laneratzeko berme moduan. Eztabaida tekniko eta politiko horren oinarrian dagoen ideia da DBE errenta une biografiko iragankor baterako irtenbidea dela, eta hartzailea laneratze “normalizatuaren” zain dagoela, bitartean egoera arintzen dion errenta bat jasoz.

Gutxieneko errenta, orokorrean, pertsona aktibagarrien laneratze unibertsala posible delako ideiatik abiatzen da. Hala ere, iritzi batzuek bi egoerak zedarrizten dituzte, eta uste dute etorkizuneko lan-merkatua eskusogenoa izango dela berez, eta DBEk ematen duen babesa aktibaziotik bereizten dute. Eztabaida horietan guztietan, nahasketa handia izan ohi da, eta ez dira bereizten DBE eta gisako gutxieneko errentak eta oinarritzkoak, baina hori ez da debate honen xedea; bai, ordea, nola antolatu DBEekin erlazionatutako eskubide bikoitza. Zeharka, debate honetan, etorkizuneko gizarte laborala nolakoa izango den eta zer gizarteratze-maila ahalbidetuko duen da auzigaia. Horregatik guztiagatik, lehen aipatu dugun zigor-ikuspegiak berekin dakar gogoetatzea ea pertsonen babestuak izateko eskubidea duten, laboralki “lankidetzan” aritzen ez badira gizartean eta gizartearekin.

Indarkeria eta delinkuentzia

Indarkeriaz eta delinkuentziaz hitz egitean, berriz ere agertzen da honako hauek bereizteko joera: alde batetik, ekarpena egiten duten etorkinak, lan

egiten dutenak edo, hitz batean, EAEko gizarteari balio dion zerbitzuren bat eskaintzen diotenak; eta, bestetik, delituak egiten dituzten etorkinak...

Nik... taberna batean dagoena, fruta-denda batean, pintorea dena, laudatu egiten dut, lan egitera etorri delako. Eta, gainera, langileak dira. Eta jende hori, bai, hartu egin behar da. Baina beste gauza bat da... zera, ni [herriko erdialdeko] etorbidean bizi naiz, eta hor aterpetxe bat dugu. Eta, ziur aski, hortik igarotzen denak ez du ikusten, baina nik bai zer jaisten den horretatik. Ikusten dut nor eta nola jaisten den. Orduan, esan dudan bezala, jende hori... Izan ere, gainera, lagunak eta ezagunak ditut, amonaxoak zaintzen ari direnak, eta txapela kentzen dut haiengatik... Baina ez zait gustatzen bestelako jende hori; egunero ikusten dut, hor aurrean ditugun bizikletak hartzera dator, Udalarenak... Eta deskuidatuz gero..., hemen askotan gertatzen ari da azkenaldian lepotik indarrez tira eginda lapurtzea. Eta hori ez zait gustatzen (...) Izan ere, pakistandarrengana joaten naiz erosketak egitera; nik hala esaten diet; hemen dagoen frutategi bat da. Zoragarriak dira. Ez baitut ezer jende horren aurka. Baina aurka..., hamabi edo hamalau kideko talde horien aurka nago; gaztetxoak dira, eta beldurra ematen dizute. (M2GB).

Aipu horrek gizartean zabaldutako sentimendu baten zati handi bat laburtzen du, behin eta berriz moztuta diskurtsoaren adierazpen etenez betean, etorkinei buruz aritzeko kalifikatiboen edo substantiboen zehazgabetasunarekin, migratzaileak berezita egiten duten ekarpen laboralaren arabera, enplegurik gabeko gazteak delituzko jardunei eta sortzen duten beldurrari lotuta, etorkin on eta txarrekin (pakistandarrak, adibidez). Hitz batean, ikuspegi anbiguala bat, "laboralizatuen" gainera ikuspuntu positiboa ("laudatu egiten dut", "txapela kentzen dut haiengatik") laboralizatuta ez dauden gainera ikuspegi oso negatiboarekin nahasten duena ("ikusten dut nor eta nola jaisten den hortik", "baina ez zait gustatzen bestelako jende hori...", "hemen askotan gertatzen ari da azkenaldian lepotik indarrez tira eginda lapurtzea", "hamabi edo hamalau kideko taldeak; gaztetxoak dira, eta beldurra ematen dizute"). Zentzuzkoa da pentsatzea ikuspegi negatiboa positiboari gailentzen zaiola, edo, gehienez ere, diskurtsoa ez dela zero baturakoa. Horrelako lekukotasunetan, immigrazioari buruzko ziurgabetasun- eta onartezintasun-hondar bat geratzen da, immigrazioarekiko interakzio positiboaren gainera aipamenekin batera.

Etorkinen eta gatazken artean ezartzen den erlazio horretan oinarrituta, lekukotasun gehienek gizonezko nerabe edo gazteengan jartzen dute arreta. Batzuetan, bakarrik dauden adingabeak, zentroetan bizi direnak aipatzen dira, eta beste batzuetan, berriz, familia etorkinen semeak, eta gazteen gaueko aisialdiko indarkeria- eta delinkuentzia-kasuak eta indarkeria matxista nabarmentzen dira. Arauaren laxotasuna kritikatzeko da, bereziki adingabeei dagokienez, eta beldur-sentimenduak partekatzen dira, norberari baino areago semei eta, batez ere, alaba gazteenei gerta dakiekeenagatik. Era berean, etorkinen praktika kulturalak bertan jaiotakoena baino biolentoagoak direlako ustean oinarritutako iruzkinak daude.

Batzuetan entzun diet bezeroei alabak gauzez ateratzen direla, eta beldurrez. Laguntalde arraroak elkartzen dira. Lehen [Gipuzkoako herri bateko gune zehatz batean] parranda egitera ateratzen nintzen, baina beste muturrean bizi nintzen, eta bakarrik itzultzen nintzen goizeko bostetan. Orain ezinezkoa da. Orain ezergatik ere ez diozu uzten alabari bakarrik bi kilometro oinez joatea. (M3GG).

Adingabeen zentroetara eramaten dituzte, inork ez ditu kontrolatzen, eta zentroetan ez dago behar bezain ongi prestatutako behar adina langile... Polizia, Ertzaintza, ate batetik sartzen dituzte, eta izapideak egiten amaitu orduko, besteek hamar minutu daramatzate kalean. Izan ere, gaztetxo horiei, ze, gainean, zortea dute, adingabeak dira... ezin zaie ilerik ukitu, ezer ere egin. (M1GB).

Eta borrokak daude gauero. Nire seme-alabek, ateratzen diren bakoitzean, esaten didate ez dakit non istiluak eta halakoak izan direla. Beraien artean ere bai askotan. Baina botilakada bat eman eta buruan jotzeko edo ez dakit zer... Nik uste dut etorri diren etorkinak baino gehiago, gurasoak, semeak direla. Eta ez da gauza bera. Ezagutzen ditut guraso batzuk adinekoekin lan egiten ari direnak, eta semeek parranda egin baino ez dute nahi, eta dirua ematea parrandan ibiltzeko (...) Familia berriz elkartzera edo ez dakit nola esaten dioten. Seme-alaba guztiak ekartzen dituztenean hasten dira arazoak. Bat-batean, semeek parranda egin nahi dutenean, eta beren herrian daudela pentsatzen dutenean. Eta jende horren parranda gurearen oso bestelakoa da. Gu mozkortu egiten gara, bazter batean botata geratzen gara, eta ez dugu molestutzen. Gehienek; guztiak santuak garela ere ez baitut esango. (H2GG).

Guztiarekin ere, saio bakar batean ere ez da esan immigrazioa, oro har, bizikidetzaz-arazoa edo gatazka sozial garrantzitsua denik gaur egun EAEn, kasu puntualak alde batera utzita, eta nerabeen eta gazteen artean gertatutako indarkeriaren eta delinkuentziaren aipatu areagotzeari buruz duten pertzepzioaz den bezainbatean.

Familia-berrelkarketak gehiago hausnartzea behar du, EAEn migrazioaren oso alderdi garrantzitsua delako. EAEko immigrazio-ereduaren zati handi bat eredu gero eta feminizatuago batean oinarritzen da, zeinak, ondorio logiko moduan, planteatzen baitu zer politika baliatu behar den familia-berrelkarketaren esparruan, atal horren eskumena EAEn izan gabe ere. Prozesu horrek jatorrian ez zituzten gabezia erlatiboko arazoak agerraraz ditzake ondorengoengan. Amek egiten dituzten bidalketa ekonomikoek helmugan eskura ez dauden zerbitzuak eta ondasunak jatorrian eskuratzea ahalbidetzen dute, eta frustrazioa eta nekezago egokitzea eragin ditzakete. Baliteke egia izatea egoera horiek eragina izan dezaketela nerabeen portaeretan, aurrez nork bere egindako aspirazio-ibilbidea zapuztuta ikustean, baina ezin dira hortik automatikoki ondorioztatu delituzko jokabide batzuk, “gazte etorkinen parrandaren” ideia bitartez iradokitzen den bezala.

Bestalde, interesgarria da ohartzea nola soka mutur batetik tenkatzen denean (“Gu mozkortu egiten gara, bazter batean botata geratzen gara eta ez dugu molestutzen”), esku hartzen dutenek bestetik kontrapisatu beharra dutela (“Eta jende horren parranda gurearen oso bestelakoa da”, “Gehienek; guztiak santuak garela ere ez baitut esango”).

Ez dugu berdin balioesten. Jatorriaren, dedikazioaren, generoaren eta adinaren arabera aldeak

Ongien balioetsitako etorkinen kolektiboa emakumezko latinoamerikar helduena izan ohi da. Gizarteratzeko daukaten gaitasuna, sinpatia... nabarmentzen dira, bai eta, azkenik, eta beharbada garrantzitsuena, etxeko langile eta zaintzaile moduan egiten duten lana ere. Ildo berean, adineko pertsonak zaintzen diharduten emakumezko errumaniarrak ere balioesten dira.

[Emakumezko latinoamerikarrak] Askoz integratuago daude etxez etxeko edo adinekoenganako laguntzaren gaian. Eta uste dut horrela integrazio-kultura askoz errazagoa dela (...) Eta, hori, jarrera desberdina dutelako. Lehenik eta behin, hizkuntzak du eragina horretan, baina, gainera, askoz harkorrakoak dira. (H2GA).

Jende ona ere badago. Eta, gero, askotan, adinekoak zaindu nahi ditugunean, haiek baliatzen ditugu. Adinekoak zaintzeko, hegoamerikarregana jotzen dugu, badakigulako prest daudela zaintzeko (...) Bada, hori, hiru neska gazte hegoamerikar datozkit, eta maitasuna hartzen diet. Niretzat, borrokatzera datorren jendea da. (M3GG).

Hainbaten ahalegina ere aitortzeko joera dago: bilketan edo industria-jarduera astunetan (hiltegiatan, adibidez) lan egiten duten afrikar jatorriko gizonena; eraikuntzan diharduten errumaniar jatorrikoena; eta asiar familia batzuen, pakistandarrena, adibidez, elikagai-denda txikiak baitituzte (fruta-dendak...).

Hori da berme laborala. Ongi hartua da lanerako jarrera argia duen immigrazio oro; izan ere, Ikuspegik bere barometroa egin duen urte guztietan frogatu ahal izan den bezala, egoera erregularizatzeko, finkatzeko, integratzeko eta onartuak izateko ateak igaro-baimen laboralarekin irekitzen dira. Horri dagokionez, pakistandar jatorriko biztanleak ondo hartuak dira, oro har asiar guztiak bezala, unibertsean hautematen delako egiten duten lan-ekarpena, eta ebidentzia horren aurrean men egin beharra dago. "Eta, gainera, errespetu osoa merezi dute, egia delako lan eta lan egiten dutela" dio eztabaida-taldeko pertsonak. Aitortze horren ondorio da distantzien txikitze afektiboa: "eta mutiko horiei fruta erostera noa" (letra etzana gurea da). Zati horretan, mutiko hitza erabiltzeak hurbiltasuna, afektua eta estereotipoa murriztea esan nahi du, ezaugarri nagusia mantentzen delako, aitortzearen onargarritasuna eragiten duena, etorkin onarena: lan egitera, ekarpena egitera datorren pertsona, eta zurikerietatik eta/edo ezin onartuzko jokabideetatik urrun dagoela ikusten zaiona. Gau eta egun lan egiten du; beraz, ekarpena egitera dator.

Fruta-denda batean hamabi ordu lanean ematen dituen pakistandar bat. Eta mutiko horiei fruta erostera joaten naiz. Eta, gainera, niretzat errespetu osoa merezi dute, egia delako lan eta lan egiten dutela. (M2GB).

Ikusten dugu txinatarren komunitateari eta merkataritza-jarduerari buruzko iritzia eta pakistandarrei buruzkoa desberdin samarrak izan daitezkeela. Azken horri gardentasunaren, ezkutuko elementurik ezaren betaurrekoekin

erreparatzen zaio, baina txinatarrek oraindik ere misterio-aura bat dute atzetik. Txinatar jatorriko eta/edo etorkiko biztanleei buruzko anibalentzia hori iragazgaiztasun sozialean, eguneroko kontuez ezer ez jakitean oinarrituta dago, eta, beraz, mesfidantza latente baten emaitza da, haien portaera desfizratzeko kodeen berri ez izategatik. Ez da ukatzen egozten zaizkien balio kolektiboetako bat bera ere, EAEn laudatzen direnak baitira, lanerako gogoia batez ere, baina ezezaguna da haien dendaoste soziala, eta nolabaiteko errezeloa eta jakin-mina dago haien eguneroko bizitza dela-eta. Adibidez, Gipuzkoako eztabaidataldean, daukaten lan-gaitasuna, diziplina eta austeritatea balioesten dira, baina, era berean, haien funtzionamendu-dinamikekiko nolabaiteko mesfidantza adierazten da, hermetikoak eta sekretu samarrak direla iritzita. Aldeko tasun askok ezaugarritzen dituzte txinatarrek, endotaldean balioesten diren berak normalean, lanerako gogoan, seriositasunean eta austeritatean ardaztuta. Bestalde, ezaugarri horiek berak goganbehar-iturri dira. Ikuspegik egindako inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoak paradoxa hau jasotzen zuen: txinatarrek, estrukturaliki, oso ondo integratuta daude, baina komunitate moduan auto-bereizita daude. Nolanahi ere, talde-hurbilketa eta interakzio handiagoa ikusten dira, eta badirudi txinatar jatorriko pertsonen buruz normalean indarra zuten estereotipoak ahultzen ari direla, eta ez dutela orain dela urte batzuetako trinkotasuna. Eta hala, zergak ordaintzeari edo ez ordaintzeari eta kokatzeko erraztasunein (hau da, oso zabaldua dauden bi estereotiporin) buruzko guztia indarra galtzen ari omen da, txinatar jatorriko biztanleen jardun komertzial gero eta sendoago eta profesionalizatuagoen eta aitortzen zaizkien jarreraren ebidentziaren aurrean.

Nik txinatarrez entzun dut ez dutela inoiz mailegurik eskatzen, eta elkarri laguntzen diotela. Adibidez, ni, saltzailea bainaiz lehen esan dudana bezala, jatetxe txinatarren batekin lan egiten badut, ez daukat inolako zalantzarik ordainduko didatela. Ez dute zorrik uzten. Beraientzat ordaintzea lehentasunezkoa da. Orduan, alde horretatik ez dago arazorik. Nola ateratzen dute dirua? Niri zera esana didate, elkarri laguntza eskatzen diotela, eta horrela moldatzen direla. Eta lan asko egiten dute. Horregatik esaten da txinatar batek baino gehiago lan egiten duzula. Ordu asko eta asko ematen dituzte lanean, eta ez dute gastatzen; oso bizimodu soila dute. Eta horrela funtzionatzen dute. (H1GG).

Lanerako gogoia, austeritatea, seriositasuna transakzio ekonomikoetan, “ordaintzaile onak” izatea: gainerako estereotipoek ezinbestean egiten dute talka ezaugarri horiekin. Estereotipo horiek indartzeko uneren batean zabal daitezkeen diskurtsoak gorabehera, dudarik ez dago: “Lan asko egiten dute. Horregatik esaten da txinatar batek baino gehiago lan egiten duzula”. Baliteke distantzia kulturala, barnerakoitasuna, hurbilgaiztasuna handiak izatea, baina egitateak adierazgarriak dira, eta onarpena, zeharka eta gogoz bestera, bidea egiten ari da.

Solaskideari burura etorri zaio (“orain gogoratu naiz...”) estereotipo asko zeudela negozioak jartzeko eta mantentzeko barne- edo kanpo-laguntzei buruz, baina, egun, zaila da ikuspegi horiei eustea, eta horregatik erantzun du: “... ez dakit

hori egia edo gezurra den. Ideiarik ez ez dut". Zalantza hori sinesgaiztasunera lerratzen da estereotipoekin. Ezaguna da zer mekanismo soilen bidez bihurtzen ziren talde-barruko bertuteak taldetik kanpoko bizio, baina gaur egun, txinatar jatorriko herriarekin, ematen du gero eta zailagoa dela "alkimia moral" — Merton-ek esaten zion bezala—horri eustea.

Ez, orain gogoratu baitut txinatarrak "Dena ehunera" denda horiek irekitzera etorri zirenean beti esan izan dela, eta nik ez dakit egia ala gezurra zen, ez zutela zergarik ordaintzen, eta hala. Eta lokal bikainak hartu dituzte, oso handiak, eta ez dakit zergak ordaintzen dituzten ala ez. Ez dakit hori egia ala gezurra den. Ideiarik ez ez dut. (M3GG).

Gutxien balioetsitako etorkinen kolektiboak, alde batetik, delinkuentziari eta kriminalitateari lotutakotzat jotzen direnak dira: lehen aipatutako gizonezko gazteak edo nerabeak, zeinak marokoar eta aljeriar moduan identifikatu ohi dira, eta prostituzio-sareei lotutako errumaniar "mafiak" direlakoak; eta, bestetik, gutxien integratutzat eta laguntzak eta prestazioak jasotzeari gehien lotutakotzat dauden kolektiboak, hala nola marokoarrak.

Arabako eztabaida-taldeak komunitate musulmanari buruz dagoen iritzi txarra nabarmentzen du, oro har bereziki endogamikoa eta kulturalki desberdina, aurkakoa dela eta lanik ez egiteko eta "laguntzez baliatzeko" joera duela pentsatzen baita. Baina ñabardurak eta salbuespenak ere egiten dira. Arrazakeria modernoan, arbuioa eta xenofobia giza talde jakin batzuen ustez funtsezko eta aldaezinak diren ustezko ezaugarri kultural batzuen gainean eraikitzen dira. Arrazakeria jada ez dago oinarrituta joera biologikoko elementuak oinarri dituen arrazaren eraikuntza hartan; baina helburu beretarako, estereotipazioa eta diskriminazioa, desberdintasunen biologizaziotik kulturalizaziora aldatu gara. Bi kasuetan, jokabidea eraginkorra da eta desberdintasun-sistemak zilegiztatzeko erabiltzen da.

Ikuspegiren azterketetan agertzen den ebidentzia eztabaida-taldeetan berresten da, eta ikusten da EAEko gizarteak Ipar Afrikako biztanleen oso irudi txarra duela, gutxien balioetsia delako, baina, era berean, parte-hartzaile batzuek bide erdi-zuhur bat proposatzen dute, haien presentzia hutsa estereotipo mordoa barreiatzeko iturria baita: ez dira erlazionatzen, mesfidantza, ezezagutza, pertsona langabeak, alferrak...("... marokoarrak, aljeriarrak edo direnak direlakoak, ezer egin gabe ageri direlako, ageri direnean..."). Ezer ez egite hori konpondu beharko litzateke, eta aktibatu beharko lirateke; izan ere, laguntzak jasotzen badituzte, "zerbait egin lezakete".

Jatorri arabiarra edo musulmana dutenei dagokienez, harreman gutxi daukat. Eta jeneralean ez dute harremanik izaten. Esan duzuen, harreman gutxi dutela. Eta esan duten bezala ere, mesfidantza edo ezezagutza dago, marokoarrak, aljeriarrak edo direnak direlakoak, ezer egin gabe ageri direlako, ageri direnean... Eta zerbait egin lezakete, laguntzak jasotzen badituzte... (H3GA).

Magrebtarren kasuan, oraingo honetan musulman direnen kasuan, ez du balio izaten kolektiboari buruzko ikuspegi txarrari kasu indibidual eredugarrien bidez aurka egiteak. Badaude “pertsona on-onen” estatusen sartzen diren musulmanak, baina “arau orokorra nahiko txarra” da: ez dira integratzen, besteren kontura bizi dira, asozialak dira, interakzioaren noranzko bitasuna hausten dute, itxikeria, etab.

Lagun musulmanak ditut, eta oso pertsona onak dira. Eta, gero, horrelakoak ez diren beste batzuk ezagutzen dituzu. Baina arau orokorra nahiko txarra da (...) esaten da ez direla integratzen, besteren kontura bizi direla... (...) Urte askotan kirol anitza eman diet hurrei, eta guztiak etortzen ziren (...) eta neskato mairuez ere ari naiz, neskato musulmanez (...) Bazenekizkien haien arauak eta neskatoa neskato batekin jarri behar izaten zenuen. Haiek berek dute arau hori, eta oso txikitatik zorrotz betetzen zuten. Eta gainerako ama guztiak hitz egiteko elkartzen ziren. Baina haur horien amak ez. Ez ziren beste inorekin erlazionatzen. Etorri, haurrak hartu eta joan egiten ziren. Harremana izateko ere ez zuten ezer egiten. Nik uste dut beste herri batera zoazenean, zerbait jarri behar duzula zure aldetik. Hizkuntza eta gauza guztiak oso zailak izanagatik ere, pixka bat irekiagoa izan behar duzu. Nik uste. (M2GA).

Lekukotasun interesgarri horretan, ikusten dugu ezaugarri horiek kolektibo osoarentzat balio dutela, neskato musulmanek ere gabezia horiek dituztelako. Aldekoago zer pentsa daiteke hurrek eta neskato batzuek taldearteko irekitasunerako nolabaiteko enpatia piztea baino? Baina kasu horretan ere ez da posible hurbilketa. Pasartean aipatutako neskato musulmanek behin betiko berresten dute kolektiboa itxia dela, ezin integratuzkoa, ez duela interakziorik izaten eta EAEko gizartetik kanpo eta kontura bizi dela. “Bazenekizkien haien arauak eta neskatoa neskato batekin jarri behar izaten zenuen. Haiek berek dute arau hori, eta oso txikitatik zorrotz betetzen zuten”.

Horrelakoetan, ezin hitz egin daiteke oinarritzko ez-jakite batzuek, hizkuntza ez jakiteak, adibidez, zaildutako soziabilitate batez, interakzio kolektiborako edozein zubi hasieratik tratatzen delako, ezinezkoa izateagatik. Frogatu beharraren zama magrebtarren kolektiboan (musulmana) ezartzen duen ikuspegi horrek bertan jaiotako herritarrak ahalegintzeko erantzukizunetik libre uzten ditu, eta ikuspegi horretan hori etengabe aipatzen da: “Eta gainerako ama guztiak hitz egiteko elkartzen ziren. Baina haur horien amak ez. Ez ziren beste inorekin erlazionatzen. Etorri, haurrak hartu eta joan egiten ziren. Harremana izateko ere ez zuten ezer egiten. Nik uste dut beste herri batera zoazenean, zerbait jarri behar duzula zure aldetik. Hizkuntza eta gauza guztiak oso zailak izanagatik ere, pixka bat irekiagoa izan behar duzu. Nik uste”.

Azken esaldia, hizpide dugunari dagokionez, erabatekoa da, “nik uste” soil horrek kosmobisio oso bat laburbiltzen duelako, exotaldea erruztatzen duena, eta endotaldea, berriz, errugabetzen. Hala ere, mailaketa txiki batzuk egin daitezke erantzukizun-continuum horretan, gizonezko heldu musulmanak direlako alde horretatik gutxien balioetsiak, aitortzen delako emakumezko heldu musulmanen inplikazio komunitarioa, mugatua bada ere, gizonezkoena

baino handiagoa dela. Era berean, belaunaldi berriek harremanak izateko eta integratzeko duten gaitasuna aipatu da. Hizkuntza arruntan, esan liteke magrebtar emakumeek eta belaunaldi berriek “oraindik” baimena dutela EAEko biztanleen imajinarioan, baina kolektibo magrebtar/musulmaneko gizonak ezin berreskuratuzkotzat jotzen direla.

Kolektiboaren pisua emakumeen gainean dago, eta gizonak ikusezinak dira: “gizonak ez direlako agertzen”. Eta azaltzen badira, taldean egoteko da, eta erabakiak hartzeko laguntza sozialei buruzko kontuetan edo erreklamazioak egiteko. Kasu horretan, leporatzen zaien integratzeko ezintasunarekin batera, zeinak konpontzeko nahita egin lezaketen oro gainditzen baitu, daukaten egitura matxistari buruzko zeharkako erreferentzia dela-eta ezinezkoa da lotura sozialki produktiborik ezartzea, eta, gehienez ere, gizarte- eta eskola-interakzioaren bidez hurrengo belaunaldietan izan litzaketen harremanetara arte geroratu beharko dira. Badirudi gertagarriagoa dela bigarren eta hurrengo belaunaldien egiturak egitura hartzailearekin interakzioa izatea eta elkar ezagutzea. Zuzenean ezarritako belaunaldia, ordea, gizonak bereziki, amortizatutzat jotzen dela ematen du. Aurrez ezarrita dauzkate harremanak beretik eman dezakeenaren mugak.

Gero, beste gauza bat ere ikusten dut. Kolektibo musulman horren pisu guztia emakumeen gainean dago. Gizonak ez direlako agertzen. Eta ikusgai daudenean, soil-soilik azaltzen dira taldean egoteko, ez dakit zer erabakitzeko laguntza sozialen arloko kontuei buruz (...) astegun batean biltzeko zain baino ez daude, gizarte-laguntzailea datorrenean, beti erreklamazioez eta antzekoez aritzeko. (H2GA).

Nik uste dut nagusien arteko harremanak oso zailak direla. Eta oso zaila dela hori aldatzea. Gogoratzen ari nintzen orain dela urte batzuk neskato eta mutiko batzuk zeudela, musulmanak batez ere, jolasten aritzen zirenak, baina hemengoengandik berezita zeuden. Hala ere, nire ustez, orain gehiago nahasten dira. Badirudi hori prozesu bat dela, pixkanaka doana, eta batez ere eskoletatik. Elkarrekin egonda, harremana hobetuz doa. (H3GA).

Deskribapen hori marokoarren edo magrebtarren artean prototipikoa den laneratze eta gizarteratze falta bereziari buruzko iruzkinekin larritzen da, eta, ildo horretan, emakumeen kasua bereizten da, eta aintzat hartzen zer muga izan ditzaketen enplegua lortzeko, dela egozten zaizkien eta lan-esparruan sartzea eragozten dieten eredu kulturalengatik, dela estigma autoktonoagatik. Ulertzen badugu “laneratze eta gizarteratze falta berezia” dagoela eta “marokoarren edo magrebtarren artean prototipikoa” dela, biztanle horiek ez lituzkete izango Latinoamerikatik, Asiatik eta are Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozen biztanleen ezaugarri diren konparaziozko abantaila guztiak. Laneratze eta gizarteratze falta hori “berezia” da, desegokitasun funtzionala bezala soziala ere. Funtzionala, ez delako egokitzen EAEko jarduera-egiturak konpondu beharreko premia instrumentaletara edo laneko hutsuneetara. Soziala, ez dituelako atzerritar etorkiko gainerako biztanleengan balioesten diren jarrerak: lanerako gogoia eta prestasuna. Magrebtarren/musulmanen kolektiboak ez omen ditu gaitasun eta jarrera horiek, eztabaida-taldeetan esandakoaren

arabera. Horri guztiari estereotipo ohikoenen multzo kulturala gehitzen badiogu, harremana izateko, laneratzeko eta gizarteratzeko aukerak asko murrizten dira, are gehiago emakumearen kasuan: “taldeak” lan egitea eragozten dion emakumezko marokoar “gutziz estali” bat lana eskatzen irudikatzeak arbuioa are estetikoki ere berrestera baino ezin gaitzake eraman. Arbuio estetiko hori haien kulturaren in toto inpugnazioa da. Azkenean, magrebtarren kolektiboek duten eta daramaten kulturak eragozten die integrazioa, are hartzaileen “jarrera” teorikoki “irekia” izanda ere. Hala ere, ez dugu alde batera utzi behar deskribatzen diren egoera horiek batzuetan muturreraino eramandako topikoz beteta daudela. Horrelako interakzioetan kartak markatuta daude, pertsonen arteko elkartzak baino areago topikoen arteko kontaktuak direlako, eta aurrez ezarrita dagoena tipikoki baino ezin delako garatu: aktore tipikoen portaera tipikoak testuinguru tipikoetan.

Nik uste dut ekuadortar emakume batek jotzen badizu txirrina lana eskatzeko, edo emakumezko beltz batek, nolabait esateko, edo erabat estalitako emakumezko marokoar batek, ekuadortarra aukeratzan duzula. Zergatik ez dira ikusten emakumezko magrebtarrak lan egiten? Bada, segur aski, lehen kontu kulturalaz esan duzuenagatik, bai baliteke ez uztea, baina, lan bat ematean, nire ustez, estetika eta kultura horrekiko arbuioa begi-bistakoa delako ere bai. (MIGG).

Alde horretatik, ikusten dugu batzuetan arrazakeria kultural edo dotore bat sortzen dela, eta horren ondorioz pertsona multzo oso heterogeneo eta konplexu bat –ez dezagun ahantz herrialde desberdinei buruz hitz egiten ari garela, eta horien barruan aniztasuna dagoela– kultura kontzeptu esentzialista, ahistoriko eta itxi batean sartzen dela. Pertsona horiek, horregatik, desgaituta geratzen dira; haien desberdintasuna gainera ezin ken dezaketen esentzia bat da. Hori da Europako gure gizarteetako fundamentalismo kulturala, EAEko gizartean ere dagoena. Eguneroko azalpen arruntenetan politikotzat edo ekonomikotzat jotzen diren elementuak kontu kulturaltzat hartuko dira mundu musulmanaren kasuan. Erretorika horrek desberdintasunak zilegitzen ditu, lan-merkatua segmentatzen du, eta inoiz gertatzen ez den interakzio posiblerako barrera sendoa da.

Laburbilduz, ikusten dugu etorkinen kolektiboak desberdin balioestean oinarrian jatorriari lotutako ezaugarriak nahasten direla, baina lanerako gogoia, generoa, adina eta abar ere bai. Gure gizartearentzat premiazkoak diren lan gogorretan aritzeari lotutakotzat jotako kolektiboak ongien balioetsi ohi dira: emakumezko helduak (latinoamerikarrak jeneralean), bai eta errumaniar batzuk ere, zaintzen dihardutenak. Afrikar edo, berriz ere, errumaniar jatorriko gizonak, uzta biltzen, eraikuntzan edo jarduera industrial astunen batean aritzen direnak, saltokiak (txikiak) dituzten familia asiarrak. Familia txinatarren kasuan, ñabardura bereizgarriren bat hauteman daiteke: lan egiteko eta sakrifikatzeak duten gaitasuna aintzat hartzen eta balioesten da, baina susmoa hartzen zaie eraginkortasun handiari eta lortzen dituztenei, hori guztia bertan jaiotako biztanleekin alderatuta lehiaren ikuspegitik.

Beste muturrean, gaizkien balioetsitako taldeak hauek dira: arriskutsutzat jotzen direnak, soziabilitate gutxikoak, ez-emankorrak, kulturalki ezin integratuzkoak eta “laguntzetatik bizitzeko” joera dutenak. Hartara, alde batetik, batez ere adingabe edo gazte gatazkatsuez mintzatzen da (gizonezko marokoarrak eta aljeriarrak), bai eta “errumaniar mafia” batzuek ere. Bestetik, marokoar biztanleen eta komunitate musulmanen urruntasunaz hitz egiten da, eta, ikusitakoa oinarri, pentsatzen da itxiak direla, beren eredu kulturalak aldatzeko joera txikia dutela, loturarik ez dutela lanaren munduarekin, eta oso lotuta daudela laguntzak eta prestazioak jasotzeko: nabarmendu behar da irudi hori gizonezko helduei dagokiela gehiago, emakumeei eta hurrengo belaunaldiei baino.

Autokritika, enpatia eta konfiantza belaunaldi berrietan

Era berean, taldeetan esandakoek bide ematen dute autokritika egiteko, etorkinei buruzko hausnarketa enpatiko batzuk partekatzeko, eta belaunaldi berriak beharbada jada abiarazten ari diren kulturarteko bizikidetzako eredu hobetuekiko konfiantza adierazteko.

Nor arduratzen da lan “merkeez” eta zainketa-lanez?

Autokritikaren adierazpena nagusiki honako honetan ardaztuta dago: begi-bistakoa da etorkinak bertan jaiotakoak baztertzen ari diren lanak hartzen ari direla, eta bertako horiek onura ateratzen dutela egindako lan horretatik; lan gaizki ordainduak dira, prekarioak (kontraturik gabekoak batzuetan), gehiegizko esfortzu fisikoa eskatzen dute, arduraldi eta energia handi-handia, eta, batzuetan kudeatzaileak ez dira enpresa handi batzuk, pertsona autoktono batzuk baizik, enplegatzaile partikularrak, lan-harremanetan mota erosoena edo ekonomikoki errentagarriena hautatzen dutenak, etorkinen eskubideen eta, oro har, bizitza-egoeraren kaltetan. Lanok, immigrazioei buruzko literaturan, hiru P-ri lotuta ageri dira: pena hartzera behartzen dute eta peril handikoak eta prekarioak dira.

Kasu batzuk aipatu dira, eta, haien artean, etxe barruan adineko pertsonen zaintzaile moduan lan egiten duten emakumezko etorkinei buruzko esperientziak nabarmentzera jo dute. Horrelakoetan, denbora eta energia fisikoa baliatzeaz gain, ekarpen emozionala ere egin behar da. Adierazi da zernolako paradoxa izan daitekeen emakumezko etorkin horietako batzuentzat beste familia batzuek arduratu behar izatea, aldi berean ia harremanik izan gabe beren familiarekin. Bere garaian Arlie H. Hochschild-ek²⁵ berak teorizatu zuen *zaintzen kate globalaren* fenomeno deritzona da. Kate horrek teilakatuta

²⁵Hochschild, Arlie Russell. (2000). Las cadenas mundiales de afecto y asistencia y la plusvalía emocional. In Anthony Giddens eta Will Hutton (Arg.), *En el límite. La vida en el capitalismo global* (187-208 orr.). Tusquets.

funtzionatzen du, eta zaintzaren arduraren ezinbestean eta estrukturalki uzten du aipagai ditugun herrialdeetako emakumeen esku. Hurrenez hurrengo lekualdaketek ereduaren errepikatzen dute. Emakumeak herrialde hartzaileetan familia-egitura tradizionalan uzten duen hutsuneak tokiko beste emakume batek betetzen du, eta hori emakumezko atzerritar batek ordeztzen du, eta azken hori beste emakume atzerritar batek, eta hala hurrenez hurren, inplikaturik dauden herrialdeen arabera. Asko ikertu da esparru honetan, eta EAEko immigrazioaren azpian dagoen ereduaren jakitun izateak ahalmena handitzen du politika publikoak emakumezko etorkinaren ekarpen espezifikoarekin bat etorrita hartzeko.

Eta gero esaten dugu lana guri kentzera datozela. Ez, guri lan merkea kentzera datoz, gutxi ordaindua. Gu ere errudunak gara pixka bat. Eta haietaz baliatzen gara. (H3GB).

Askotan, gu geu baliatzen gara. Pertsona bat behar dugu gure aita edo ama zaintzeko, eta batek emakumezko paraguaitar bat du, beste batek emakume boliviar bat, eta hirugarrenak ekuadortar bat. 600 euro ordaintzen dizkiote, eta Gizarte Segurantzarena... sei hilabete barru pentsatuko dugu egin edo ez egin. Nire ustez, gu ere baliatzen gara horretaz. (H1GB)

Hipokrita samarrak bagarela ere uste dut. Lagundu nahi dugulako, gaixoak! Egun osoa amona zaintzen, seme-alabengandik bereizita, eta ekarri nahian. (M2GG).

Orain bat dago (Gipuzkoako herria) herrira doana aste osorako, eta gero hona dator, asteburuan, bere izebaren etxean lo egitera. Eta gero badago beste bat, adineko emakume bat zaintzen ari dena. 50 urte ditu, eta seme-alabak Panaman ditu, eta egun osoa ematen du adineko andre hori zaintzen. Guk ere bilatzen dugu jende hori, gure gurasoak ondo zainduta egon daitezen. (M3GG).

Gogoeta horietan nolabaiteko autokritika dago, eta erakusten digute badirudiela pertsona autoktono batzuk ez daudela oso eroso errealitate horrekin, diskurtso mailan behintzat, baina, aldi berean, egoera horren normaltasuna edo ohikotasuna azaltzen digute. Ez da harritzekoa emakumezko etorkinak zaintzaile aritzea, lan-baldintza prekarioetan eta bizitza-egoera zailetan. Hori da immigrazioaren feminizazioaren eredu, zeina finkatzen ari baita. Eredu hori gailentzen da EAEko lurraldean, eta lekukotasunek berresten dute EAEko immigrazioaren errealitatearekin bat datorren pertzepzio bat dagoela. Baina, errealitate hori aitortzearekin batera, egoeraren nolabaiteko naturalizazioa ikusten da, tartean baliatzea, errua, hipokrisia, instrumentalizazioa eta gisako hitzak izan arren.

Zuk zer egingo zenuke haren lekuan?

Gogoeta autokritikoa bezala enpatia ere baliatuta, taldeetan ipar-hego dinamikaz eta etorkinak jatorriko lekua uztera behartzen dituzten errealitateen gogortasunaz hitz egin da. Alde batetik, migrazioaren kausa herrialde hartzaileen eta igorleen artean ezarritako ekonomia- eta botere-harremanak lirateke, eta buruzagiak antidemokratikoak izateak berrelikatuko luke hori. Kausa horiek guztiak errealitate ezinbesteko eta erabakigarritzat hartzen dira,

lekukotasun horretan ideia hau baita abiapuntua: "... inork ez du bere etxetik aldegin nahi". Iritzi horren indargarri, esaten da beste horrenbeste egin zela Euskadin, kanporaketa-faktoreak zeudenean. Hala ere, zati bat osotasuna balitz bezala hartzeko tentazioa ere suma daiteke, EAera iritsitako immigrazioaren zati handi bat eredu horretatik urrun dagoelako, baina immigrazioa esplotazio, menderakuntza eta muturreko egoeren pilaketa gisa aurkezteko joerak fluxuen kausazioa desitxura dezake. Logika hori begi-bistakoagoa da mafien presentzia eta iruzurrak aipatzen direnean, migrazio-proiektuaren fase guztietan esplotatzen dituztelako migratzaileak, eta berariaz erreparatzen zaionean familia-erreferenterik gabeko gazteen egoerari, adin-nagusitasunera heldu ondoren beren bizitza-proiektuan aurrera egiteko laguntzarik gabe gelditzen baitira, eta lege-arazo gerora sortu eta ilogikoekin, egoitza-baimenaren eta lan-baimenaren artean ezartzen den harreman zitalaren ondorioz, atzerritartasun-legeak Euskadin sozializatu eta prestatutako pertsoneri ezartzen dizkien arazoan adierazgarri.

Esplotatu egin ditugu, eta dena kendu diegu. Gobernariak ustelak dira, eta jendeak ez du zer janik. Izan ere, askotan gu gara haiek hona etortzearen errudun. Oro har ari naiz. Imajinatzen dut hobeto egongo lirakeela beren herrian, inork ez duelako bere etxetik alde egin nahi. Baina daukaten egoera ere ez da batere ona. Askotan, exiliatuak dira edo gerran daude. Hemen ere, egoera berean bageunde, gauza bera egingo genuke. Gu ere kanpora atera garen herri bat izan gara. (H1GA).

Azkenean, immigrazioarena negozio bihurtu da. Entzunda daukat itsasontzietan ekartzen dituztela kostaldera arte, eta gero kostatik kilometro batzuetara uzten dituztela, telefono mugikor batekin, badaezpada ere, SOS Deiak-ere edo beste nonbaitera dei dezaten, patera batean daudela esateko. Hori daukat entzunda. Itsasontzietan iristen dira Marokotik kostatik gertu egon arte, patera puzgarri batean sartzen dituzte, eta sakelako bat ematen diete, Larrialdietara deitzeko. Eta hala, gaixoak patera batean iristen dira, baina, azken batean, mafiak haietaz baliatzen ari dira. Hiru mila euro kobratzen dizkiete, bizitza osoan aurreztu dutena, hona horrela iristeko. (H2GG).

Bada, nik adin horretako seme-alabak ditut, eta ikusten dut zer bizitza daramaten. Egun osoa beren orgatxoarekin daude tabernetan. Ez dute aisialdirik eta ezin dute harremanik izan beste pertsonekin. Oso ghetto itxia dute beren artean. Eta, zehazki, mutiko bat dago, soldadurako LH bat egin duena. Jakina, hemen finantzatu diogu, baina egin du, eta horretatik guztitik ateratzen ahalegintzen ari da. Baina zera gertatzen da: kurtsoa amaitutakoan, egoitza-txartelik ez duenez, ezin du lan egin. Eta, orduan, kalera itzultzen da, orgatxoarekin, saltzera. Esan nahi dut, ez dago jarraitutasunik. Edo abegi-etxeetan hartu, laguntza eman eta ikasteko aukera ematen zaienean. Batzuek ikasi egiten dute, eta beste batzuek ez, jakina. Baina gero, 18 urte betetzen dituztenean, kale gorrira. Beste aukerarik ere ez dute. (M1GG).

Bestalde, aipatzen da berekin zer ukitu dakarren immigrazioaz hitz egiteak gogoan "etorkin pobreak" soilik hartuta, hau da, kontuan hartu gabe egoera ekonomiko erosoan migratzen duten pertsonak, kualifikazio handiko profesionalak. Adierazi da ezen balitekeela ikusten ditugun arazoek eta dinamikek klase sozialeko kontuekin zerikusi handiagoa izatea arrazakeria edo xenofobia berarekin baino, edo, segur aski, haiek guztiak nahasita egotea.

Batzuetan, kokatutako etorkin gehien arazoei ez heltzeko arriskua dago, dela migrazio-prozesuen ikuspegi dramatikoena gaindimentsionatzen delako, dela, beste muturrean, etorkinen gainkualifikazioa azpimarratzen delako.

Belaunaldi berriek dena desberdin bizi dute.

Adostasun orokorra dago immigrazioa EAEn fenomeno ezinbesteko eta estrukturala dela ulertzeari dagokionez, eta, horregatik, bizikidetzak kulturarteko kudeaketa-eredu batean oinarrituta kudeatzen ikasi beharra dago. Itxaropena batez ere belaunaldi berrietan jartzen da, errealitate berrian sozializatu direlako, eta harreman pertsonalak maileguan hartutako diskurtsoetara jo behar izan gabe izan dituztelako. Hiru taldeetan, informatzaile batzuek diote neskatoen eta mutikoen eta nerabeen arteko harremanak ohikoagoak, naturalagoak eta normalizatuagoak direla, aurrejuzku eta joera gutxiago daudela, eta horrek zeharka laguntzen duela pertsona nagusiagoen ikuspegia aldatzen, poliki-poliki bada ere. Hezkuntza-testuinguruak betetako eginkizuna nabarmendu da, harremanetan jarri baititu askotariko jatorriak dituzten ikasleak ume-umetatik, eta, bereziki, harreman pertsonal hurbilen balioa azpimarratu da, aukera ematen baitute atzerritar jatorriko eta/edo etorkiko pertsonak arrotzat ez hartzeko.

Gure seme-alabak ohituago daude beste leku batzuetako jendearekin harremana izatera, eta berdinagotzat hartzen dituzte. Nabaritu dudan zerbait da. Nire seme-alabek, adibidez, lagun beltzak edo marokorrek dituzte. Eta [arabiar jatorriko 1. izena] aipatzen dute, edo [arabiar jatorriko 2. izena]... Eta nor da hori? Naturala da. Nik, ordea, nire semearen lagun bat, armairu baten modukoa, atetik sartu zenean, haren hortz zuriak ikuste hutsak... izugarritzko sustoa eman zidan. Eta nor da hau? Aurreiritziak ditugu, nik uste, nik bai behintzat, gure garaian ez zegoelako aniztasun hori. Eta, azkenean, nahi eta nahi ez, pixka bat gogorra egiten zaizu. Eta nire seme-alabek beti errieta egiten didate horregatik (...) Txikiagoak zirenetik gelan eta mota guztietako jendearekin... Ostia! Ikusi nuen lehen beltza ez dakit noiz izango zen... Errege-kabalgatan ere, margotuta zegoen bat zen Baltasar, eta ez benetako beltz bat. (H2GG).

Heziketa-kontu bat da, denbora-kontua. Nik, adin horretan, mistoak ez ziren eskolak izan nituen; mutilak baino ez ginen. Esan nahi dut hori aldatu egin dela eta, bai, gure seme-alabak gauza horiek bizitzen ari dira. Zorionez, jakina, aniztasuna ondo dagoelako. (H1GG).

Diskurtso horiek adierazten dute txikienek hurbiltzen dutela beren familietara kultura- eta jatorri-aniztasunaren errealitatea, duela urte batzuk ezin pentsatuzkoa zen normaltasun batetik; eta horrek argi uzten du zer aldaketa gertatu den EAEko gizartean belaunaldi bakar batean edo bitan baino ez, hartan heziketa ez baitzen mistoa, ez eta ikasgelen osaera anitza ere. Lekukotasun horiek adierazten dute etorkizunean normaltasun-bideetako bat automatikoki iritsiko dela, interrelazio-testuinguruetan baterako presentzia hutsa izateagatik. Hala ere, etnien arteko harremanetan aditu direnek beren ikerketetan erakutsi dute hurbiltasun hutsak ez duela zertan ekarri harremanak hobetzea, haiek erregulatzeko neurri instituzionalak ezarri ezean. Martiniellok zioen bezala,

aniztasuna eta haren kudeaketa aurrekontu-afera da nagusiki, bai eta muga-kontua ere.

Hedabideetako eta Administrazioaren diskurtsoekiko mesfidantza

Komunikabideetatik eta administrazio publikotik immigrazioari buruz zabaltzen diren diskurtsoei dagokienez, eszeptizismoa eta, gutxienez, zuhurtasuna gailentzen dira.

Komunikabideei dagokienez, alde batetik, iruzkin batzuetan aitortzen da azken urteetan hobekuntza adierazgarri batzuk ezarri direla etnia- edo jatorri-kontuei buruzko informazioen eta kontuzko datuen tratamenduan, eta, bestetik, azpimarragarria da ezen, edozeinetara ere, estrategia gailentzen dela, hedabide bakoitzaren interesen eta dauzkan atxikimendu politiko eta alderdikoen arabera. Batzuetan, komunikabideetan, gizartean bertan bezala, immigrazioari buruzko ikuspegia pentsatu gabea da, hutsala eta, horrenbestez, aurre egiten zailagoa. Baliteke komunikabideek eragina izan nahi izatea ikuspegi zehatz baten bidez, edo, besterik gabe, immigrazioari buruzko berriak inolako ikuspeirik eta oinarririk gabe ematea.

Batzuetan, esaten da immigrazio-gaiei buruzko informazio-fluxuaren joan-etorria une politiko bakoitzeko agendaren arabera dela. Ildo horretan, hain zuzen ere, egungo informaziorik eza aipatu da, arreta guztia COVID-19ak eragindako pandemia-egoeran jarrita dagoelako.

Uste dut orain hedabideetan ez dela ezer entzuten immigrazioari buruz. Ez dago modan, ez da tendentzia. Orain aski dugu COVIDarekin. Pentsatzen baitut oraindik ere paterak egongo direla, borrokan jarraituko dutela Mediterraneoan, eta jendeak itotzen jarraituko duela, eta kanpamentuak betetzen. Baina hori orain ez da interesgarria. Orduan, nire ustez, prentsarena itxurakeria da, nolabait. (M1GG).

Hala ere, pandemian zehar immigrazio-fenomenoa hedabideetan ez agertzeaz oso positiboa dela esan beharra dago. Errudunak bilatzea normala den garai eta une batean, immigrazioa informazio-agendan ez agertzeak adierazten du immigrazioa ez dela hautematen arazo edo mehatxu bezala, azterketa demoskopioetan agertu bezala (CISen hileroko barometroa, edo Ikuspegi eta beste erakunde eta behatoki batzuen barometroak). Paradoxikoki, krisi ekonomikoa edo *shock* soziala immigrazioarekin lotzeko joera dutenen aurrean, immigrazioa komunikabideetatik desagertzea zantzu bat da, adierazten duena migrazio-fenomenoaren onarpena diskurtso interesatuek eta beldurtiek edo zoritxar-igarleek nahi baino gehiago zabaldua dagoela gizartean.

Adibide guztiz immoral bat ematearren, VOX-eko buruzagi batzuek egindako adierazpenak baino ezin ditugu aipatu, pandemiaren fase kritikoaren erdian etorkinak, praktikan, fruta-produktuen bilketa ez galtzeko ardura hartu behar zuten eskulan esklabotzat jo baitzituzten.

Egia da oraingoa zalantzez betetako garai bat dela, eta immigrazioari buruzko zigor-ikuspegiekin batera, immigrazioaren arbuioa bere nortasun-ezaugarrietako bat duen indar politiko bat agertu dela. Baina ez da ahaztu behar ia hauteskunde-analista guztiek esan dutela hauteskunde-indar horren arrakastaren oinarrian ez dela egon immigrazioaren arbuioa edo espainiarren xenofobia, baina Kataluniako *procés*-etik sortutako dinamika politikoen ondorioz Espainiaren ideia indartu izana. Garrantzitsua da, halaber, azpimarratzea ezen, arrazoiak beste batzuk izan ahal izan badira ere, parlamentu zentrolean eta autonomikoetan ordezkaritza politiko garrantzitsua lortu ondoren, oso handia dela immigrazio-fenomenoaren aurkako zigorgabetasun-esparrua barreiatzeko duen ahalmena. Parlamentuan presentzia izate hutsa bera kezagarria da.

Egia da, “elur-bola efektuak” beti estaltzen duela arazo sozialen aipamena, halako eran non interdependentzia handia dagoen iritzi publikoaren eta iritzi publikatuaren artean; hau da, pertzepzioak, sarritan, albisteetan eta aurretiko iritzietan oinarritzen dira, eta, horiek, aldi berean, pertzepzioak berrelikatzen dituzte, nekez eten daitekeen gurpil zoro batean. Aldarte horiek iritzi-egoera bihurtzen dira, eta premiazkoa dute zehaztasun handiko esparru analitikoekin jardutea, logika mediatikoak, batzuetan, testuan esaten den bezala “nolabaiteko itxurakeria” moduan funtziona dezakeelako. Itxurakeria koiunturala eta interesatua izatetik harago, immigrazioa albiste ez izateak adierazten du ez dela desegokia azken bi hamarkadetan Espainiaren izaerari buruz adierazten zena, hau da, xenofobiarik gabeko herrialdea zela edo, Portugal aldamenekoarekin batera, “europar salbuespena”.

EAEko administrazio publikoari buruzko iritziak antzeko esparru batean mugitzen dira, hura ere “itxurakeriak” jota balego bezala. Integrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren aldeko ekimen batzuk aipatzen badira ere, batez ere udal-mailakoak (elkarguneen antolaketa, herri-bazkariak, zurrumurruen aurkako estrategiak eta abar), nabarmentzen den iritzi partekatua da benetako konpromisorik ez dagoela, galieriarentzat lan egiteko joera dagoela, batez ere hauteskunde-garaian, “argazkian ateratzeko”. Gainera, berariaz aipatzen da informaziorik eta gardentasunik ez dagoelako irudipena, laguntza sozialak edo prestazio ekonomikoak jasotzeari buruzko datuekin zerikusia duen orotan, eta horrek zurrumurruek eta estereotipo xenofoboak piztu baino ez du egiten.

Ez daukagu informazio errealik. Beti irudipenez eta zurrumurruez mintzatzen gara. Nik uste dut Administrazioak informatzeko ahalegina egin beharko lukeela, baina ez du egiten (...) Bilboko biztanleen egoerari buruzko informazio erreala ematea. Ez bakarrik etorkinei buruz, bai eta gu denoi buruz ere. Bilbon, zenbatek dute premia, zenbatek dituzte ikasketak, zenbatek ez? Zenbat jendek ez ditu eramaten seme-alabak derrigorrezko hezkuntzara? Eta horretaz guztiaz, ez dut behar esan diezadaten Marokokoak diren, Kubakoak, Bilbo erdikoak edo beste nonbaitekoak. Baina informazio hori ez dugu egiazki. Eta irudipena da negatiboa baino ez dugula. (H2GB).

Argudiatzen denaren arabera, daturik eta informazio ofizial eskuragarririk ez izatearen ondorioz, bidea libre geratzen da espekulaziorako eta, horrekin batera, diskurtso argi eta garbi xenofoboek eta arrazistek gorantz egiteko. Alde horretatik, Arabako taldean parte hartu dutenetako batek "... badirudi gai hori [immigrazioa] tabua dela erakundeentzat" esan du, bai eta zerbait "ezkututzen ari da" ere (H3GA).

Baiki, esparru politikoan beti dago ideia kontraesankor bat, Sami Nair-ek²⁶ dioen bezala, edozein esparru politikotara heda daitekeena. Europar esparruari buruz ari dela, honako hau dio: "Batzordeak eta Europako Kontseiluak sustatutako migrazio-politika immigrazioa aldi berean beharra eta mehatxua delako kontraesanezko ideian oinarrituta dago: beharra, lan-merkatuaren eskakizunengatik (kargu kualifikatuei dagokienez bereziki); eta mehatxua, migrazio-presioa itzelezkoa delako Ekialdean bezala Hegoaldean ere, eta langabezia-mailak, Europan, handiak".

Kontraesanezko ideia hori edo, lekukotasunean esaten den bezala, tabu hori esparru sozial eta politiko guztietan dago, eta ematen du aurrez pentsatua baino areago zuhurtziazkoa dela, klase politikoak immigrazioari buruz jarrera irekia izatea hauteskundeetan arriskutsua eta zigortua izan ohi delako. Hauteskondeei begira, beti da errentagarriagoa migrazio-fluxuak ezartzearen aurka agertzea alde agertzea baino. Horregatik, nahita ezkutatzeaz baino areago (nahitaez?) desagerrarazitako errealitateaz arituko ginateke.

Desio onak, ziurgabetasuna eta kezka etorkizunera begira

Taldeetan, azkenean, etorkizunaz aritzen garenean, denek nahi dute hurrengo urtean EAEko gizartea kulturartekoagoa izatea, eta kultura- eta jatorri-aniztasuna gero eta modu positiboago batean kudeatzen ikastea. Sakontzean, gurutzatzen diren iruzkinen artean, batzuetan aipatzen da ustez ezinbestekoa dela immigrazioa eta kultura- eta jatorri-aniztasuna gehiago normalizatzea hurrengo urteetan –arrazakeriaren eta xenofobiaren amaieraren fantasian erori gabe–, eta besteetan, gogoetak egiten dira ultraeskuinak gorantz egiteko arriskuari buruz, eta kezka handia adierazten da egungo pandemia-egoerak eragin dezakeen guztiagatik, bai eta migrazio-prozesuen alorrean ere, eta bi galdera jartzen dira erdian: posible izango da aurrerantzean ere EAEko gizarteaz pentsatzea "harrerako" leku bat dela? Gure seme-alabei egokituko zaie migratu beharra? Horrelako gaiak sarritan nahasten dira, beharbada erretorikoki, baina, orain, COVIDaren agerpenak eragindako ziurgabetasun-garai berri batean esperimendatzen dira.

²⁶Nair, Sami. (2006). *Y vendrán... Las migraciones en tiempos hostiles*. Bronce Planeta.

Bai, aniztasuna askoz handiagoa izango da, eta lotura ere bai. Dena askoz naturalagoa izango da. Baina bai, uste dut gauza bera gertatuko zaigula. Orduan ere arrazakeria egongo dela. Hori ez dugu baztertuko urte horietan. (M1GG).

COVIDarena atzera egiteko izango da guztientzat; ez da konponduko. Eta, orduan, hori are gure bizitzetan ere izan da eten bat. Eta ez dakit noiz hasi ahal izango da berriz. (...) Gainera, gobernu guztiak dirua sartzen ahalegintzen ari dira, Monopolyko dirua bada ere, COVIDaren egoera konpontzeko. Eta ezingo dituzte zergak igo, ez delako lanik egongo, edo dagoena ez delako asko izango. Orduan, ikusiko dugu aplikatuko den ala ez lehendabizi etxeak direlako. Hori argi dago. Uste dut immigrazioaren arazoa are gehiago larrituko dela. (M1GB).

COVIDa arrazoi izan daiteke “nazionalen lehenespena” proposatzeko, eta hori, bildutako lekukotasunean, beldur moduan baieztatzen da gehiago erreklamazio moduan baino. Iritzi horren oinarrian dagoen ustea da ezen, hartutako politika gorabehera (pertsone nazionalak lehenestea edo haietaz ez kezkatzea), immigrazioaren egoitza eta kokapena ahulduko direla. Era berean, ikusi dugun bezala, bi lekukotasunetako lehendabizikoan kontrajarritako bi prozesu aurreikusten dira: alde batetik, aniztasuna handituko dela, baina batasuna handiagoa izanda, eta areagotze hori naturalagoa izango dela; bestetik, arrazakeriak iraun egingo duela (“Baina iruditzen zait gauza bera gertatuko zaigula. Orduan ere arrazakeria egongo dela..”).

Etorkinen egoerarekiko kezka horrekin batera, badaude beste batzuk, bertako gazteen gizarteratze zailaren arriskua sumatzen dutenak. Iritzi horretan, bai, argi eta garbi aldeztan da “nazionalen lehenespena”, edo “etxekeoa”. Honela adierazten da: “Izan ere, onartezina da! Denok hartu behar ditugula, zeren gaixo horiek... tira, baina gureak ere gaixok dira”. Hori guztia “hala, argi eta garbi ere hitz egin behar da” oinarri hartuta.

Argitasuna, horrelako testuinguruetan, berresle sozial moduan erabili ohi da, froga eztabaidaekin moduan, ohiki aipatutako eta mintzatzean sarritan gaizki erabilitako “zuzentasun politikoa” alde batera utzita hitz egitea nahikoa argudio balitz bezala zilegitasuna emateko iritzi pertsonalari. Balirudike “belo sozial” estaltzaile bat dagoela, etorkinen aldekoa, aitzakia moduan babesten duena, behingoz agerian utzi beharreko egia ezkatuta:

“Egia esango dugu (...) Baina oso ondo gelditzen da errukarriak esatea. Baina, eta errukaria zurea, nirea? “Izan ere, hala, argi eta garbi ere hitz egin behar da”.

Nahasita daude ongien prestatutako belaunaldien etorkizunari buruzko beldur propioa, haiei legozkiekeen jomugak eta immigrazioaz traba moduan hartuta egiten den aipamen gutxi-asko zuzena, berriz ere “nazional” direnentzat “lehenespen negatiboa edo alderantzizkoa” balego bezala agertzen baita.

Arazoa gure seme-alabek izango dute. Nire alabak ez du ezer aurkituko hemen, eta kanpora joan beharko du? Eta nire alaba joaten den herrialdean, ez dizkiote 2.000 euro ordainduko. Ez, noski. Eta nire alabari ez badiot jaten ematen, ez dio inori jaten

emango. Egia esango dugu (...) Baina oso ondo gelditzen da errukarriak esatea. Baina, eta errukarria zurea, nirea? Izan ere, hala, argi eta garbi ere hitz egin behar da. Begira, nire alabak ez du etorkizunik izango hemen. Zer egin beharko du? Alde egin? Izan ere, onartezina da! Denok hartu behar ditugula, zeren gaixo horiek... tira, baina gureak ere gaixoak dira. Hemen, ongien prestatutako jendea dugu, baina etorkizun beltzena duena ere bai. (M2GB).

Eta hala, ikusten dugu ezen, desira onekin eta hurrengo urteetako migrazio-errealitateari buruzko positibotasunarekin batera, arrisku edo mehatxu jakin batzuk eta ziurgabetasun- eta kezka-sentsazioa daudela, pandemiaren ondoriozko krisi-egoerak areagotuta. Belaunaldi berri propioen etorkizunari buruzko beldurra bermetzat edo igaro-baimentzat hartzen da, solaskidearen arabera bistakoa den immigrazioaren gaineko isiltasun-espinala hausteko.

Gazteen ikuspegia

Ikusi ondoren zer esan, eztabaidatu eta hausnartu den 50 urte edo gehiago dituzten pertsonen hiru taldeetan, orain, Bizkaian bizi diren eta 18-24 urte dituzten pertsonekin egindako eztabaida-talde bakarrean (gidoi eta dinamika bera erabiliz) bildutako ekarpenez arituko gara. Puntu batzuetan, nabardura bereizgarri eta interesgarri batzuk gorabehera, pertzepzioak eta balioespenak beste taldeen antzekoak direla ikusi dugu, eta puntu horiei helduko diegu lehendabizi; geroago, gazteen ekarpenak gainerako taldeek egindakoetatik bereizten dituzten esperientziez eta gogoitez arituko gara.

Ñabardurekin mantentzen diren pertzepzioak eta balioespenak

Gazteen eztabaida-taldeak zenbait antzekotasun ditu gainerako taldeekin. Ohartu gara pertzepzio eta balioespen batzuk egonkor samar mantentzen direla, gako bereizgarri batzuen ekarpena egiten badute ere.

Etorkinak laguntzez neurritz kanpo baliatzen dira?

Etorkinak prestazioez eta laguntza sozialez neurritz gain baliatzen direlako zurrumurrua zalantzan jartzen da, eta eztabaidatzen, eta, aldi berean, aitortzen da bereziki zabaldua dagoela, batez ere, beharbada, adinez nagusiak direnen artean, baina bai eta gazteen artean ere. Izan ere, gazte izateak, berez, ez du bermatzen immigrazioaren aldeko iritziak izatea. Eta hala, gogoeta batzuen arabera, baliteke zurrumurru hori gehiegi edo faltsuki errotu izana biztanle autoktonoen artean, baina beste batzuk bat datoz immigrazioari buruzko ikuspegi utilitaristarekin, eta, alde horretatik, berriz ere ikusten dugu EAEko gizartean ekarpena egiten duten eta egiten ez duten etorkinen arteko bereizketa.

Jendeak aurreiritzi asko eta asko ditu. Beti esaten da etorkinak laguntzetatik bizi direla, DBErekin, eta gauza horiek guztiak. Eta gero, azkenean, 5.000 euro ateratzen

dituztela. Nik ez dakit nondik ateratzen dituen jendeak gauza horiek, baina oso konbentziturata esaten dituzte. Eta gazteekin ere gertatu zait pentsamolde hori izatea. (M2GJB).

Egia esan, sozialki hitz eginda, etorkinez dagoen pertzepzioa beste edozein pertsonarekin egon beharko lukeena da. Hau da, ekarpena egitera datorren pertsona bat bada, eta arazorik sortzen ez badu, ongi etorria da (...) hona bizitza-proiektu baten bila datozen pertsonak badira, eta horren alde egiten badute, ez dago arazorik. (H2GJB).

Ikuspegiaren barometro guztietan demoskopikoki frogatu den bezala, lan-ekarpenak zilegitzen du etorkinek EAEn duten presentzia. Ikuspegi hori azterlan kualitatibo honetan berresten da.

Delinkuentzia, indarkeria eta magrebtar jatorriko gizonezko gazteak: joera arrazista eta xenofoboa?

Indarkeria eta delinkuentzia magrebtar jatorriko gizonezko gazteekin identifikatu ohi dira, eta, batez ere, gaueko aisialdiari (baina ez horri bakarrik) eta matxismoari lotzen zaizkie. Gako bereizgarri moduan, interesgarria da kontuan hartzea batzuek errealitate hori aurreiritzi eta joera arrazista edo xenofoboek baldintzatuta ikusten dutela, eta aditzera ematen dutela ezen, hain zuzen ere, kontu horien ondorioz pentsatzen dela delinkuentziaren, indarkeriaren edo matxismoaren problematika orokorrak etorkinen kolektibo zehatz batzuei estu lotuta daudela.

Eta, egia da, ikastetxean arazoren bat edo beste izaten zen noizbait. Nik ez dut inoiz emakume bat ikusi hor; denak gizonezkoak dira. Gehienak magrebtarrak, baina badago afrikarren bat ere. Egia da arazoak magrebtarrek eragindakoak izaten zirela; inoiz-edo, ikastetxean lapurtzera sartu dira. Edo neskei esan ohi zaiena, neska puska eta ez dakit zer (...) Inoiz, jaietan edo, egia da, esaten ari nintzen bezala, gauean ohiko aurreiritziak daudela magrebtarrei buruz. Pertsona batzuk ezagutzen ditut, liskarren bat izan dutenak horiekin, labanak aterata edo horrelakoak eginez. (H3GJB).

Bai, egia da nabaritu dudala lagun dudan neskaren bati..., parrandan ibili ondoren etxera itzultzean, hemengoa ez zen norbaitekin topo egiten bazuen, beldur handiagoa ematen ziola pertsona hori hemengoa izanez gero baino. Nik aurreiritzi hori, bai, gehixeago ikusi ahal izan dut. (M2GJB).

Genero-indarkeria potentziala eta matxismoa, zeina lekukotasunen arabera Afrikako Iparraldetik datozen etorkinen artean nagusi baita, gazte horiei buruz dauden aurreiritziak berresten dituzten argudioak dira. Gure gizartean, egun, genero-indarkeria lerro gorri bat da, haren adierazpide anitzetako bat erabiltzen duten pertsonen zilegitasuna kentzen diena, eta pertsona kide den kolektibo osora heda daitekeena; are gehiago, atal honetan magrebtar gazteek egoera zail bati aurre egin behar diote, delinkuentzia, indarkeria eta matxismoa *totum revolutum* moduan lotzen dituzten kluxe horiek guztiak egotzen zaizkien bakarrak direlako. "Gehienak magrebtarrak dira, baina badago afrikarren bat ere. Egia da arazoak magrebtarrek eragindakoak izaten zirela; inoiz-edo, ikastetxean lapurtzera sartu dira".

Txanponaren beste alde: etxeko langile eta zaintzaile diharduten emakumezko helduak

Aitortza eta balioespen positiboak, bestalde, kasu ezagunetan, hurbiletan zehaztu ohi dira, etxeko langile eta zaintzaile diharduten latinoamerikar edo errumaniar jatorriko emakumezko helduetan. Talde horretan, ez dugu aurkitzen emakumezko etorkinen lan-prekariatatean edo bizi-baldintza zailetan sakontzen duen hitzik. Aipamenetan, ahalegina eta egokitzeko eta harreman positiboak izateko gaitasuna nabarmentzen dira.

Etxean, neska bat daukat lanean; errumaniarra da. Duela bost urte etorri zen, eta egia da nire familia osoarentzat harrigarria izan zela zeinen azkar ikasi zuen hizkuntza, bai eta hemen bizitzen ere, han dena guztiz desberdina zelako (...) Uste dut izeba ekarri zuela, hemengoaren, hizkuntzaren berririk izan gabe... Eta harritzekoa da zeinen azkar egokitu den gure kulturara eta [Bizkaiko bat] herrira. (H3GJB).

Egia da nire aititak, etxean dagoen pertsona bat behar duenez, beti latinoamerikarrak izan dituela zaintzen. Haietako bat nire amaren lagun baten lehengusina zen, eta oso harreman ona zuten. Esan nahi dut, kanpoko den ala ez alde batera utzita, beti harreman ona izan dutela. (H1GJB).

Lekukotasun horretan ere interesgarria da ikustea nola eratzen diren migrazio-ko kooptazio-sareak, pertsonak, azkenean, aurrez kokatutako eraginez iristen baitira, erreklutatzaile horiek berek ezarritako bideak erabiliz, etorkinaren "familia"-ingurunea esan dezakegun horretako kide baitira: senideak, laguntzak eta egoera abiarazlea. Hartara, migrazio-stocka, azkenean, jatorria eta jomuga lotzen dituzten indarren, ezartzen diren familia-sareen eta saihestu eta gainditu beharreko traba (legezko, material eta pertsonal) guztien emaitza da.

Arazoa, beharbada, pobrezia da gehiago kultura- eta jatorri-aniztasuna baino

Nabarmendu behar da talde horretan ere esan dela gaur egun ez dela arrunta pentsatzea immigrazioa arazo handi edo gatazka orokor bat dela EAEn, eta, benetan, ezaugarri kultural eta etnikoekin nahasitako bizikidetzaz-azazoez ari bagara, ohikoagoa dela ijitoen herriarekiko tentsioez hitz egitea, etorkinen edozein kolektiborekiko tentsioez baino: "Nik esango nuke aurreiritzi gehiago dagoela ijitoekin edozein etnia jakinetako edozein migratzailearekin baino" (H2GJB).

Ildo horretan, informatzaileetako batek bere egindako gogoeta baten arabera, sustraira jotzen badugu, bizikidetzaz-azazoez, estereotipoak edo zurrumurruek ez dira gehiago gertatzen desberdintasun hertsiki kultural edo etnikoen ondorioz, klase sozialari eta, zehazki, pobrezia-egoeran dauden pertsonen aurkako arbuio eta bazterketari lotutako talken ondorioz baizik. *Aporofobia*, ez *bestetasuna*, arrazoi eskusogeno moduan planteatuko litzateke.

Uste dut arazoa ez dutela, edo ez dugula, immigrazioarekin berarekin, pobreziarekin baizik. Azkenean, jendea ez da joaten bere herritik nahi duelako; baliabiderik ez dutelako eta kanpoan bilatu behar dituztelako joaten dira (...) azken batean, nolabait esatearren, bizimodua ateratzeko bitartekorik ez duten pertsona multzoak dira. Eta normala da azkenean elkartzea, klase sozial bera dutelako, horrela esatearren. Baina ez dut uste halako zerikusi handia duenik larruaren kolorearekin, arrazarekin edo etniarekin. Dazkaten baliabide ekonomikoekin du zerikusia. (M2GJB).

Egia da askotan aporofobia dela arbuioaren eta diskriminazioaren iturria, halako eran non jatorria beste herrialde batzuetan duten pertsonak, egoera ekonomiko hobea badute, hobeto onartuak izan baitaitezke. Ez da komeni aintzat ez hartzea arbuioak zerikusi handia izaten duela pertsonak atzerritar nazionalitatea izatearekin, hortik ateratzen baitira bai “nazionalen” lehenespeneren printzipioa, bai atzerritartasun-lege selektiboetako “nazionalitatearena”, zeinek, iragazki moduan, lege-sarbidea errazten edo zailtzen baitute berdintasunari dagokionez. Herritartasunik gabeko pobrezia ez da arriskuaren iturburua, normalean “nazionalismo metodologikoaren” printzipioaren arabera sortzen diren herrialdeetan. Izan ere, kokatzen diren pertsonak herritartasuna lortzea da zaila. Urte askotan, Alemaniak, adibidez, eredu tipiko moduan, *Gastarbeiter* edo “langile gonbidatuaren” printzipioari eutsi zion, espero baitzuen ametsak bete ondoren etorritako bidetik itzuliko zirela. Baina immigrazioa bertan finkatzekoa zela ikusi ondoren, berrogeita hamar urte geroago, Merkelek kultura-aniztasuna hildakotzat jo zuen, nahiz eta Alemaniak inoiz ez praktikatu. Aporofobiari heltzea iradokitzailea izan daiteke, baina sasiatzalpen bat ere bai.

Komunikabideak eta administrazio publikoa: “Gezurra irentsarazi nahi digute”

Komunikabideetatik, prentsa, telebista edo sare sozialetatik, immigrazioaz zabalduko diskurtsoez ari garenean, berriz ere nabarmentzen den ideia da informazio edo “mugimendu” oro estrategia edo interes batzuen ondorio dela, eta horiek harago doazela edo independente samarrak direla, immigrazioaren beraren fenomenoari buruzko egiazko ezagutza hedatzeko konpromisoaz den bezainbatean. Horregatik sortzen da komunikabideekiko eta migrazio-fenomenoari dagokionez dituzten asmoekiko mesfidantza.

Uste dut horretan guztian ildo editoriala dela erabakigarria, eta merezi duen ala ez ildo horren ikuspegitik. Azken batean, komunikabide guzti-guztiek, sare sozialak barne, ildo editoriala dute. Orduan, gizartean ideia jakin batzuk bultzatzea beti da onuragarria ala kaltegarria norbaitentzat. Komunikabideek zerbaitengatik egiten dute dena. Eta une jakin batean albiste bat edo beste ematean, beti dago helburu bat. Horregatik, orokorrean, ez naiz fidatzen komunikabideez. (H2GJB).

Alde horretatik, esaten da halako joera bat dagoela etorkinak delinkuentziari eta kriminalitateari lotzeko eta, aldi berean, irudi hori desitxura eta gezurta dezaketen errealitateak, bestek beste gizarte hartzaileari egiten dioten ekarpen ekonomikoari buruzko datuak, ikusezin bihurtzeko.

Titulu bat bestera adierazten baduzu, albistea bera izan arren, oso desberdina da. Nire karrerako irakasle batek, zeina, gainera, San Frantziskon bizi den, esaten zidan delitu gehiago egiten direla San Frantziskon eta, aldi berean, magrebtar gehiago bizi direla auzoan. Ez da nahitaezkoa beti korrelazioa izatea; aski litzateke datuak begiratzea. Komunikabideek, beren ikuspegiarekin, beren gezurra irentsarazi nahi dizute. Nahi duten bezala azalduko dizute. Gero, irentsi egingo duzu edo ez. (H1GJB).

Gainera, arrazarena gauza txarretan baino ez dute nabarmentzen. Adibidez, Pfizer txertoaren asmatzaileak bi musulman dira: etorkin zirela iritsi ziren Alemaniara, eta han sortu zuten enpresa bat. Eta txertoa lortu dute. Eta oso gauza on horietan, mundu osoaren esperantza baitira une honetan, ez dira erabiltzen ari haien arraza erakusteko pertsona horiek zerbait on ere egiten dutela. (M2GJB).

Arreta esparru instituzionaletik zabalitzen diren diskurtsoetan jarrita, gogoetek eta iruzkinak antzeko ildo bati jarraitzen diote, oso bat datorrena gainerako taldeetan partekatzen denarekin. Integrazioaren aldeko diskurtsoak aipatzen dira, bai eta proiektuak eta ekimenak ere, baina batez ere galeriarentzat funtzionatzen dute, eta ez dute berekin ekartzen benetako konpromisorik. Hartara, kudeaketa politikoa neurri handi batean interes alderdikoiek baldintzatuta dago.

Beti interesak daude atzetik. Gaur, politikari batek esan diezazuke immigrazioa onena dela, eta oso beharrezkoa; bihar, berriz, aurkakoa. Duela egun batzuk, Marlaskak esan zuen beroan egindako itzulketak behar-beharrezkoak zirela. Eta diskurtso horretan ondo baino hobeto sar genezake Vox alderdia (...) Azken batean berdin da ezkerrekoa edo eskuinekoa izatea, joera sozialagoa izatea, edo merkatu libreira begira egotea. Berdin da. Politikariari hori esatea interesatzen bazaio, esaten du. (H2GJB).

Batzuetan, kaletik zoazela, Eusko Jaurlaritzaren ohiko kanpaina ikusten duzu autobus-geltokietan, eta hala. Eta oso polita, oso ideia ona, baina, nolabait, beti da hobea praktika teoria baino. Ez egin kartelik, eta gastatu diru hori integrazio-proiektuetan. Mintegietan, beste herrialdeetako ikasleak gehiago integratzeko ikastetxeetan, edo horrelako beste zerbaitetan. (M1GJB).

Komunikabideekin gertatzen denaren antzekoa da, azken batean alderdi politiko bat komunikabide baten modukoa delako. Interesatzen zaionaren berri ematen du, eta gezurra irentsarazi nahi dizu. Horretan ere ez dago misterio handirik. (H1GJB).

Etorkizuna: enpatia- eta xenofobiak krisi-garaietan gorantz egiteko arriskuaren artean

Azkenik, etorkizunari dagokionez, gazteen taldean gainerako taldeetan bildu ditugunen antzeko nahiak eta kezak adierazi dira. Alde batetik, migrazio-errealitatea normalizatzea aipatu da, are gehiago kontuan hartuta oso litekeena dela euskal belaunaldi berriek emigratu behar izatea eta, beraz, enpatia- eta identifikazio-sentimenduak gero eta arruntagoak izatea, zentzu positiboan bezala negatiboan ere. Hori emigratu beharra sentitzeko eta ulertzeko moduaren araberakoa izango da. Immigrazioa iristearen ondorioztat jotzen bada, litekeena da normalizazioa eta ondoriozko bizikidetzaren potentziala atzeratzea edo errailetik irtetea: “eta pentsatu nahi dut etorkizunean pixka bat beste aldea izango garela”.

Bestalde, ordea, ultraeskuineko alderdien diskurtsoek pandemiaren ondorioek ezaugarritutako krisi-testuinguruan gorantz egiteko arriskua aipatzen da.

Nik uste dut normalizatuxeagoa izango dugula azkenean. Batez ere guri ere egokituko zaigulako bizitzea. Gero eta jende gehiagok joan behar izaten du kanpora, hemen lanik ez dagoelako. Eta pentsatu nahi dut etorkizunean pixka bat beste aldea izango garela. (M2GJB).

Nik kideek esan bezala izatea nahi eta espero dut, eta hala izango dela uste dut. Gure gizartea anitzagoa izango dela, eta etorkinak eta etorkin izandako arbasoak dituztenak hemen finkatu ondoren hobeto gizarteratuta egongo direla. Gizartea, era berean, pixka bat begirunetsuagoa izatea globalizazioaren ondorioz. Espero dut hori modu bat izatea gizarte inklusiboagoa eta kulturetan anitzagoa eta aberatsagoa lortzeko. Baina egia da, halaber, agertzen ari diren alderdi berriak zertxobait desegiten ari direla hainbeste urteren ondoren eraikitzea lortu dugun guztia. Eta espero dut mezu hori hainbeste ez errotzea gizartean, eta egoera honetatik ateratzea. Izan ere, orain COVIDaren kontuarekin, beste krisi batean sartzen ari gara, eta egoera hobetzen ez bada, baliteke krisiak gehien eragindako pertsonak nolabait errudunen bat bilatzea. Eta komunikabideek, tituluen bidez, eskura jartzen badiete alderdi politikoei, baliteke errua etorkinei botatzea, eta berriz atzerantz egitea. Baina, tira, espero dut hala ez gertatzea. (M1GJB).

Hartara, irudipen eta susmo bat nahasten dira. Alde batetik, migrazio-errealitatearen ondoan bizitzea gero eta ohikoagoa izango delako irudipena. Bestetik, datozen krisi-garai zailen ondorioz, balitekeela atzera egitea, norgehiagoka- eta lehia-sentimenduak pizteko diskurtso xenofoboek eraginda. Aurreko hori diskurtsiboa ez ezik, praktikoa eta materiala ere izan daiteke, eta errundun bat bilatzeko kausa ere bai. Lekukotasunean konpetentzia hori alderdi xenofoboek edo komunikabideek sustatutakora mugatu arren, aintzat hartu behar da globalizazioan edo ziurgabetasunean “galtzaile” direnengandik sortzen dela. Ez du ematen nahi izatekoa denik ildo horretatik joatea etorkizuneko gertaerak migrazio-prozesuen esparruan, baina ezin bazter daitekeela ematen du.

Harremanak, esperientziak eta hezkuntza-errealitatea: ideala ez den ikuspegi hurbila

Gazteen taldearen eta gainerako taldeen arteko desberdintasun argienak harreman-esperientzia hurbiletan daude, berdinkideen arteko interakzio-testuinguruetan, partekatu egiten baitira etorkinekiko bizikidetzaz hitz egitean. Adiskidetasun-harreman adierazgarri zehatzak aipatzen dira, bai eta talde edo kuadrilla handiak ere, zeinetan etorkinen kopurua eta bertan jaiotakoena bera baita.

Bestalde, proiektu edo ekimen sozialetan parte hartu izanaren eragina dago, bazterketa-dinamiken aurkako sentsibilitatea eta konpromisoa bultzatzen baitituzte, eta haien adibide dira auzolandegiak (gazteentzakoak askotan), GKE batzuekiko lankidetzak eta unibertsitate-lan akademikoa egitea erreibindikazio edo salaketa sozialen baten ildotik.

Badira bi urte venezuelar jatorriko lagun bat daukadala. Haren gurasoak bestelako bizitza-proiektu bat egitera etorri ziren. Neska, nire laguna, lau urterekin etorri zen, eta ia ezin izan zuen nazionalitatea lortu zenbait arazorengatik. Eta berak, bai, muga gehiago izan ditu atzerritar jatorrikoa izateagatik. Gainera, venezuelarren doinua oso nabarmena da, eta atentzioa ematen du. Ni, nire pentsamolde politikoa dela eta, harekin mintzatzen naiz, eta ikuspegi bera dut immigrazioari buruz. (H2GJB).

Nire lagun taldean, hamabost bat pertsona gara, eta erdiak kanpokoak dira. Hego Amerikakoak. Eta ez dugu arazorik izan. Tira, bromak-eta egiten ditugu arrazaz edo jatorriaz, baina konfiantza-giroan. Kanpoko lagun bat baduzu, eta oso ondo moldatzen bazara, eta gauza bazara zeure buruaz-eta barre egiteko, broma horiek, bai, egin daitezke. Amultsuki esan nahi dut, ez diozu labana burura botako (...) Nire ingurukoan artean, kuadrillako erdiak, esan dudan bezala, migratzaileak izateaz gain, auzolandegietan egon naiz, eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden gazteak zaintzen. Eta badut lagun min bat, San Frantziskoko GKE batean egon dena, eta hango jende asko eta askorekin aritu da, bai eta Abusukoarekin ere, eta gradu amaierako lana Ceutan eta Melillan gertatzen ari denaz egin du. (H1GJB).

Hartara, ikusten dugu ezen, hezkuntza-testuinguruetan, bizitegi-aldeetan eta, azken batean, nerabeen eta gazteen ohiko interakzio-guneetan berariak bilatu ez den eta etorkinen eta autoktonoen arteko adiskidetasunezko harreman hurbilak sortzeko bide ematen duen bizikidetzarekin batera, sentsibiltatea, empatia eta espiritu kritikoa sustatzen dituzten aukera soziokultural eta akademikoen esparru bat dagoela.

Guztiz ere, taldean ikastetxearen eta institutuaren berariazko garrantzia nabarmentzen da, jatorri, etorki eta jokabide kultural desberdinak dituzten ikasleen arteko harreman normalerako gune nagusi moduan, eta adierazten da ezen, etorkinak hautematean, balioestean eta haiekin harremanak izatean, bertan jaiotako gazteen eta urte gehiago dituztenen arteko desberdintasun beharbada handiena dela zaharragoek ez dutela aukerarik izan elkarrekin bizitzeko aniztasunean, txikitatik eta hezkuntza-sistemaren barruan.

Lehen hezkuntzatik oinarritzko gizarteratzea gertatzeak egoera hori normalizatzen du. Nik uste dut helduek, zaharrenek dituztela aurreiritzi handienak migratzaileei buruz. Ez dutelako harreman hori izan, eta oraindik ere pertsona desberdin eta mehatxu posible gisa ikusten dituztelako. (H2GJB).

Hori aintzat hartzeak, ordea, ez du galarazten kritika batzuk partekatzea eta jatorri eta/edo etorki atzerritarreko pertsonen heziketa normaleko prozesuan jasaten dituzten diskriminazio- eta despaketotasun-egoerak salatzea. Informatzaileetako batek, zehazki, azaldu du ezen, oraindik ere institutu batera ikastera joaten baita, errealitate hori bereziki hurbiltzat eta "oraintsukotzat" jotzen duela. Eta honako hauek aipatu ditu: ikasleek berek eragindako diskriminazioa; pandemia-egoeran baldintza beretan aurrera jarraitzeko baliabiderik eza (ekipamendu informatikorik eta Interneterako konexiorik ez izatea); eta, euskara-maila apalagoa izateari lotuta, bazterketa- eta bereizte-arazoak eta -dinamikak. Hiru kasuetan, gainerako informatzaileak ados daude kidearen diskurtsoarekin, eta antzeko iruzkinak eta gogoetak egin dituzte.

Ikasleek eragindako diskriminazioa:

Adibidez, baten bat gaztelania, ingelesa edo euskara gutxi jakinda iristen denean ikastetxera. Ohikoa izaten da pertsona batzuek, dela familiaren eraginagatik, dela komunikabideen eraginagatik, eragin handi samarra izaten baitute jendeak immigrazioaz duen iritzian, aurpegi txarrarekin begiratzea, edo ohiko pentsamendu hau izatea: `Zer egiten du horrek hona etorrita, ez baitaki ezer, ezingo baitu ezer egin...´ hobe luke bere herrira itzultzea. (M1GJB).

Desparekotasuna pandemia-testuinguruan eta urrutiko eskolen sistema:

(...) orain, konfinamenduarekin, konexio egokirik edo familia osoarentzat ordenagailu eramangarririk ez izateagatik sareko eskoletan aritzeko arazo handiena zuten ikasleen arteko gehienak etorkinak ziren. Eta nik ez nuen Eusko Jaurlaritzaren aldetik ahalegin handirik ikusi horrelako pertsonen laguntzeko. Azken batean, heziketa oinarrizko eskubidea baita. Zerbitzu horrengatik ordaintzen jarraitzen zuten, baina ez zuten jasotzen, ez zietelako ematen horretarako laguntzarik. (M1GJB).

Desparekotasuna eta segregazioa hizkuntzagatik:

Alde batetik, ulertzen dut Eusko Jaurlaritzak ahalegina egitea euskara indartzeko eta gehixeago sustatzeko, baina pertsona horiek beharbada ez dute hain erraz erabiltzen eta azkenean pixka bat alboratuta geratzen dira (...) Beste ikasmilla batzuetako pertsonekin talde bat sortu eta maila apalago bat eman behar... Izan ere, nahi ez bada ere, azkenean baztertu egiten dira. Nik gehiago ikusten dut hizkuntza-esparruan. Zailtasun gehiago dituztelako, eta pixka bat atzerago geratzen dira. Eta nik ezagutzen ditudan kasuetan, behintzat, iritsi diren etorkin askori maila oso handia den ikastetxe bat egokitu zaie, edo ez zaie behar adina irakasten. Eta maila apalagoa den beste ikastetxe batzuetara doaz (...) Eta pertsona horiek ez dituzte behartzen, horietara joatera, baina, lehen esan dugun bezala, nolabait da zeharka esatea ez direla behar bezain onak hemen egoteko, eta joateko beharbada "zuk bezala" zailtasun horiek berak dituen jendearekin. Eta hori, gero, muga bat da ikasketetan eta graduetan sartzeko, bai eta ondoren lan-merkatuan sarbidea izateko ere. (M1GJB).

Informatzaile horren esperientziak eta gogoetek urratu egin dute ikastetxeari/institutuari buruzko ikuspegi idilikoa, hau da, ikasle etorkinek eta autoktonoek berdintasunezko harremanak dituzten gune bat delako ikuspegia, argi geratzen baita indarrean daudela ikasleen estereotipoak eta joerak, eta bitarteko gutxiago dituzten eta bi hizkuntza ofizialen ezagutza txikia duten pertsonak diskrimina ditzaketen hezkuntza-dinamikak daudela.

6

Ondorio orokorrak

Ikuspegik sortu zenetik iritziez, pertzepzioez eta jarrerez egindako ikerketa handian, ezaugarri iraunkor batzuk agertu dira, zeinak gogoratzea komeni baita, eta geroago osatuko baititugu EAEko gizartean dauden diskurtso politiko eta sozialei buruzko azterlan honetan lortutako ondorioekin. Hel diezaiegun urteko barometroetan bildutako konstanteei.

Etorkinen presentziari buruzko pertzepzioaz: kopurua

EAEko gizarteak immigrazioari buruz duen pertzepzioa ez dator bat EAEn bizi diren atzerritarren kopuruarekin, egiaz bizi direnak baino atzerritar gehiago bizi direla uste baitu. Horren arabera, kopurua estatistika ofizialetan jasotakoa baino bi eta, batzuetan, hiru aldiz handiagoa da. Atzerritar jatorriko benetako biztanleriaren —errolatuaren— eta pertzepzioaren arabera arteko distantzia egonkor samarra izan da, gorabehera txiki batzuekin, 2004an egindako lehen azterlanez geroztik. Era berean, EAEko biztanleen erdiek baino gehiagok garbi daukate hurrengo urteetan gora egingo duela EAEn atzerritar jatorriko biztanleen kopuruak.

Etorkinen presentzia arazoa delako pertzepzioa

Neurriz gaineko pertzepzio horrekin batera, ez da gertatzen EAEko gizartean gehien-gehienek immigrazioa arazo sozial edo pertsonaltzat hartzea. Inkestatutako pertsonen %10 inguruk espontaneoki diote immigrazioa arazo bat dela EAEntzat, eta %5ek arazo pertsonaltzat hartzen dute. Iradokitako arazoak planteatzen direnean (Eurobarometroak erabiltzen duen arazo-zerrenda bera), immigrazioa EAEko pertsonen %13k aipatzen dute. EAEko herritarren kezka nagusiak (erantzun espontaneoak) kontu ekonomikoak dira, batez ere

langabezia, behin eta berriro aipatua, eta koiunturakoak izan daitezkeen beste kontu puntualago batzuk. Gainerako arazoak, hala nola ustelkeria eta iruzurra eta klase politikoa, neurri txikiagoan aipatzen dira.

Datu horiek agerian uzten dute atzerriko immigrazioaren fenomeno normalizatzen ari dela EAEko gizartean: nahiz eta politika globalaren alorrean ziurgabetasuna nagusi den (Brexit, terrorismoa, AEBren jarrera protekzionistak...) eta lan-arloan, ekonomian eta etika-arloan (ustelkeria politikoa) kezka handiak izan, EAEko gizarteak ez du immigrazioa arazotzat hartzen.

Eragina EAEko gizartean

Hasteko, EAEn immigrazioari buruzko debate soziala ez da erlazionatzen identitateei eta euskararen erabilerari buruzko eztabaida politikoarekin. Gaiak bereizten direnez, ez da sortzen gizarte osoari eragiten dion pertzepzio negatiborik. Horren haritik, immigrazioaren eraginari buruzko kezka lotura handiagoa du gai sozioekonomikoekin, identitatearekin baino.

Esparru ekonomikoan, pertzepzioa onaldi- edo krisi-koiunturen arabera alda daiteke, baina, oro har, gehiagok uste dute etorkinak iristeak ekonomiaren funtzionamendua hobea izaten laguntzen duela, eta etorkinak behar direla gure ekonomiaren sektore batzuetan lan egiteko. Urtez urte, etorkinek egiten duten ekarpen ekonomiko orokorrari buruzko ikuspegia ezkorra baino areago baikorra dela berresten da. Ikuspegik atal horretaz dituen txostenek ez dute zalantzarik uzten horri buruz, baina ez da ahaztu behar pertzepzio eta definizio sozialak egoeraren parte direla eta, batzuetan, balitekeela bat ez etortzea errealitatearekin, baina kasu honetan ez da hori gertatzen.

Harrerako komunitatearen eta etorkinen arteko bizikidetzaren eta integrazioa

Etengabe egiaztatzen da gizartea kultura anitzeko gizartearen alde dagoela, baina asimilazio-jarrera argi batean oinarrituta. Aniztasuna onartzen da, eta berekin dakarren aberastasuna aitortzen, baina, aldi berean, gehien-gehienek uste dute ezen, bizikidetzaren hobea lortzeko, etorkinek ahalegina egin behar du luketela gure ohiturak eta tradizioak hartzeko. Noranzko bitasun hori argi eta garbi asimetrikoa da. Immigrazio-fenomenoak asimilazioaren aldeko erreakzioak sorrarazi ohi ditu. Gorabidean diren errealitate berrien aurrean norberaren ohiturak, gure gizartean nagusi direnak, babestea da erantzun horien funtsa eta helburua. Gainera, EAEko gizarteak balorazio ona egin du norberaren udalerriko edo auzoko bizikidetzaren (hamarretik, sei puntu). Datu horien arabera "asimilazio biguna" edo "pixkanakako asimilazioa" deritzoguna dugu; hau

da, integrazio-prozesuan ezinbestekoa da kolektibo guztiek parte hartzea eta horren alde lan egitea, baina atzerriko etorkinen kolektiboek ahalegin handiena egin behar dute.

Estereotipo eta aurrejuzku ohiko eta unibertsalen artean —lana kentzen digute, matxismoa eta genero-indarkeria handitzen dira, ez dute integratu nahi, edo laguntza sozialen kontura bizi dira—, laguntza sozialei lotutakoak dira zabalduenak, baina gorabeherekin eta beherantz. Laguntzak erregularitasunak edo egindako ekarpenak baldintzatuta daude, baina hezkuntza eta osasunerako sarbidea baldintzarik gabekoa eta unibertsala da.

Harremanetarako eta kultura-ereduei eusteko eremuak

Kulturalak direlako kontuetan, biztanle autoktonoak tolerantzak dira zerbitzuak ekar diezazkieketen jokabideekin, edo kontu epidermiko, estetiko edo exotikoagoekin: merkataritza etnikoa edo atzerritarrek gobernatutako saltokiak. Merkataritza-errealitate sozial hori onuragarritzat jotzen da, eta nabarmen onartuta dago. Hala ere, kultura-aniztasunak berezko dituen beste elementu batzuekiko tolerantzia-maila txikiagoa da; adibidez, ez dira hain begi onez hartzen etorkinen usadio eta ohituren adierazpenak, jatorriko herrialdeko arropak janztea, erlijioetarako tenpluak eraikitzea, eta plaza eta espazio publikoak hartzea.

Pertsonen jatorriekiko sinpatia-mailari dagokionez, kulturalki, politikoki edo sozialki hurbilagozat jotako jatorriak dituzten etorkinekiko sinpatia-maila handiagoa dute biztanle autoktonoek. Hortaz, bertakoek begikotasun handiagoa diete Mendebaldeko EBko eta Argentinako herritarrei, eta ez dituzte begi onez ikusten jatorri magrebtarreko herritarrak. Lehentasun horiek denboran irauten dute. Immigrazioak iraunez gero, Mendebaldeko EBko eta Latinoamerikako biztanleak hobesten dira.

Immigrazio-politika

EAEko biztanleek oraindik ere lotzen dute migrazio-politika etorkinen lan-egoerarekin: “.. lan egitera etor daitezela”. Baina azken bosturtekoan, etorkinak beste lege-baldintza batzuk beteta (familia berrelkartzea, ikasle izatea, iheslariak, etab.) sartzeko aukera onartzea nabarmendu da. Aldi berean, inolako lege-oztoporik gabe sartzten uztearen alde dauden herritarren kopuruak ere gora egin du. Hala ere, beti pentsatzen da enplegu-kontratua oinarrikoa dela atzerritar guztiak erregularizatzeke, kontratu horren bidez sortzen baita migrazioa jomugako gizartetik zentzuz kontrolatuta dagoelako ikuspegia.

Ikuspegiren azterlanetan aipatutako beste berezitasun batzuek argi uzten dute *Tolerantzia Indizearen* aldaketek zerikusi handia dutela hautemandako etorkizunarekiko bihozkadekin: konfiantza edo mesfidantza; baikortasuna edo ziurgabetasuna. Aldi honetan guztian, taldeka: a) tolerantteen taldeak kideak galdu ditu, baina tolerantzia-maila hobeak lortuta konpentsatu du galera; b) anbibalenteen taldeak kide dezente irabazi ditu, eta tolerantzia-jarrerak mantendu ditu; c) uzkurren taldeak kideak galdu ditu, baina horrek ez du eragin tolerantzia-mailak behera askorik egitea.

Atzerritar jatorriko immigrazioari buruzko jarrerei dagokienez, sei profil bereiz ditzakegu *grosso modo* EAEko herritarren artean:

1. hiru, tolerantzia txikieneko esparruan,
2. bat, anbibalentziaren esparru zabalean, eta
3. bi, tolerantzia handieneko esparruan.

Lan-hipotesi bat da, Ikuspegiren barometroetako eta beste ikerketa kualitatibo batzuetako datuetatik datorren informazioan oinarrituta dagoena. EAEko biztanleak sei profil horietan sailkatzeko, azken hamabost urteetan erabili dugun eskema bat hartu dugu, baina berreginda. Eskema horretan hauek bereizten ziren: 1) intolerantzia ideologikoenaren profila, 2) zaurgarritasun-prozesuetatik eta/edo kompetentzia etnikotik ondorioztatzen zena, eta 3) tolerantzia handiagoko jarreretatik datorrena. Profilaketan, ikasketa-maila izan ohi da gehien bereizten duen aldagaia, eta ideologiak eta aldizkakoagoak diren beste aldagai batzuek ahalmen prediktiboa izaten dute immigrazioari buruzko jarrerei eta usteei dagokienez. Honako hau profil horien azaleko azalpen bat da:

- 1) **Ideologiagatik intoleranteak diren pertsonak:** ez dute onartzen ohikoak ez bezalako ezaugarriak eta bereizgarriak (hizkuntza, erlijioa, kosmobisioak, ohiturak, etab.) dituzten atzerritarrak iristea, nortasun autoritario eta dogmatikoaren ezaugarriak dituztelako, eta aldaketetara egokitzeko arazoak. Immigrazioaren esparruan ere aplikatzen dute besteak beste askatasun pertsonalen eta erlijioaren esparruan egiten dutena. Hau da, beren bizitzan duten balio-mundu bera aldatzen dute immigrazio-fenomenora. Talde horretan daudenek, EAEn, eskuineko ideologia politikoa dutela diote, espainolak direla diote, katolikoak direla, praktikanteak izan zein zen, nazionalista espainiarrak, eta adinez nagusiak dira.
- 2) **Zaurgarritasunaren esparruko pertsonak:** objektiboki eta subjektiboki, zaurgarritasun pertsonal eta sozial handiagoa dute; dudatan eta mehatxatuta sentitzen dira, etorkinak iristeak aldaketak eragiten dituelako daukaten ingurunean, eta ez dira gauza sentitzen haiei aurre egiteko; adin handikoak dira (65 urtetik gorakoak); erretiratuta daude; etxea zaintzen dute; diru-sarrera txikiak dituzte; ezkortzat jotzen dute beren burua; 2008ko krisi ekonomikoak eragin zien; babes sozialen bidez

osatzen dituzte (zati handi bat, behintzat) diru-sarrerak; eta sare sozial urria dute. Ziurgabetasuna, beldurra, segurtasunik eza eta hauskortasuna ondoez sozialaren sostengua dira.

- 3) Aurreko taldearen aldaera bat **egoeragatiko pertsona xenofoboak** dira: egitura sozialaren (laboralaren eta babes sozialekoaren) gune beretan lehiatzen dira gure gizartera lan egitera datozen etorkinekin, haiekin interakzio fisikoa izan zein ez. Ikasketa-maila apalekoak dira, lan- eta/edo lanbide-kualifikazio apala dute, etxean diru-sarreraren maila txikia da eta babes sozialen beharra dute (noizean behin, behintzat). Langabezian daude, estratifikazio sozioekonomikoaren behealdean kokatuta daude, ez daude pozik daukaten egoera ekonomikoarekin, etorkizun beltza dute eta krisi ekonomikoak asko eragin die. Pertsonok, egoera ekonomikoaren eta daukaten arriskuen arabera, anbibalentziaren esparrutik xenofobiaren esparrura edo alderantziz alda daitezke.
- 4) **Pertsona anbibalenteak**: biztanle gehien biltzen dituen kolektiboa denez, askotariko jarrerak daude, eta muturretan daudenek jarrera uzkurragoak edo toleranteagoak har ditzakete. Gainera, esparru honetan ezin hobeto egokitzen da kontzeptu-bitasuna, zeina Lakoff-ek²⁷ aipatzen baitu esatean pertsonak immigrazioaz iritzi kontraesankorrak izan ditzaketela, aldekoak alderdi batzuetan eta aurkakoak bestetuetan.
- 5 eta 6) **Tolerantziaren blokean ikasketak eta ideologia** txandakatu ohi dira ohikoenak diren aldagai bereizle eta/edo aurreale moduan, eta gehienetan berrelikatu egiten dira, eta tolerantzia-indize altuenak sortu. Era berean, tolerantziaren eremuan bi azpijarrera oso porotsu eta zedarritzen zail suma daitezke. Bi jarrerak hauek dira:

- *tolerantea, ideologiaren eta unibertsitate-ikasketen eraginaren ondorioz*; izan ere, elkar ernaltzeko matrize moduan funtzionatzen dute, eta tolerantzia-indizeak altuenak dira.
- *tolerantea, estatusaren ondorioz*; egoera ekonomikoa agertzen da, batzuetan ideologiaren lekua hartuta, bestetuetan bi aldagaien osagarri.
- Hiru aldagaiak –unibertsitate-ikasketak, ezkerreko ideologia, erdi- eta goi-mailako estatus sozioekonomikoa– tolerantziari eusteko ziurtasun-, segurtasun- eta konfiantza-iturri dira. Bauman-ek dio hiru indargune horiek behar ditugula, “beldurrik ez izateko, bestelakotasunaren eraginpean egoteko gure prestasuna jatetxe txinatar batera joatetik harago irits dadin”.
- Bi profil horiek aztertzean, ez da ahaztu behar nolabait kutsa daitezkeela, bai erantzunetako desiragarritasun sozialerako joeragatik, bai profil horiek eratzen dituzten pertsonen tresna

²⁷Lakoff, George. (2008). *Puntos de reflexión. Manual del buen progresista*. Península.

gehiago dituztelako diskurtso onargarri eta beren buruaz duten edo izan nahi duten irudiaren arabera bat taxutzeko.

Intolerantziaren arloan faktore ideologikoak eta egoera koiunturalari dagozkionak dauden bezala, tolerantziarenean presente dago goi-mailako ikasketek, ezkerreko ideologiak eta estatus sozioekonomikoak sortutako triangelukatzea. EAEko kasuan, ezkerreko ideologia euskal ideologia nazionalistaren jarrera jakin batzuekin osatzen da batzuetan. Baina, tolerantziaren arloan erdi- eta goi-mailako estatusa duten eskuineko edo zentro-eskuineko pertsonak ere aurki ditzakegu, askotan unibertsitate-ikasketak dituztenak.

Jarrera tolerantearen abiapuntua nabarmenkiago dago lotuta honako ezaugarri hauek gutxi-asko partekatzen dituzten pertsonen: 18-44 urte izatea; 20.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizitzea; unibertsitate-ikasketak izatea; euskaldunak izatea; agnostikoak edo ateoak; ezkerrekoak; euskal nazionalistak; nortasun-sentimendu euskotarra espainola baino gehiago izatea; hilean 1.801-2.500 euroko diru-sarrera izatea; daukaten egoera ekonomikoarekin pozik egotea; pertsona aktiboak izatea, edo erdi- edo goi-mailako estatusa dutenak; baikorrak; etorkizun onekoak; ia immigrazioerik gabeko auzoetan bizitzea; atzeritar jatorriko pertsonekin harreman publikoak, pribatuak eta aisialdikoak izatea.


Hala ere, azpimarratu nahi dugu zuhurtzia izan behar dela horrelako ezaugarritzeetan, baldin eta aldagai soziodemografikoekin guztizko bariantzaren laurdena inguru baino azaltzen ez bada (%27,64 2020ko Barometroan); hau da, EAEko gizartean dauden jarreretan dauden diferentzia guztien laurdena. Jarreretan, aldaketa gehienak jarrerak lotuta dauzkaten desberdintasun indibidualetan daude oinarrituta, ez kategoriatan sozialetan.

Adibide moduan, Ikuspegiren 2020ko Barometroko tolerantzia-indizea aztertzen badugu jarrera ideologikoen arabera, ohartzen gara EAEko tolerantziaren batezbestekotik gorako puntuazioa ematen dela eskuinetik abiatzen diren segmentazioaren ondoriozko sei motetako bitan: etorkinekiko harreman publikoa izatean (65,57 puntu) edo erdi- edo goi-mailako estatusa izatean (69,09 puntu).

Ezkerrekoei erreparatzen badiegu, ateratzen diren mota gehienek EAEko batezbestekoa (65,00 puntu) gainditzen dute, batez ere berariaz gurutzatzen badira ezkerreko ideologia eta unibertsitate-ikasketak (78,83 puntu). Baina batezbestekoa baino puntuazio txikiagoa duten bi mota daude: 1) zentro-ezkerrekoak izan eta lehen mailako ikasketak dituztenak eta 2) aisialdiko guneetan harremanik ez duten eta bigarren mailako ikasketak dauzkaten

zentro-ezkerrekoak. Azken bi kasu horietan, ezkerreko joera izan arren, ikasketa-mailagatik beharbada zaugarritasun-eremuan dauden pertsonak izan daitezke. Horregatik, garrantzitsua da kontuan hartzea zer elementuk gehitzen duten eta zer elementuk gutxitzen tolerantzia-atalaseen puntuazioan.

21. grafikoa. Puntuazioa tolerantzia-indizean, jarrera ideologikoen arabera (eskuinekoak eta ezkerrekoak), 2020



Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiaren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2020.

Era berean, garrantzitsua da aztertzea portzentajezko zer pisu daukan segmentazio-zuhaitzaren ondoriozko mota horietako bakoitzak.

10. taula. Segmentazio-zuhaitza eta tipologiak EAEko biztanleen artean. Puntuazioa, handienetik txikienera, 2020ko Tolerantzia Indizean, eta mota bakoitzaren pisua

		Puntuazioa	Ehunekoa	Metatua
1	ezkerreko ideologia + unibertsitate-ikasketak	78,83	5,5	5,5
2	ezkerreko ideologia + unibertsitate-ikasketak + harreman handia	72,36	7,7	13,2
3	zentro-eskuina edo eskuina + harremana + 18-44 urte + erdi- edo goi-mailako estatusa	69,09	8,3	21,5
4	ezkerra + lehen edo bigarren mailako ikasketak	68,94	11,3	32,8
5	zentro-ekerra + bigarren mailako ikasketak + aisialdiko harremana	68,46	8,2	41,0
6	zentro-ekerra + unibertsitate-ikasketak + harremana esparru publikoan	67,10	7,8	48,8
7	zentro-eskuina edo eskuina + harreman publikoa + 44 urtetik gora + tarteko diru-sarrerak (1.001 eta 2.500 €/hil)	65,57	6,7	55,5
	EAE	65,00		
8	zentro-eskuina edo eskuina + harreman publikoa + 18-44 urte + behe-mailako estatusa	62,62	4,2	59,7
9	zentro-ekerra + lehen mailako ikasketak	61,11	9,7	69,4
10	zentro-eskuina edo eskuina + harreman publikorik ez + eta gaztelaniadunak baino ez	61,11	5,2	74,6
11	zentro-eskuina edo eskuina + harreman publikoa + 45 urtetik gora + diru-sarrerak (gutxiago<1.000 edo >2.500€/hil)	59,21	12,2	86,8
12	zentro-ekerra + bigarren mailako ikasketak + harremanik ez aisialdian	58,92	4,3	91,1
13	zentro-eskuina edo eskuina + harremanik ez + euskaldunak	54,38	9,0	100
	EAEko biztanleria	65,00	100	

Iturria: Txostengileek egina, Ikuspegiaren Barometroaren datuetan oinarrituta, 2020.

Txostenaren ondorio espezifikoak

Azken atal honetan laburtuta aurkezten ditugu azterlan honetarako proposatutako lan-ibilbide osoa garatu ondoren ateratako ondorio orokorrak. Azterlanak, hasieran esan bezala, helburu nagusitzat du EAEn etorkinei buruz nagusi diren diskurtso politiko eta sozialak aztertzea.

Azterlanaren egitura eta logika orokorrarekin bat etorrira, alde batetik, diskurtso politikoaren azterketari dagozkion ondorioak bereizten ditugu, eta, bestetik, diskurtso sozialen azterketari lotutakoak.

Diskurtso politikoak

Ez du ematen immigrazioari buruzko diskurtsoak EAEko egungo debate eta jarduera politikoaren erdigunean daudenik. Hala adierazi dute kontsultatu ditugun kazetaritza politikoaren arloko adituek, eta, ildo beretik, 2018. urtearen hasieratik 2020ko ekainaren amaiera arte aurkeztutako ekimen parlamentario guztietatik %1,6 baino ez dira izan immigrazioari eta kultura-aniztasunari buruzkoak. Absentzia horrek, halaber, immigrazioaren kudeaketa instituzionalarekin zerikusia duten galdera asko planteatzen ditu, neurri horretako egiturazko gertaera horren aurrean neurri horren arabera bulkada instituzionala ezinbestekoa delako politiken ezarpenean. Hein handi batean, esan daiteke immigrazioa, egun, ez dagoela debatearen erdian. Gainera, ezkutatuta dago, giza mugikortasuneko fenomeno larriago batzuk direla-eta: iragaitzazko migratzaileak, familia-erreferenterik gabeko adingabeak eta gazteak, eta iheslarien mugimendua.

Hala ere, migrazio-fenomenoaren ostentze orokor hori gorabehera, uste dugu garrantzitsua dela esatea gaur egun EAEn ordezkartza parlamentarioa duten alderdi politiko guztien hauteskunde-programetan (EAE, 2020) berariaz jasotzen edo aipatzen dela immigrazioa. VOX-ek ez du ohiko hauteskunde-programarik aurkezten, neurri-dekalogo bat baizik, eta neurri horiek deigarriak dira gehiago funtsezkoak baino, hautesleen artean aldarte xenofoboak erakarri nahi dituztelako. Gainerako alderdi politikoek, ordea, programan immigrazioari eta/edo kultura-aniztasunari buruzko atal edo puntu espezifikoren bat sartzeaz gain, etorkinak eta/edo kulturarteko errealitatea aipatzen dituzte beste sail batzuetan ere, zeharkakotasuneko ariketa edo ahalegin batean.

Hortaz, ondoriozta daiteke ezen, immigrazioa gaur egun lehen orrialdeko debate politikoetako bat ez izan arren, badela, behintzat, etorkizuneko kudeaketa publikoan ekin beharreko errealitateen multzoan finkatutako fenomeno bat, eta alderdi politiko nagusiek horretaz duten jarrera sartzan dute hauteskunde-programan, immigrazioa espezifikoki tratatuz, bai eta, askotan, zeharkako moduan ere.

Hauteskunde-programetan eta ekimen parlamentarioetan immigrazioari (eta/edo kultura-aniztasunari) ematen zaion trataera horren barruan, ohartzen gara diskurtso orokorrean EAera iristen diren etorkinen aldeko gakoak gailentzen direla, batez ere ikuspegi asistentzialaren eta laguntza humanitarioaren ikuspegitik; diskurtso global horretan kulturartekotasuna aberastasun moduan balioestearen alde egiten dela; eta gizarte berdinzaleago baterantz egiteko nahia adierazten dela, kontuan har ditzan egoera zaurgarrietan dauden kolektiboen inguruabarrak eta beharrak.

Esparru diskurtsibo horren barruan mugitzen dira EAJ-PNV, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU, zeinek bere jarrera izan arren. Hauteskunde-programen eta ekimen parlamentarioen edukiaren azterketak joera batzuk erakusten dizkigu, zeinak, geroago, elkarrizketatutako kazetarien balioespeneke eta gogoetek osatu, indartu edo irmokiago adierazten baitituzte.

Laburpen moduan, hona hemen lau alderdi horietako bakoitzaren diskurtsoaren ezaugarriak:

EAJ-PNV

Etorkinen babesa aldeztu du ikuspuntu humanitariotik, eta integrazioaren eta kulturarteko aberastasunaren balioaren alde egiten du ikuspuntu pragmatikotik, ildo politiko kontinuista batean, eta EAEko gizartearen behar sozioekonomiko orokorretara egokituta. Kazetaritza politiko eta sozialean, batzuek anbizio falta egozten diote, bai eta, bereziki, ekonomizismoa eta utilitarismoa lehenestea ere (abertasuna metatzearen logikoa).

EH Bildu

Jarrera argi eta garbi ezkerrekoa izanda, eta sorospenetik eta laguntza humanitariotik harago, biztanle autoktonoen eta migratzaileen eskubideberdintasuna errebindikatzen du, eta indarreko sisteman aldaketa garrantzitsuak egitea proposatzen, EAEn, Espainiako Estatuan eta europar esparruan. Konpromisoa du errealitate eta problematika zehatzekin, eta desperekotasuna, diskriminazioa eta indarkeria arrazista edo xenofoboa salatzen ditu maila sozialean bezala instituzionalean ere. Kantsultatutako kazetarietako batek esan du kultura-aniztasunaren eta inklusioaren aldeko jarrera horrek talka egin dezakeela euskararen eta euskaldunen hizkuntza-eskubideen alde duen jarrera bereizgarriarekin.

PSE-EE

Bere egiten ditu ezkerreko planteamendu orokorrak, etorkinak hartzearen eta integratzearen aldekoak, aniztasuna errespetatzearen ikuspegitik. Kantsultatu ditugun kazetaritza politiko eta/edo sozialean arloko adituen ustez, alderdi hori, bere diskurtsoa garatzean, PSOEek estatu osoan egiten duen kudeaketa politikoaren errealitateak bereziki baldintzatuta dago.

Elkarrekin Podemos-IU

EH Bildu-renaren antzeko ildoan, eskubide-berdintasuna aldeztu du, aldaketa handiak errebindikatzen ditu eta EAeko, Espainiako eta Europako kudeaketa politikoari dagozkion problematika zehatz batzuei heltzen die; eta ezkerreko jarrera argia adierazten du, desparekotasunaren, xenofobiaren eta arrazakeria sozial eta instituzionalaren salaketari estu lotuta. Kazetaritza politiko eta sozialean, batzuek diote Unidas Podemos-IUk Espainiako Gobernuan betetzen duen eginkizunak daukan diskurtsoa baldintza dezakeela hurrengo urteetan, edo sinesgarritasuna ken diezaiokeela.

Immigrazioaren aldeko diskurtso orokorretik kanpo geratzen direnen artean, alderdi hauek daude: PP+Cs, zeina koalizio moduan aurkeztu baita azken hauteskunde autonomikoetan, 2020koetan; eta Vox, zeinaren ustez EAera migratzaileak edo iheslariak iristea arazoa baita EAeko gizartearentzat.

PP+Cs

PP+Cs-ren kasuan, bereziki nabarmentzen du ez dagoela bitartekorik eta kudeaketa politiko egokirik etorkinen errealitatea EAeko esparru sozioekonomikoaren barruan ondo hartu eta egokitzeko, esparru horretan kalterik egin gabe eta iristen diren pertsona horiek ezinbestean bazterkerian eta marjinaltasunean murgilduta utzi gabe. Hala ere, egun, ez du diskurtso oldarkorrik eta argi eta garbi atzerritarren aurkakorik.

Vox

Vox-ek, bestalde, delinkuentziari eta kriminalitateari lotuta heltzen die immigrazioari eta, zehazki, bakarrik dauden adingabeen errealitateari, eta haien aurrean, EAeko "familien" ongizatearen defentsa eta lehentasuna sustatzen ditu. Hautematen denaren arabera, etorkinak iristeari/bertan bizitzen gelditzeari buruzko diskurtsorik gogorrena du, argi eta garbi arbuizatzen baitu, eta bereziki harro dago jarrera horretaz.

Elkarrizketatutako kazetariak gogoeta egin dute Vox-en diskurtso iritsi berriak, gaur egun ordezkaritza parlamentario txikia izan arren, PP+Cs-ren diskurtsoarekin batera, zalantzan jar dezakeen lehen aipatutako etorkinen aldeko diskurtso-esparru orokorra. Hipotesi hori dela-eta bi jarrera daude: batzuek uste dute esparru orokor hau gehiengoduna dela, behar bezain ongi finkatuta dagoela, eta, horregatik, gaur egun ez dagoela arrazoirik pentsatzeko ahulduko dela; bestetuek, ordea, aldeko esparru orokorra azalekoa dela, egiturazko ikuspegirik ez dagoela eta sustrairik ez duela kritikatzeko dute, eta, horren bidez, haren hauskortasun posiblea adierazten.

Ildo horretan, diskurtsoak eta kontzeptuak zorrotzago ehunduz aurrera egiteko erronka planteatu da:

- zerbitzu publikoen funtsezko rola ezagutarazita;
- etorkinen errealitateari lotutako problematikak ikuspegi estruktural batetik izendatu eta azalduta, kontuan hartuta ez bakarrik arrazakeria edo xenofobia, bai eta beste desparekotasun-ardatz batzuk ere, hala nola klase soziala;
- kulturarteko bizikidetzaren erantzukidetasunaren eta berdintzaletasunaren ikuspuntutik aipatuta (asimilazio-logiketan erori gabe), eta sentimendu subjektiboez baino gehiago eskubideez eta betebeharez hitz eginda.
- eta, azkenik, berariaz aurre eginda egungo problematika zehatzei, ikuspegi estrukturalarekin, justizia sozialaren aldeko konpromisoan oinarrituta, eta esplizituki salatuta indarreko desparekotasunak, indarkeriak eta abusuak; adibidez, etxeko langile eta zaintzaile diharduten emakumezko migratzaileen errealitatearen kasuan.

Diskurtso sozialak

Aztertutako bigarren mailako iturrietako datuei esker, esan dezakegu EAEko errealitate sozialean immigrazioa “arazoz gabetzeko” bidean aurrera egiteko joera dela nagusi, bai eta atzerritar jatorriko biztanleek eskubide eta zerbitzu publiko batzuetan, hala nola osasunean eta hezkuntzan, sarbidea izatea normalizatzea ere, haien egoera administratiboa edo dokumentala erregularra izan zein ez; baina, era berean, gauza bera egiteko uzkurutasuna agertzen da beste eskubide eta zerbitzu batzuk izateari dagokionez; adibidez, laguntza sozialak, bai baitirudi immigrazioaren aldeko jarreretan noiznahi eta nonahi higitu beharreko harria direla. Esparru horretan, inbertsio sozialaren zigor-ikuspegia gailendu ohi da: babes-eskubideak dituenak horiek edukitzeko merezimenduak izan behar ditu.

Atzerritar jatorriko biztanleekiko estereotipoei eta zurrumurru negatiboari buruzko adostasunak presentzia du oraindik ere (baztergarriak ez diren puntuazioekin), baina badirudi indarra galtzen ari dela. Era berean, migratzaileen eredu kulturalak neurri handiagoan onartzeko joera ikusten da, baina komeni da aintzat hartzea onarpen hori gehiengoduna dela kontu exotikoekin, azalekoekin, zerbitzuren baten eskaintzari lotutakoekin, baina ez kontu sakonago eta funtsezkoagoekin, hala nola, adibidez, etorkinak beren jatorrizko herrialdean bezala jantzearekin, edo beren fedearen profesio publikoa egitearekin. Ildo horretan, datuek adierazten dute ongien balioetsitako atzerritar jatorriko pertsonak irizitakoaren arabera jatorri hurbilak eta/edo EAEko kultura-ohituren antzekoak dituztenak izan ohi direla.

Azkenik, oraindik goiz bada ere zehazteko zer-nolako eragina izan dezakeen gizarte-iritzian COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiak, egun, ez du ematen eragin txarrik izan duenik atzerritar jatorriko biztanleei buruzko pertzepzioetan eta balioespenetan. Izan ere, Ikuspegiren Barometroak 2020an bildutako datuek, orokorrean, 2007. urteaz geroztiko sail osoko ikuspegi onena eta tolerantzia-indize handiena ematen dute.

Eztabaida-taldeen bidez EAeko biztanle autoktonoen pertzepzio eta balioespenetara egin dugun hurbiltze kualitatiboak, halaber, berresten du immigrazioa gaur egun ez dela sartzan EAeko arazo sozial garrantzitsuenen artean.

Hala ere, komeni da kontuan hartzea zein diren talde guztietan etorkinei buruz gehien zabalduzat jotako bi iruzkin, zurrumurru edo aurreiritziak: alde batetik, laguntzez baliatzen direla; eta, bestetik, indarkeria eta delinkuentzia areagotzen dituztela.

Taldeetan, esaten da balitekeela iruzkin, zurrumurru eta aurreiritzi horiek gehiegizkoak izatea, faltsuak, edo etorkinen zati batentzat soilik balio izatea, baina aldeztan dituzten argudioak ere aurkitu ditugu, eta, bereziki, ikuspegi utilitarista edo pragmatikoak hartzen du indarra.

Bereizkuntza ideal bat egiteko joera dago: mutur batean ekarpena egitera datozen etorkinak daude, pertsona langileak, eta portaera jendekina dutenak; beste muturrean, etorkin gatazkatsuak daude, indarkeriari eta delinkuentziari lotutakoak, eta lan egiteko interesik gabe prestazioak eta laguntza sozialak jasotzeko interesa dutenak, eta horiek eragiten dute arbuioa.

Lehen multzoaren barruan, lan gogorak, askotan gaizki ordainduak eta biztanle autoktonoek normalean egin nahi ez dituztenak egiten dituzten etorkinak daude, bai eta, mehatxu edo lehiakide izan daitezkeelako susmorik piztu gabe, zerbitzuren baten ekarpena egiten dutenak ere. Alde horretatik, berariaz aipatzen dira uzta-bilketan eta eraikuntzan lan egiten duten afrikar edo errumaniar jatorriko gizonak; saltoki txikiak dituzten asiar familiak; eta, bereziki, etxeko langile eta, batez ere, adineko pertsonen zaintzaile diharduten emakumezkoak, normalean latinoamerikarrak, baina, bai eta errumaniarrak ere.

Gutxien balioetsitako kolektibo etorkinak indarkeriari eta delinkuentziari, integratzeko gogorik ezari, lan egiteko interesik ez izateari eta prestazioez eta laguntza sozialez gehiegi baliatzeari lotutakotzat jotzen dira.

Indarkeriari eta delinkuentziari dagokienez, “errumaniar mafiak” aipatzen dira prostituzio-sareei lotuta, eta, bereziki, gizonezko nerabeak edo gazteak, dela bakarrik dauden adingabeak, magrebtar jatorrikoak, adibidez, dela familia

etorkinen semeak, zerikusia dutenak gazteen gaueko aisialdiko gatazkekin, delinkuentziarekin, adiera zabalean, eta matxismoarekin.

Integratzeko gogorik ezari, lan egiteko interesik ez izateari eta prestazioak eta laguntza sozialak gehiegi baliatzeari dagokienez, aipagarriak dira marokoarrez eta komunitate musulmanez egiten diren aipamenak, eta fokua, batez ere, gizonezko helduen kasuan jartzen da.

Gogoeta autokritiko eta enpatikoek oro har aitortzen dituzte iparraren eta hegoaren arteko dinamikei lotutako bidegabekeriak, migrazio-prozesuei ekin beharra “irtenbide bakarra” delako, eta mafien engainuak, eta, zehatzago, esperientzia eta kasu ezagunei helduta, etorkin batzuen errealitate zaila eta prekarioa aipatzen dute, etxeko langile eta zaintzaile diharduten emakumeena, esate baterako, bai eta familia-erreferenterik gabeko adingabeek eta gazteek aitzinera jarraitzeko zer-nolako zailtasunei egin behar dieten aurre ere. Ildo horretan, klasismoa eta pobrezia ere aipatzen dira, biztanleria etorkin ezagunaren (bere berri dakigunaren) zati handi bat desberdintzen eta diskriminatzen duten errealitateak direlako, bai eta arrazakeria eta xenofobia bera ere.

Komunikabideek eta administrazio publikoak segurtasun txikia ematen dute immigrazioari buruzko datuei eta informazioei dagokienez, pentsatzen baita jakinarazten denaren edo ez denaren zati handi bat interes batzuen mende daudela, eta interes horiek etorkinaren errealitateari buruz informazio egiazkoa emateko konpromisoa gainditzen dutela, edo horrekin zerikusi txiki samarra dutela. Administrazio publikoaren kasuan, zehazki, benetako inplikaziorik ez izatea egozteaz gain, esaten da arazo handia dela gardentasunik ez izatea, etorkinei buruz datu egiazkoak/ofizialak ezin eskuratu ahal izatea (etorkinen benetako kopurua, prestazioak eta laguntza sozialak izateko eskubidea...); eta horrek atea irekitzen dio espekulazioari, bai eta, alde horretatik, diskurtso xenofoboaren eta arrazistenen gorakadari.

Etorkizunaz aritzean, belaunaldi berriez esaten da aldaketa positiboen sustatzaile izango direla, kultura- eta jatorri-aniztasuren normalizazio eta errespetu handiagoari lotuta, eta aniztasun eta kulturarteko bizikidetzaren horrekin gurutzatutako bizi-esperientzietan oinarrituta, hezkuntza-esparruan batez ere. Irudikatzen den egoeran, gero eta ohikoagoa izango da sarrerako nahiz irteerako migrazioa, bai eta EAEko gazteak Europako edo, oro har, munduko beste leku batzuetara joateari dagokionez ere. Ildo horretan, ordea, kezka batzuetako gogoeta eta sentimendu batzuk agertzen dira, areagotzen direnak ahotan erabiltzen direnean COVID-19ak eragindako pandemiak izan ditzakeen ondorioak eta berekin dakarren ziurgabetasun osoa. Ikuspuntu horretatik, hau da, baikortasuna bazter utzita, arriskutzat jotzen dira, halaber, eskuin erradikalaren gorakada posiblea eta, krisi-garaiotan, haren diskurtso xenofobo eta arrazista.

Azkenik, gazteen eztabaida-taldearen ekarpenaren alderdi bereizgarrienei bagagozkie, ezinbestean nabarmendu behar da hurbiltasun pertsonal handiagoa dutela etorkinekin, ez bakarrik eguneroko kide moduan hezkuntza-esparruan, bizitegi-aldean edo, oro har, esparru komunitarioan, bai eta erreferentziazko adiskide eta pertsona moduan ere.

EAEko etorkinen errealitateari buruzko iruzkinak, estereotipoak eta, azken batean, balioespenak gainerako taldeetan egindakoen ildo berekoak izan arren, esan behar da etorkinak liskartizat jotzen dituzten diskurtsoei buruzko jarrera kritikorako joera nabarmenagoa dela kasu honetan; eta adierazten da balitekeela etorkinei egoztea problematika sozial zabalaren "errua", hala nola gazteen indarkeriarena, delikuentziarena edo matxismoarena, etorkinei soilik ez egokitu arren.

